# Justiziaren Plan Estrategikoa
2022-2028




## Justizia Gurea
## guztiontzako justizia

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2022

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua

**Argitaraldia:**
1.a, 2022ko iraila

**Ale-kopurua:**
150 ale
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako saila
**Internet:**
www.euskadi.eus

**Argitaratzailea:**
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
**Autoretza:**
Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila
**Itzulpena:**
IZO. IVAPeko Itzulpen Zerbitzu Ofiziala

**Inprimaketa:**
Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua

**L.G.:**
LG G 00585-2022

**ISBN:**
978-84-457-3663-0

# Edukia


**1. Justiziaren Plan Estrategikoa 2022-2028 (JPE 2022-2028): sarrera ........ 7**

1.1. Aurkezpena ........ 7

1.2. JPE 2022-2028, Eusko Jaurlaritzaren erronka ........ 7

1.3. Zer da JPE 2022-2028? ........ 8

1.4. JPE 2022-2028aren egitura ........ 9

1.5. Denbora-muga ........ 10

1.6. Plangintza estrategikoaren zergatia ........ 10

1.7. Plangintza horren helburuak ........ 10

1.8. Genero-ikuspegiaren integrazioa ........ 11

1.9. Hizkuntza-normalizazioaren ikuspegia txertatzea ........ 12

1.10. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saliaren plan horrek baliagarria izan nahi du sektorearentzat, eta EAEko justizia-zerbitzu publikoa hobetu ........ 13

**2. Abiapuntuko egoera mugatzea ........ 17**

2.1. EAEko aurreko planak ........ 17

2.2. Justiziaren betiereko erreforma ........ 18

2.2.1. Espainiako eta EAEko justiziaren modernizazioarekin lotutako mugarri nagusiak ........ 18

2.2.2. Justiziarekin lotuta badaude ere gure eskumen-eremutik kanpo dauden aldagaiak, arau-erreformen bidez lantzen ari direnak ........ 19

2.3. JPE 2022-2028 bat etortzea JMaren eta Justiziaren arloan eskumena dutela kogobernantzan ari diren autonomia-erkidegoen proiektuekin ........ 21

2.4. Eskumen-eremua. Kogobernantzaren konplexutasuna ........ 23

2.5. Jardun-eremuak (administrazioaren beraren barruan) ........ 23

2.6. COVID-19a, justiziaren erreforma bizkortzeko aukera ........ 24

**3. Joerak, beharrak eta igurikimenak ........ 27**

3.1. Joera globalak ........ 27

3.1.1. Oro har ........ 27

3.1.2. Globalizazioa eta nazioartekotzea ........ 27

3.1.3. Faktore teknologikoak ........ 28

3.1.4. Giro ekonomiko eta soziala ........ 29

3.1.5. Faktore politikoak ........ 29

3.2. Herritarren eta pertsona eta erakunde erabiltzaileen beharrak eta igurikimenak ........ 30

**4. AMIA, diagnostikoaren ondorio nagusiak eta erronkak ........ 35**

4.1. AMIA ........ 35

4.2. Diagnostikoaren ondorio nagusiak eta erronkak ........ 36

**5. Interes-taldeak ........ 45**

6. Zer garen, zer egiten dugun eta nolakoak izan nahi dugun eta gu nola ikustea nahi dugun.... 49
6.1. Eginkizuna ..... 49
6.2. Ikuspegia ..... 50
6.3. Balioak ..... 51
6.3.1. Gure justiziaren zerbitzu publikoa nolakoa den ..... 51
6.3.2. Justiziaren zerbitzu publikoan lan egiten duten pertsonak nolakoak diren ..... 51
6.4. JPE 2022-2028ren mapa adierazgarria ..... 52
7. JPE 2022-2028aren Ekintza Plana ..... 55
7.1. Ildo Estrategikoak. Deskribapena eta helburuak ..... 55
7.2. Ildo estrategikoak, programak eta ekintzak ..... 59
7.3. Proiektuak ildo estrategikoaen arabera ..... 61
7.3.1. 1IE. JUSTIZIA EZAGUNA ..... 61
7.3.2. 2IE. JUSTIZIAK SARBIDEA ETA BABESA EMATEN DIE PERTSONA KALTEBERENEI ..... 66
7.3.3. 3IE. JUSTIZIA PERTSON(ET)AN ..... 78
7.3.4. 4IE. JUSTIZIA EGOITZA JASANGARRIETAN ..... 89
7.3.5. 5IE. JUSTIZIA DIGITALA ..... 96
7.3.6. 6IE. JUSTIZIA AURRERA ..... 97
7.3.7. 7IE. JUSTIZIA ULERGARRIA, AZKARRAGOA ETA AURRESANGARRIAGOA ..... 107
7.3.8. 8IE. JUSTIZIA ERRESTAURATIBOA ETA GATAZKAK EBAZTEKO BALIABIDE EGOKIAK ..... 114
7.3.9. 9IE. JUSTIZIA BERRITZAILEA ..... 124
7.3.10. 10IE. JUSTIZIAREN ALDE ELKARLANEAN ..... 129
7.4. Ezarpenaren kronograma ..... 136
7.5. Adierazleen taula ..... 139
7.6. Aurrekontua ..... 148
8. Plan hau kudeatzeko eredua. Gobernantza ..... 151
8.1. Planaren prestaketa ..... 151
8.1.1. Plana egiten parte hartu duten lantaldeak ..... 151
8.1.2. Prestaketaren eskemak ..... 152
8.1.3. Baterako sorkuntza ..... 153
8.2. Kudeaketa eredua ..... 153
8.2.1. Kudeaketa-ereduaren printzipioak ..... 154
8.2.2. Antolamendu-eredua. Organoak eta proiektu-taldeak ..... 156
8.2.3. Bitarteko propioak, kanpoko baliabideak eta hitzarmenak ..... 158
8.3. Jarraipena, ebaluazioa eta eguneratzeak ..... 158
8.3.1. Jarraipena eta ebaluazioa ..... 158

8.3.2. Plan dinamikoa. Planaren eguneratzeak eta/edo aldaketak....159
8.3.3. Adierazle-sistema....159
8.3.4. JDP 2021-2026 planaren koordinaziorako eta jarraipenerako tresnak....159
8.3.5. Informazioa, trebakuntza eta aldaketaren kudeaketa....160
I. eranskina. Egoeraren diagnostikoa....165
EI.1. Politikak, itunak, botere judiziala eta harreman-esparrua....165
EI.1.1 Botere judiziala, politizazioa eta independentzia....165
EI.1.2 Eskumenak eta harreman-esparrua....165
EI.1.3 Politika publikoak....165
EI.2 Pertsonak....166
EI.2.1 Hautatzea eta lanpostuak betetzea....166
EI.2.2 LPZak, ratioak eta plantillak....166
EI.2.3 Prestakuntza....166
EI.2.4 Pertsonen kudeaketarako tresnak....167
EI.2.5 Koordinazioa, komunikazioa, elkarlana eta talde-lana....167
EI.2.6 Etika kodea....167
EI.2.7 Profesionaltasuna, motibazioa eta aldaketa....167
EI.2.8 Laneko osasuna eta segurtasuna....168
EI.3 Justizia digitala....168
EI.4 Kudeaketaren antolamendua, kalitatea eta hobekuntza....168
EI.4.1 Bulego Judiziala (BJ) ezartzea....168
EI.4.2 Kudeaketaren kalitatea eta hobekuntza....168
EI.4.3 Bestelakoak....169
EI.5 Azpiegiturak eta aurrekontua....169
EI.5.1 Plangintza eta espazioak....169
EI.5.2 Egokitasuna....169
EI.5.3 Berritzea eta kudeatzea....170
EI.5.4 Aurrekontua: gehikuntza, aurrekontu-autonomia, efikazia....170
EI.6 Beste operadore juridiko batzuk....171
EI.6.1 Oro har....171
EI.6.2 Doako justizia eta abokatuak....171
EI.7 Jarduera judiziala....172
EI.7.1 Erantzun-denbora....172
EI.7.2 Berdintasuna justiziaren aurrean....172
EI.7.3 Pertsona eta erakunde erabiltzaileekiko harremana....173
EI.8 Gatazkak ebazteko baliabide egokiak....173

EI.8.1 Ezagutza eta kultura-aldaketa ....173
EI.8.2 GEBEak....173
EI.9 Herritarren ezagutza eta pertzepzioa....174
EI.9.1 Sistemari buruzko ezagutza....174
EI.9.2 Balorazioa ....174
EI.9.3 Gardentasuna ....174
EI.10 Diagnostikoaren espezifikotasun batzuk....174
EI.10.1 Biktimak....174
EI.10.2 Pertsonak eta koordinazioa....175
EI.10.3 Justiziarekin lankidetzan aritzeko zerbitzuak ....176
EI.10.4 Polizia judiziala ....176
EI.10.5 Heziketa, prestakuntza eta euskara ....177
EI.10.6 Justiziarekin lankidetzan aritzeko zerbitzuak ....177
EI.10.7 Gizarte Gaiak ....178
EI.10.8 Egoitza judizialak eta hiria ....178
II. eranskina. Datu adierazgarri batzuk .... 179
EII.1 JAko langileak EAEn....179
EII.2 EAEko jarduera judiziala. Tasak ....179
EII.3 EAEko jarduera judiziala. Adierazle nagusiak ....180
III. eranskina. Terminoen eta laburduren glosarioa .... 181
**Plan honetan parte hartu dutenak .... 185**
Talde sustatzailea ....185
Interes-taldeak ....186
Operadore juridikoak ....186
Administrazio Publikoak eta Hirugarren Sektorea ....187
Biktimak....189
Diseinu-taldea ....189
Dokumentuan erabilitako argazkiak .... 190




# Justiziaren Plan Estrategikoa 2022-2028 (JPE 2022-2028): sarrera

1

# 1. Justiziaren Plan Estrategikoa 2022-2028 (JPE 2022-2028): sarrera

## 1.1. Aurkezpena

Dokumentu honetan biltzen dira 2019. urteko azken hiruhilekoan, 2020. eta 2021. urteetan eta 2022ko lehen hilabeteetan egindako analisiaren hausnarketak eta emaitzak; hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko (hemendik aurrera EAE) justizia-sektorean epe ertainean (2022-2028) egingo diren lanen plangintza estrategikoa prestatzeko egin da analisi hori. COVIDaren pandemiak bai denborak bai egiteko sistema nabarmen aldatu dituela adierazi behar da.

Plangintza estrategiko hori eta haren azterketa oinarrizko plan bat dira, dinamikoa eta errealitate aldakor batera egokitu daitekeena, eta hobetu egingo da Justizia Administrazioko operadoreekin (aurrerantzean, JA), herritarren ordezkariekin eta beste administrazio batzuekin hitz eginez eta elkarlanean arituz.

## 1.2. JPE 2022-2028, Eusko Jaurlaritzaren erronka

2020ko urriaren 13an, Gobernu Kontseiluak XII. legegintzaldiko Gobernu Programa, «Euskadi martxan», onartu zuen erabaki baten bidez. Programa horretan jasotzen da Jaurlaritzak zer konpromiso abiarazi behar dituen, herritarrekin XII. legegintzaldirako hartu dituen konpromisoak betetzeko.

*II.* ardatzean *Pertsonak: Osasuna, hezkuntza, zerbitzu publikoak, berdintasuna, gizarte- eta kultura-politikak, bizikidetza eta giza eskubideak delakoan 14. jardun-eremua* jasotzen da*: Justizia*, honako hau kontuan hartuta: *Justizia Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 16. Helburuan sartzen den funtsezko zerbitzu publiko bat da* eta *Orain arte garatutako bidean aurrera egin behar da, gero eta justizia modernoago, arinago, eraginkorrago eta digitalizatuago bat lortzeko xedearekin, Europar Batasuneko justizia-administrazioko sistemarik aurreratuenekin bat etorriz. Horrez gain, justizia hori hurbilagoa eta errestauratiboa izango da eta pertsonengan zentratuko da, bereziki, pertsonarik ahulenengan*. Horretarako, konpromiso hau ezartzen da, beste batzuen artean: ***97. konpromisoa.*** **Sistema judizial modernoa bultzatzea** eta **1. ekimena.** ***Justiziaren Plan Estrategiko bat onestea, pertsonengan zentratutako justizia arina, eraginkorra eta digitalizatua eraikitzeko parametroak ezarriko dituena.***

> *Justizia jardun-arloa garatzen duten hiru konpromisoetan (97, 98 eta 99) 26 ekimen aurreikusten dira, eta horiek, neurri handiagoan edo txikiagoan, eragiten dute eta JPE 2022-2028 honetan sartuta daude.*

2021-2026 Justizia Digitalaren Plana, hemendik aurrera JDP 2021-2026, duela gutxi aurkeztu dena, ildo estrategikoetako bat da, JPE 2022-2028 honen funtsezko eta premiazkoenetako bat. Logikoena honako denbora-segida honi jarraitzea zen: hurrengo urteetarako Justiziako Plan Estrategikoa lantzea, gero haren Ildo Estrategikoetako bat garatzea (JDP 2021-2026, alegia), eta, ondoren, Espediente Judizial Elektronikoa (aurrerantzean, EJE) ezartzeko proiektuetan lanean hastea; baina pandemiaren eta beharraren ondorioz, logika eta faktoreen ordena aldatu beharra izan dugu. Horrela, ia urtebete daramagu EJE berria lantzen, eta, 2021aren amaieran, JDP 2021-2026 aurkeztu genuen; bitartean, JPE 2022-2028 hau prestatzen jarraitu dugu.

## 1.3. Zer da JPE 2022-2028?

adostutako dokumentua

EAEko justiziaren arloan erantzukizunen bat duten operadoreen artean

aldez aurretik eta haiek beraiek eta interes-taldeekin eginiko gogoeta-prozesu baten ondoren

zeinak datozen urteetan (2022-2028) aplikatuko den estrategia zehazten baitu

EAEn justiziaren zerbitzu publikoa hobetzeko

### 1.4. JPE 2022-2028aren egitura

**EAEko justiziari buruzko testuingurua, etorkizuneko joerak eta diagnostikoa**
Testuinguru-elementuak zehazten ditu, bai eta EAEko justizia-sektorearen egoera-diagnostikoa ere

**Ezarpenaren eta jarraipenaren eredua**
Zehazten du nola prestatu den plana eta zer mekanismo aplikatuko diren haren indarraldian kudeaketarako eta jarraipenerako




**Eginkizuna, ikuspegia eta balioak**
EAEko justiziaren izateko arrazoia eta justiziaren zerbitzu publikoa 2028an, proiektuak gauzatu ondoren, izatea nola nahi dugun

**Ekintza-plana**
2022-2028 aldian gauzatu beharreko programak eta proiektuak biltzen ditu

**Ildo estrategikoak eta helburuak**
Planaren egiturako jardun-eremu nagusiak dira

## 1.5. Denbora-muga

Hasiera batean, 2020tik aurrera aplikatzen hasiko zela pentsatu bazen ere, COVID-19aren pandemiaren ondorioz sortutako arazoek 2022ra atzeratu dute haren indarraldia hasteko data. Halaber, planaren garrantziagatik eta proiektu asko izapidetzen ari diren arau-erreformekin lotuta daudela kontuan hartuta (denbora behar dute horiek garatzeko), 2028ra arte luzatuko da haren indarraldia. Horrenbestez, 2022-2028koa izango da planaren iraupena.

## 1.6. Plangintza estrategikoaren zergatia

Plangintza hori egin behar da honako arrazoia hauek direla eta:

- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak sumatu du sektorearen errealitatea ez ezik, eragile juridikoen eta Justizia Administrazioarekin harremanetan dauden pertsonen beharrak eta igurikimenak ezagutu eta haiengana hurbildu beharra dagoela.
- EAEko justiziaren esparruan plangintzaren kulturarekin jarraitzea komeni da.
- Justiziaren zerbitzu publikoarekin eta zerbitzu horren gaineko jarduketen plangintzarekin lotutako hainbat dokumentu daude. Eusko Jaurlaritzak, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak (aurrerantzean, EAEAN) eta Fiskaltza Nagusiak egin dituzte dokumentu horiek, eta, esparru komun asko badituzte ere, ez da eztabaida eta tratamendu partekaturik egon.
- Ikuspegi komun batekin aurrera egin behar da.
- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak gehiago jakin behar du herritarrei eta bere eskumen-eremuko interes-taldeei buruz, bai eta herritarren beharrei erantzuteko jardun behar beharreko pertsonei eta errealitateei buruz ere.
- Justiziaren eremuan lan egiten duten pertsonak dira haren aktiborik garrantzitsuena, ez dago zalantzarik; pertsona horiek beren egoerari eta justizia-zerbitzu publikoaren etorkizunari buruzko igurikimen jakin batzuk dituzte, eta beharrezkoa da horiek ezagutzea eta haien ekarpenak kontuan izatea.
- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin batera hausnarketa bat egin behar dutela erabaki dute operadore juridiko nagusiek, epe ertainerako plangintza egin ahal izateko, eta horri esker, EAEko justizia-zerbitzu publikoa benetan eraldatzeko eta hobetzeko.

## 1.7. Plangintza horren helburuak

- Zer garen eta zer egiten dugun aztertzea
- Nolakoak izan nahi dugun eta gu nola ikustea nahi dugun zehaztea
- Gure helburuak zehaztea
- EAEko justiziaren sektorea kohesionatzea
- Elkarlanean aritzea Badakigu (planaren) emaitzak zer garrantzi duen, baina baita hura egitean ibilitako bideak zer garrantzia duen ere.

## 1.8. Genero-ikuspegiaren integrazioa

JPE 2022-2028 planaren ildo estrategiko guztietan eta bertako proiektu eta ekimen guztietan honako gidalerro hauek aintzat hartu beharko dira:

- Pertsonak hizpide ditugunean (herritarrak; gizartea; operadore juridikoak; epaileak; fiskalak; Justizia Administrazioko legelariak –hemendik aurrera JAL–; Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko, Izapidetze Prozesal eta Administratiboko eta Laguntza Judizialeko kidegoetako langileak –hemendik aurrera, kudeaketa, izapidetze eta laguntzako kidegoak–; Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuko langileak –aurrerantzean, AMEI–; perituak; abokatuak; prokuradoreak; lan-harremanetako gradudunak; gure zerbitzuen erabiltzaileak eta abarrak), kontuan izango da emakumeei eta gizonei buruz ari garela, zeinek egoera eta premia desberdinak baitituzte eskubideak erabiltzeari, aukera-berdintasunari eta zenbait baliabidetara iristeari dagokienez (baliabide ekonomikoak, denbora, hezkuntza eta kultura maila, lan-merkatua, teknologia berriak, administrazio elektronikoa, Interneten erabilera aurreratua, teknologia aurreratuenak, herritarren parte-hartzeko bideak, haien kolektiboen edo organo instituzionalen kategoriak, eta abar.).
- Horregatik, herritarrak, erabiltzaileak, gizartea, langile publikoak eta halakoak aipatzen direnean, errealitatea den bezalakoa ikusarazi beharko da: herritarren multzoa emakumezkoek eta gizonezkoek osatzen dute (ia-ia erdibana); barneko operadore juridikoen % 60tik gora emakumezkoak dira; gure zerbitzuak jasotzen dituzten pertsonen artean, zerbitzu batzuetan emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago dira eta beste batzuetan alderantziz (nolanahi ere, aldeak edo diferentziak dira bi sexuen artean, bai eta sexu bakoitzaren barruan ere, hala beharrizanetan nola baliabideak eskuratzean; talde bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartu behar dira, administrazioak bere zerbitzuak eskaintzeko orduan). Beraz, sexismoa baztertu behar da.
- Kontuan hartuko dira berdintasunaren arloan indarrean dauden legeak eta XII. legegintzaldirako Gobernu Programan jasotako berdintasun-politikekiko konpromisoa.
- Emakunderen, Eusko Jaurlaritzaren eta UPV/EHUren web orrietako baliabideak eta tresnak erabiliko dira genero-ikuspegia txertatzeko: hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexistarako gidak; bideoak; aztertzeko tresnak; kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetarako klausulak; egoera desberdinen testuingurua azaltzeko materialak; etab.).

Bestalde, genero-ikuspegiari behar bezalako garrantzia emateko, 2IE. «Justizia»ren barruan (pertsona kalteberenei sarbidea erraztu eta laguntza ematea) bi proiektu espezifiko aurreikusten dira: 10P (Emakumeen aurkako indarkerien biktimei laguntzea. EAIBaren planaren garapena, eta 12P (Justizia eta emakumeak).

## 1.9. Hizkuntza-normalizazioaren ikuspegia txertatzea

174/2010 Dekretuaren bidez (gaur egun indarrean), EAEko Justizia Administrazioaren Hizkuntza Normalizazioaren esparrua onartu zen. Horren ondoren, EAEko Justizia Administrazioan Hizkuntza Normalizatzeko Plana onartu zen (aurrerantzean, JAHNPO), zeinak 2011-2020 aldia hartzen zuen barne.

Planak honako helburu nagusi hauek ezarri zituen:

1. Euskarari ematen zaion garrantzia handitzea eta zabaltzea.
2. Herritarren eta profesionalen artean euskarazko zerbitzuen erabilera sustatzea, eskaintza ugarituz.
3. Justizia Administrazioaren zerbitzupeko funtzionarioek euskara erabiltzeko izan behar duten inplikazioa azpimarratzea.
4. Euskararen normalizazioaren aldeko jarrera bultzatzea epaile, fiskal eta Justizia Administrazioko legelarien artean.

Gaur egun, haren indarraldia amaituta, planaren azken ebaluazioa egin da, plan berria egin eta onartu aurretik. Hori da, berez, JPE 2023-2033 honen proiektuetako bat da.

Horrenbestez, egokia da hizkuntza normalizatzeko plan berriaren planteamenduak zein diren jakin arte itxarotea, plan honetako proiektu eta ekimenei eransteko, ahal den heinean. Honako hau beharrezkoa da nabarmendu behar dugu, nolanahi ere:

- Jarduketa batzuk gehitzea, euskarak Justiziaren eremuan duen ezarpen eskasa gainditzen laguntzeko.
- Kontuan hartzea hizkuntza-normalizazioaren arloan indarrean dauden legeak eta XII. legegintzaldirako Gobernu Programan jasotako euskara-politikekiko konpromisoa. Hain zuzen ere, 118. konpromisoan honako hau aipatzen da: Euskararen ezagutza areagotzea eta, batez ere, euskararen erabilera azpimarratzea gizarte- eta kultura-eremuetan, eremu ekonomikoan, digitalean eta sektore publikoan. Eta 119. konpromisoan, berriz, honako hau jotzen da beharrezkotzat: Hizkuntza-eskubideen erabateko errespeturantz eta normalizatutako hizkuntza-bizikidetza baterantz aurrera egitea.
- Behar diren ahalegin guztiak egitea aplikazio guztietan euskara sartzeko; batez ere, espediente judizial elektronikoan, dokumentu-eredu guztietan, justizia.eus atarian eta egoitza judizial elektronikoan.
- Hizkera judizialera egokitutako itzulpen-tresna automatizatuak lantzea.

## 1.10. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren plan horrek baliagarria izan nahi du sektorearentzat, eta EAEko justizia-zerbitzu publikoa hobetu

EAEko justizia-zerbitzu publikoa hobetuko bada, beharrezkoa da justizia-arloko eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Sailaren eta beste administrazio publiko eta konstituzio-organo batzuen laguntza, eskumenak partekatzen baitituzte eta lurraldeari nahiz funtzionaltasunari dagokienez behar bezala koordinatu behar baitira. Hala, Estatuan, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia (aurrerantzean, BJKN), Justizia Ministerioa (aurrerantzean, JM), Estatuko Fiskaltza Nagusia (aurrerantzean, EFN). EAEren eremuan, Justizia Sailburuordetzako zuzendaritza guztiak (aurrerantzean, JS), EAEAN, Fiskaltza Nagusia eta EAEANko Gobernu Idazkaritza (aurrerantzean, Jaurlaritzaren Idazkaritza).

Plan hau Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren plan bat da, baina beste organo horien erantzunkidetasuna behar da barne hartzen dituen proiektu asko gauzatzeko. Horrela zehazten da proiektu bakoitzaren fitxan, eragile arduradunen eta eragile laguntzaileen ataletan.

Beste proiektu batzuetan, berriz, (batez ere 7. ildo estrategikoan –Justizia ulergarria, azkarragoa eta kalitatezkoa–, baina baita beste batzuetan ere–, erantzukizun nagusia EAEANari dagokio, baina planean sartu dira homogeneotasuna eta koherentzia emateko, eta horrek ez du inola ere esan nahi ezarritako eskumen-esparrua aldatzeko asmorik dagoenik. Kasu horietan, kasuan kasuko administrazioaren borondatearen araberakoak izango dira jarduketak eta erreferentzia-datak. Proiektuetako batzuetan, deskribapenean bertan jasotzen da beharrezkoa dela lankidetza-hitzarmenak egitea proiektua gauzatzeko.



# Abiapuntuko egoera mugatzea

2

# 2. Abiapuntuko egoera mugatzea

## 2.1. EAEko aurreko planak

Justiziaren transferentziak egin zirenetik, planifikatuta lan egiteko tradizioa egon da EAEn. Hori horrela, honako plan hauek egin dira:



### Egoitzen plana

Egoitza Judizialen Plana VII. Legegintzalditik aurrera bultzatutako Justizia Administrazioa Modernizatzeko prozesuaren barruan sartu zen eta VIII. Legegintzaldirako Gobernu Programan eman zitzaion jarraipena. Egoitza Judizialen Plana 2010. urtean amaitu zen.



### Informatika Judizialeko Planak

Informatika Judizialeko lau plan: 1990-1995, 1996-1999, 2000-2003 eta 2008-2011.




### Bulego Judizialaren antolakuntzarekin eta eraberritzearekin lotutako planak

Euskadiko Justizia Administrazioaren Bulego Judizial eta Fiskalen 2008-2010 urteetarako Antolaketa Plana.

2019an, 13 barruti judizialetan ezarrita.




### Hizkuntza Normalizazioarekin lotutako planak

EAEko Justizia Administrazioan Hizkuntza Normalizatzeko Plan Orokorra 2008-2017 (2020ra arte luzatuta).




### Plan orokorrak

Justizia Administrazioa Modernizatzeko Jarrera Integrala (JAMJI 2008), euskalduntzearen, teknologia berrien eta antolaketa-egokitzapenaren arloko 2008-2012 aldirako helburu eta ildo estrategikoak zehaztu zituen.

## 2.2. Justiziaren betiereko erreforma

### 2.2.1. Espainiako eta EAEko justiziaren modernizazioarekin lotutako mugarri nagusiak

<table>
<tr><th>1997</th><th>2001</th><th>2002</th><th>2003</th><th>2007</th></tr>
<tr><td>Justiziaren Liburu Zuria</td><td>Estatu-ituna, Justizia eraberritzeko</td><td>Puntu neutro judiziala<br><br>Justiziaren aurrean herritarrek dituzten Eskubideen Gutuna.</td><td>Botere Judizialaren Lege Organikoa aldatzea</td><td>Lexnet sistema</td></tr>
<tr><th colspan="2">2008</th><th>2009</th><th>2010</th><th>2011</th></tr>
<tr><td colspan="2">2008-2010 Euskadiko Justizia Administrazioaren Bulego Judizialak eta Fiskalak Antolatzeko Plana (2008ko uztailaren 29ko Gobernu Kontseilua).<br><br>Modernizazio Plana eta Justizia Hobetzeko Berehalako Jarduera Plana (BJKN)</td><td>Justizia Sistemaren Modernizaziorako Plan Estrategikoa 2009-2012 (Justizia Ministerioa)</td><td>Mugape eta Plantari buruzko Batzordearen txostena</td><td>18/2011 Legea, Justizia Administrazioko informazio- eta komunikazio-teknologien erabilerari buruzkoa<br><br>AJEEBT sortzea (396/13 ED, ekainaren 7koa)</td></tr>
<tr><th>2012</th><th>2015</th><th>2020</th><th colspan="2">2021-2022</th></tr>
<tr><td rowspan="2">2012-2015 Jarduera Plana (Justizia M.)</td><td rowspan="2">2015 Plana: justizia bizkortzea, ingurune digitaletan</td><td rowspan="2">3/2020 Legea, irailaren 18koa, Justizia Administrazioaren esparruan COVID-19ari aurre egiteko neurri prozesalena eta antolaketa-neurriena.<br><br>2030 JM plana</td><td colspan="2">JDP 2021-2026</td></tr>
<tr><td colspan="2">Efizientzia Prozesalaren Legearen proiektua<br><br>Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua<br><br>Efizientzia Digitalaren Legearen aurreproiektua<br><br>Prozedura Kriminalaren Legearen aurreproiektua</td></tr>
</table>

Honako ardatz hauek osatu zuten justizia eraberritzeko beharra:

- Babes judizialerako eskubidearen gizarte-eskarian aurrera egitea.
- Europar Batasuneko sistema judizialarekin homologatutako jurisdikzioa lortzea efizientzia eta kalitateari dagokionez.
- Bikaintasuneko zerbitzu publiko baterantz aurrera egitea.
- Erakundearteko eta gizarteko borondate-akordioa lortzea. Adostasun korporatiboa 1997ko Justiziaren Liburu Zuriarekin lortu zen, eta politikoa, berriz, 2001eko Justiziaren Erreformarako Estatu Itunarekin.

Baina erreforma hori, anbizio handiz definitua bazegoen ere, herabe eta astiro gauzatu da azken 20 urteotan; hala bada, erreformatu beharreko arauak eta aplikatu gabeko erreformak ditugu; eta ebazteko daude, orobat, (guztiak zehatz-mehatz adierazteko asmorik ez badugu ere), honako gai garrantzitsu hauek:

- Epaileen independentzia
- Prozedura Kriminalaren Lege berri bat
- Instrukzioa egiteko epeak
- Tasa judizialen sistema
- Doako justiziaren egituraketa
- Justizia antolatzeko sistema
- Gaur egungo barruti judizialen eta lehen auzialdiko eta instrukzioko kide bakarreko epaitegien iraunkortasuna
- Erregistro Zibiletako erreformen aplikazioa indarrean jartzea atzeratzea (ezartzeko fasean dagoeneko)
- Gatazkak konpontzeko bitarteko alternatiboekin zerikusia duen guztia behar bezala arautzea
- Justiziaren digitalizazioa

### 2.2.2. Justiziarekin lotuta badaude ere gure eskumen-eremutik kanpo dauden aldagaiak, arau-erreformen bidez lantzen ari direnak

Hori dela eta, EAEko justiziaren zerbitzu publikoa hobetzeko jarduketak planifikatzeko, beharrezkoa da hainbat faktore ezagutzea eta kontuan hartzea. Faktore horiek, justiziaren funtzionamendurako erabakigarriak badira ere, haren eskumen-eremutik kanpo geratzen dira, eta, ondorioz, gerta liteke horiek plangintza osoa baldintzatzea.

Baina egoera hori nabarmen aldatu da COVIDaren izurritearekin batera, eta 2030eko planean eta izapidetzen ari diren lege-proiektuetan JMaren eta autonomia-erkidegoen baterako gobernantzarako ekimenetik sortutako berrikuntza garrantzitsuen ondorioz. Ondorengo ataletan izango ditugu hizpide berrikuntza horiek. Hala bada, «kontrolatu gabeko aldagai» horietako asko kontrolatuago daude orain, epe laburrerako aurreikusitako erreforma-planaren aurreikuspenak aintzat hartuta; izan ere, azken 20 urteetako aurrerapen herabeei konponbidea ematen saiatzen ari da plan hori.

Zehazki, talde sustatzailearen saioetan, kontrolatu gabeko aldagai hauek adierazi dira (horien gaineko adostasun-mailaren arabera ordenatuta):

- 18/2011 Legea, Justizia Administrazioan Informazio eta Komunikazio Teknologien Erabilera arautzen duena, ez da betetzen ari. Lege horrek mundu judizialeko eragileek erabiltzen dituzten aplikazioak garatzeko beharrezkoak diren gutxieneko baldintzak (interkonexioa, elkarreragingarritasuna eta segurtasuna) ezarri zituen. Baina orain arte ez zegoen komunikazio sare bateratu baten eta elkarreragingarritasunaren aldeko apustu garbirik, eta hori guztiz beharrezkoa da. Hala eta guztiz ere, COVIDaren ondoriozko krisiak eta horrek justiziaren eremuan dituen ondorioei aurre egiteko planteamenduek proposamen berrien agertokia aurreratzen dute, lege hori eguneratzeko eta haren aplikazioa sinplifikatu eta bizkortzeko. Besteak beste, honako hauetan zehaztuta daude planteamendu horiek: apirilaren 28ko 16/2020 Errege Lege Dekretuan, justizia-administrazioaren eremuan COVID-19ari aurre egiteko prozesu- eta antolaketa-neurriei buruzkoan, eta irailaren 18ko 3/2020 Legean, Justizia Administrazioaren esparruan COVID-19ari aurre egiteko neurri prozesalen eta antolaketa-neurrienean, bai eta efizientzia prozesalari buruzko legearen aurreproiektuan ere[1].
- Orain arte Erregistro Zibilaren erreforma, haren desjudizializazioa dakarrena, aplikatu ez bada ere, duela gutxiko 3/2020 Legeak, irailaren 18koak, Justizia Administrazioaren esparruan COVID-19ari aurre egiteko neurri prozesalen eta antolaketa-neurrienak, azken xedapenetako hamargarrenean, pixkanaka ezartzeko egutegi bat ezarri du, eta egutegi hori betetzen ari da.
- Kide anitzeko antolamendua hedatzeko beharra antzeman da, eta horrek berekin dakar kide bakarreko epaitegien ordez instantzia-auzitegiak jartzea, zeina antolaketaren efizientziari buruzko legearen proiektuan jasota dagoen.
- Ikerketa penala Fiskaltzari esleitzea komeni da, prozedura kriminalaren lege-aurreproiektuan jasotzen baita, baina aldez aurretik bitarteko egokiak esleitu beharko zaizkio fiskaltzari.
- Bake-justiziak ez dio erantzuten hurbiltasuneko justiziaren eredu argi bati, eta antolaketaren efizientziaren legearen proiektuak hori ezabatzea eta udalerrian justizia-bulegoak sortzea aurreikusten du.
- Prozedura judizialen ikuskera zaharkitua dago. Prozedurak ebazteko orduan, premia argia dago sinplifikatzeko, ahozkotasunerako, berehalakotasunerako eta alferrikako izapideak ezabatzeko, eta epe argiak eta aurrez ezarritakoak ezarri behar dira, baita agintaritza judizialarentzat ere. Gai horietako batzuk herabeki jorratzen dira Efizientzia prozesalari buruzko legearen aurreproiektuan.
- Ez dago uniformetasunik epaileek kasu berdinei emandako erantzunean, ezta kasu horietarako ebazpen-proposamen automatikoak egiteko mekanismorik ere. Baina efizientzia prozesalari buruzko legearen proiektuak lekukoaren prozedurak jasotzen ditu egoera horri erantzuteko.
- Kultura-aldaketa baten bidez gatazkak ebazteko bitarteko alternatiboak garatzeko beharra dago, eta hori zabal jorratzen da antolaketaren efizientziaren legearen proiektuan jurisdikzio-ordena zibilerako.
- Gaur egungo administrazio-errekurtsoen sistema ez da eraginkorra, argi eta garbi, eta haren erreforma sakona aztertu beharko litzateke. Errekurtsoen kontzentrazioa, unitateen espezializazioa eta lankidetzako sare instituzionalak sortzea gomendagarria da. Gai hori neurri batean lantzen da efizientzia prozesalaren legearen proiektuan.

[1] Ikus EAEko Justizia Digitalaren 2021-2026 Plana.

Oro har, talde sustatzailearen saioetan, kontrolatu gabeko beste aldagai batzuk zehaztu dira, eta komeni da horiek aipatzea:

- Efikaziak hedadura handiagoko barruti judizialak eta egoitza handiak behar ditu, horietan epaitegiak bil daitezen eta baliabide gehiago eta laguntza-zerbitzu hobeak izan ditzaten.
- Lan-ratio oso desberdinak daude. Jurisdikzio eta epaitegi batzuk kolapsatuta daude, eta beste batzuek, aldiz, lan-karga askoz txikiagoa dute; baliabideak banatzeko edo esleitzeko orduan ez dago mekanismo orekatzailerik.
- Hautatzeko prozesua eguneratu behar da epailetzan, fiskaltzan eta JALean, zaharkitua eta desegokia baita.
- Zuzenbidearen globalizazioak eta nazioartekotzeak epaileei tresna osagarriak emateko beharra dakar, kasuari aplikatzekoak diren arauak, jurisprudentzia eta doktrina denbora errealean eskuratu ahal izan ditzaten.

## 2.3. JPE 2022-2028 bat etortzea JMaren eta Justiziaren arloan eskumena dutela kogobernantzan ari diren autonomia-erkidegoen proiektuekin

Gaur egun, egiturazko hainbat erreforma daude martxan Espainiako Justizia Administrazioan. Erreforma horiek zenbait legetan gauzatuko dira (efizientzia prozesalari, antolaketaren efizientziari eta efizientzia digitalari buruzko legeak, bai eta Prozedura Kriminalari buruzko Legea ere), eta horien ondorioz, aldaketa nabarmenak egongo dira planta judizialean: auzialdiko auzitegiak sortzea; fiskaltzak delituen ikerketa bere gain hartzea; gatazkak ebazteko bitarteko egokiak arautzea eta horrek dakartzan erreforma prozesalak, eta justizia digital eta elektronikoa erregulatzea.

### *Justizia 2030*[2]

*Justizia 2030 Justizia Ministerioaren estrategia bat da, 10 urterako prestatua eta kogobernantzan garatua, Zuzenbide Estatua eta Justiziarako sarbidea bultzatzen dituena herrialdea eraldatzeko palanka gisa. Justiziaren Zerbitzu Publikoa eraldatzeko estrategia da.*

*Ez da ohiko plan estrategikoa, lineala, baizik eta diagnostikoari ekitean hasten den estrategia bat, modu organikoan garatzen dena beste erakunde batzuekin batera jardunez: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Estatuko Fiskaltza Nagusia, autonomia-erkidegoetako gobernuak, ministerioak eta gizarte zibileko erakundeak. Justizia Ministerioak bultzatzen du, baina, erabat garatuko bada, ezinbestekoa du gobernantza eta ardurak partekatzea, baterako helburuak edukitzeak lausotu egiten baitu eskumen-banaketa zurruna.*

*Justizia 2030 estrategia 2020ko martxoan hasi zen ezartzen eta prozesua 2030eko abenduan amaituko da. Ordurako, berrikuntzak, hobekuntzak eta eraldaketak guztiz txertatuta egongo dira Justizia Administrazioaren egituretan.*

*Justizia 2030 estrategiak Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana lotzen du Justiziaren Zerbitzu Publikoarekin, plana gauzatzen baitu arlo horretan. Estrategiaren abiaburua diagnostikoa da, pandemiaren larritasunak azkartu egin du, eta herrialdearen proiektuarekin lotu. 2026. urtera arte, estrategiak finantza-plan zehatza edukiko du eta lortutako helburuen berri eman beharko da.*

---

[2] Ikus Justicia 2030 webgunea.

*Zerbitzu publikoaren efizientziarako legeen bultzada*

Justiziaren arloko eskumenak dituzten autonomia-erkidegoekin lankidetzan, Justizia Ministerioa honako lege-proiektu hauek bultzatzen ari da:

- Justiziaren Zerbitzu Publikoaren Efizientzia Prozesalaren Legearen proiektua
- Justizia Zerbitzu Publikoaren Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua
- Justiziaren Zerbitzu Publikoaren Efizientzia Digitalaren Legearen aurreproiektua
- Prozedura Kriminalaren Legearen aurreproiektua

Arau-proiektu horiek, izapidetu ondorengo azken emaitzaren zain, eduki hauetako batzuk edo guztiak jorratu nahi zituzten:

| | |
|---|---|
| ***Efizientzia Prozesalaren Legearen proiektua*** | *Gatazkak ebazteko prozedura egokia zeharkako bihurtzea (**GEBE**)* |
| | *Prozedurak ebazteko **denborak** laburtzea* |
| | ***Epaiketa digitalak** egiteko aukera finkatzea* |
| | ***Espediente judizial elektroniko** jasangarria garatzea* |
| | *Justizia Administrazioan **ODR**a (Online Dispute Resolution) ezartzea* |

| | |
|---|---|
| ***Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua*** | *Justizia Administrazioan **kogobernantzaren arkitektura** sendotzea* |
| | *Justiziaren zerbitzu publikoaren **kalitate-sistema** sortzea* |
| | ***Auzialdiko auzitegiak** hedatzea (3.718 epaitegitik 431 auzitegitara igarotzea), eta **Bulego Judizial Digitala** ere bai* |
| | ***Justizia-bulegoak** ezartzea udalerrietan* |
| | *Zerbitzu publikoaren **eraldaketa profesionala** bultzatzea* |

| | |
|---|---|
| ***Efizientzia Digitalaren Legearen aurreproiektua*** | ***Datuetan oinarritutako justizia** bultzatzea AIa erabiliz* |
| | ***Arartekogabetasun digitala** eta bertaratu gabeko jarduketak bultzatzea* |
| | *Justiziaren **azpiegitura** teknologikoak **modernizatzea*** |
| | *Herritarrentzako, profesionalentzako eta enpresentzako **zerbitzuak garatzea*** |
| | *Justiziara iristeko **arrakala digitala ezabatzea*** |

| | |
|---|---|
| ***Prozedura Kriminalaren Legearen aurreproiektua*** | *Europako Fiskaltzaren eredua hedatzea* |
| | *Ikerketa kriminalaren eredu berria garatzea* |
| | *Prozesu penalerako tresna teknologikoak ezartzea* |
| | *Zigorrak betearazteko eredu berria eta ABKBa bultzatzea* |

## 2.4. Eskumen-eremua. Kogobernantzaren konplexutasuna

Konstituzioaren ondoriozko Justizia Administrazioaren gobernantza-sistema konplexua da, harremanen egituran botere eta administrazio guztien eskumenak kontuan eduki behar baitira:

- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia (BJKN).
- Estatuko Fiskaltza Nagusia (EFN).
- Justizia Ministerioa (JM)
- Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)
- Eskumenak transferituta dauzkaten beste autonomia-erkidego batzuk: Andaluzia, Aragoi, Asturias, Kanariak, Katalunia, Kantabria, Madrilgo Erkidegoa, Valentziako Komunitatea, Galizia, Errioxa eta Nafarroa.
- Kudeaketa JMaren esku dagoen gainerako erkidegoak: Balear Uharteak, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon, Extremadura, Murtzia, Ceuta eta Melilla.

Orain arte kogobernantza honetan lanean ari diren organo nagusiak honako hauek dira:

- JAren Arloko Konferentzia; lankidetza-organoa da, eta bertan daude Estatuko Administrazio Orokorra eta JAren jardunerako behar diren baliabide materialen, baliabide ekonomikoen eta langileen gaineko eskumenak bereganatuta dauzkaten autonomia-erkidegoak.
- Estatistika Judizialaren Batzorde Nazionalak (aurrerantzean, EJBN) Justizia Administrazioaren estatistika-plan orokor eta bereziak onesten ditu eta Espainiako sistema judizialaren estatistika-datuak lortzeko, informatikoki tratatzeko, transmititzeko eta ustiatzeko irizpide berdin eta nahitaez bete beharrekoak ezartzen ditu guztientzat. Honako hauek osatzen dute: JMa, gai horretan eskumenak dauzkaten autonomia-erkidegoen ordezkariak, BJKNa eta EFNa.
- Administrazio Judizial Elektronikoaren Estatuko Batzorde Teknikoa (aurrerantzean, AJEEBT), 18/2011 Legeak ezartzen duena –18/11 Legea, uztailaren 5ekoa, JAn informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) erabilera arautzen duena– eta ekainaren 7ko 396/13 Errege Dekretuak arautzen duena. Organo horrek JAn erabiltzen diren sistemen eta aplikazioen arteko elkarreragingarritasuna sustatzeko eta ziurtatzeko eskumenak dauzka, bai eta administrazioen arteko lankidetza ziurtatzeko eskumenak ere.

Autonomia-erkidegoan, hauek dira organo garrantzitsuenak

- Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia (EAEJAN)
- Fiskaltza Nagusia
- EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritza

## 2.5. Jardun-eremuak (administrazioaren beraren barruan)

EAEko administrazioaren eta Eusko Jaurlaritzaren beraren barruko jardun-eremu batzuek Justizia Administrazioarekiko lankidetza-zerbitzuen eta, oro har, justiziaren zerbitzu publikoaren zeharkako azterketan, bai eta haien hobekuntzan ere, esku hartzen dute edo esku hartu behar dute. Hona hemen nabarmenenak:

- Foru-aldundiak (FA)
- Udalak
- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politika
- Eusko Jaurlaritza. Berdintasuna
- Eusko Jaurlaritza. Gizarte-politikak
- Eusko Jaurlaritza. Segurtasuna
- Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza
- Eusko Jaurlaritza. Kultura
- Eusko Jaurlaritza. Gobernantza

## 2.6. COVID-19a, justiziaren erreforma bizkortzeko aukera

Esan bezala, pandemia iritsi zenean hasiak ziren JPE 2022-2028 honen hausnarketa- eta diagnostiko-lanak. COVID-19a arazo bat izan da eta oraindik bada, baina hasierako proposamen batzuk bizkortzea ahalbidetu du, ezinezkoak edo oso epe luzera egitekoak zirela ziruditen arren.

Hala, urteak beharko zituztela pentsatutako proiektu batzuk hilabete batzuen buruan gauzatuko dira (dagoeneko aipatu ditugun eta abian diren arau-proiektuak).

Izan ere, konfinamendu-aldirako jarri ditugun tresna askori eutsi egingo zaie: aurretiko hitzordua, epaiketa eta jarduketa digitalak, mugikortasun-lana, etab.



# Joerak, beharrak eta igurikimenak

3

# 3. Joerak, beharrak eta igurikimenak

## 3.1. Joera globalak

Justizia Administrazioak EAEn zer egoera duen diagnostikatu aurretik, gure inguruan agertzen diren joera orokorrak hartu dira kontuan, etorkizunean botere publikoen jarduera garatuko den esparrua osatuko baitute.

Aztertutako joerak bost multzo handitan bildu dira: joera orokorrak, globalizazioa eta nazioartekotzea, faktore teknologikoak, giro ekonomikoa eta soziala, eta faktore politikoak.

### 3.1.1. Oro har

- **Berrikuntza.** Berrikuntzak abiaduran gertatzen dira arlo guztietan, batez ere teknologian, eta horren ondorioz gero eta mundu adimentsuagoa eta mugikorragoa sortzen da.
- **Aldaketa demografikoak.** Biztanleriaren hazkundeak, urbanizazioaren hazkundeak, biztanle gazteak dituzten herrialdeen eta biztanleria zahartua dutenen arteko alde handiak eta azkar hazten ari den erdiko klaseak, negozioen mundua ez ezik, gizarte osoa eta lan globalaren indarra ere aldatu dituzte. Txina eta India (1.440 eta 1.400 milioi biztanle, hurrenez hurren) hazten dira gehien; 7.800 milioi biztanlekoa da munduko populazioa.
- **Boterearen egitura globala birformulatzea**. Gobernuek sendotu egiten dituzte sektore pribatuarekiko loturak. Hamarkada askoan izandako atzeraldirik okerrenetik suspertzen ari da mundua; sektore publiko eta pribatuen arteko harremanen gorakadak, berriz, izugarri aldatu du boterearen oreka globala.
- **Aldaketak finantza-sisteman**. Banka globalak eraldaketaren bidez lortu nahi du susperraldia. Kriptodirua goraldian da, eta moneta-sistema tradizionaletara «egokitzeko» fasean.

### 3.1.2. Globalizazioa eta nazioartekotzea

- Globalizaziorako joera ez dator bat justizia-sistemek duten estatu-esparru hertsiarekin (Europar Batasuna eta Giza Eskubideen Nazioarteko Auzitegiak alde batera utzita). Europako zuzenbideak eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak gero eta eragin handiagoa dute estatuko esparru juridikoetan.
- Mundu globalizatu batean, kontrol publikoaren beharra sumatzen da, bai eta nazioarteko erakundeak multinazional handien aurrean indartzeko beharra ere.
- Nazioarteko talde kriminalen delinkuentziaren gorakada egiaztatu da, halaber, eta horrek esan nahi du Estatuaren kontzeptua gainditu eta mugarik gabeko justizia eratu behar dela.
- Era berean, lehengaiak eskuratzeko eta kontsumitzeko sistema erabat globalaren ondorioz sortzen diren kontraesan batzuk gelditu dira agerian azken urtean. Hona hemen adibide batzuk: Txinarekiko gehiegizko mendekotasuna dago COVIDaren izurritean beharrezkoa den oinarrizko material sanitarioa ekoizteko; Europak Errusiaren petrolioarekiko eta gasarekiko duen mendekotasuna –oso agerian gelditu da Ukrainako inbasioaren ondoren–, eta Asiako hego-ekialdean ekoitzitako mikrotxipen eskasia, zeinak gure industrietako asko geldiaraztea ekarri duen.

### 3.1.3. Faktore teknologikoak

- Teknologia berriak oso azkar garatzen dira, eta lan egiteko moduak aldarazten ditu horrek. 5G sareak –100 aldiz azkarragoak– agertuta, orain arte ezagutzen ez genituen aukerak sortuko dira teknologiak lanari, aisialdiari eta zerbitzu publikoei aplikatzeko.

- Aurrerapenak aurrerapen, kultura digitala falta dela sumatzen da –batez ere Justizia Administrazioan da hori agerikoa–, bai eta belaunaldien arteko desfase teknologikoa. Biztanleriaren zati batek teknologia erabiltzeko eta eskuratzeko dituen mugek are desberdintasun handiagoa dakarte.

- «Dataismoa». Datu-bolumen handiak prozesatzea gero eta gehiago erabiltzen da eremu guztietan erabakiak hartzeko, eta kontrolpean erabili behar da tresna hori. Antzeko ezaugarriak dituzten kasuak aztertzeko eta ebazteko algoritmoak erabiltzeko aukera (Justizia Administrazioan eta beste esparru batzuetan, hala nola medikuntzan) oinarrizko eskubideetan oinarritutako zaintza teknologikoaren eta auditorien mende egon behar da.

- Datuen babesa. Aurreko testuinguruan, datuen babesa da erronkarik handiena. Datuetan oinarritutako ekonomiak segurtasun-neurriak indartu beharra dakar, informazio pribatua filtratzea eragozteko. Teknologiak erabiltzaileen pribatutasuna zaintzeko mekanismoak ematen ditu; ildo horretan, eraso zibernetikoak eragozteko eta sistemen arteko trazabilitatea hedatzeko sistemak are gehiago ezarriko ditugu.

  Justizia Administrazioari dagokionez, egokitu egin behar da, kudeatzen dituen datuak hobeto babesteko. Sistema zaharkituak –hala nola papera, faxa eta karpetetako sailkapena– erabiltzeak zaildu egiten du segurtasun-mekanismo berriak aplikatzea.

- Komunikazio pertsonaleko eredu berriak orokortzen dira, eta horrek aukera ugari ematen du eremu guztietan, batez ere komunikazio digitalean. Baina sare sozialak neurriz kanpo erabiltzeak babesgabetasuna dakar, eta baliteke gatazkak sortzea. Sareak desegoki erabiltzea baliteke sexu-jazarpenaren edo sexu-erasoen eragile izatea. Gainera, sare sozialetako argitalpenen bidez gero eta informazio gehiago lortzeko joerak desinformazioa sortzen du, pentsamoldeak atzeraelikatzen eta determinatzen ditu, eta, beste teknologia batzuekin batera, kontrol soziala errazten du.

- Identitate digitala. Sistema biometrikoak –hala nola aurpegia ezagutzea eta hatz-markak eta irisak irakurtzea– autentifikatzeko moduak eraldatzen ari dira. Gerta liteke autentifikazio biometrikoko modu berriak ere sortzea, orobat: zenbait ikerketa-lerro daude jada, eta bihotzaren taupadak eta transpirazioa erabiltzea planteatzen dute, besteak beste.

- Hiri adimentsuagoetarako bilakaera aurreikusten da; horrelako hiriek hondakinen kudeaketa hobetuko dute, garraiobideak optimizatuko dituzte eta ingurumen-kutsadura gutxituko dute, besteak beste.

### 3.1.4. Giro ekonomiko eta soziala

- Gero eta pertsona gutxiagok aberastasun gehiago metatzen dute. Handitu egiten dira pobrezia eta gizarte-desberdintasuna. Krisiak eta COVIDaren izurriteak, baita ezegonkortasun politiko-ekonomikoak ere, hainbat arazo areagotzen ditu, etxegabetzeak eta pobreziaren judizializazioa kasu, eta arazo horiek ugariagotu egiten dituzte gizarteak Justizia Administrazioari egindako eskaerak.
- Migrazio-mugimendu gero eta handiagoek gizarte multikulturalak sortzen dituzte. Kultura aberasteko eta gatazkarako eredu berriak agertzen dira, eta beharrezkoa da gizarte-errealitatearen eta Justizia Administrazioaren arteko elkarrizketa berritzea.
- Barne-migrazioak landa-eremuko despopulazioa eta biztanleak hiri handietan biltzea dakar. Horren ondorioz, gerta liteke zerbitzu publikoen eta Administrazioaren lurralde-antolamenduko behar tradizionalak aldatzea, edo, aitzitik, lurraldekotzea sustatzeko joerak agertzea, despopulazio horren aurka borroka egiteko modu gisa.
- Herritarraren kontzeptua gero eta lotuago dago herritar kontsumitzailearen kontzeptuarekin. Kontsumitzaileen eskubideei garrantzi handiagoa ematen zaie, eta ugaritu egiten dira kontsumo-eskubidearekin lotutako prozedura judizialak.
- Biztanleen zahartzeak arazo berriak sortzen ditu eta ezgaitasunekin lotutako gaiak ugaritzea ekarriko du, baita justizia-zerbitzu publikoa adinekoei arreta egokia emateko egokitu beharra ere.
- Populismoen gorakadak errugabetasun-presuntzioa kaltetua gertatzeko arriskua dakar.
- Aldaketa garrantzitsua dago gizartean, mundu osoan, emakumeen berdintasunaren kulturari dagokionez. Emakumearen berdintasuna zuzenbideko oinarri oso garrantzitsua da. Hala ere, konpondu gabeko arazo handiak daude oraindik soldata-arrakalari, zuzendaritza-postuetarako sarbideari eta lan-kontziliazioari dagokienez.
- COVID-19ak pandemien arriskua paratu du gizarte-eszenatokian. Pandemia horiek harreman sozialak eta komertzialak errotik aldatzen dituzte, bai eta, aldi baterako bada ere, gure bizimodua ere. Pandemiak, orain arte literaturan edo zineman fikzioko gai izan direnak, kontuan hartu beharreko aldagai garrantzitsu bihurtu dira.

### 3.1.5. Faktore politikoak

- Ez dago jarraitutasunik politika publiko estrategikoetan. Politikaren denborak –4 urteko legegintzaldiak izateak– zaildu egiten du haiek zehaztea. Gaur egun, ez dago legegileen adostasunik estatuko justiziaren esparruan. Horrenbestez, ez dago justiziari buruzko estatu-itun baterako baldintza politikorik. Hala ere, badago EAEko justiziaren zerbitzu publikoa hobetzeari buruzko itunetarako.
- Iritzi publikoa interes politiko eta ekonomikoengatik orientatzeko saiakera bat dago, komunikabideen eta sare sozialen eragina erabiliz. Gainera, mezuak sinplifikatzeak eta albiste faltsuak zabaltzeak pentsamendu kritikoak gizartean irautea zailtzen du.
- Sistema politikoaren krisiak populismoaren gorakada dakar berekin, bai eta justiziaren jardunarekiko oso eskaera eta jarrera arriskutsuak egotea ere, eta horien aurrean, erantzun baratz eta zorrotza eman behar du justiziak.

## 3.2. Herritarren eta pertsona eta erakunde erabiltzaileen beharrak eta igurikimenak

Herritarrek, oro har, eta pertsona eta erakunde erabiltzaileek bereziki, justiziaren zerbitzu publikoari dagokionez dituzten beharrak eta igurikimenak bereiz aztertu dira, eta ez da alde handirik ikusi eskaera orokorren eta justiziarekin harremana izan dutenen eskaeren artean.

Aurrez aurreko saioetan lortutako informazioa inkesta bidez baliozkotu eta osatu da. Inkesta horietan herritarrek (justiziarekin harremana izan dutenak eta halakorik izan ez dutenak bereizita) eta eragile juridikoek parte hartu dute. Balorazioak gehienez 5 punturen gainean eman dira.

Identifikatu diren beharrak eta igurikimenak honela sailkatzen dira:

- **Informazioa eta gardentasuna**. Langile espezializatuek honako hauei buruz emandako informazio egiazkoa, zorrotza eta ulergarria:
    - Justiziarako irispidea.
    - Prozedura judizialak, haien iraupena eta kostu ekonomikoak.
    - Doako laguntza juridikoa.
    - Laguntza-zerbitzuak.

  Galdetutako pertsonek balorazio berezia ematen zioten behar horri (4,5eko batezbestekoa; herritarren artean, 4,8).

  Pertsona eta erakunde erabiltzaileek beren gaien egoera ezagutu nahi eta behar dute (4,1).

- **Enpatia**. Justiziaren zerbitzu publiko hurbila eta erraza behar da, eta, entzuteaz gain, erabiltzaileen beharretara egokitutako tratua eskaini behar du (4,4ko batezbestekoa; Justizia Administrazioko erabiltzaileen artean 4,9; eta 5, harentzako zerbitzuak ematen dituzten enpresetako langileen artean).
- **Hizkera ulergarria** Justizia Administrazioak hizkuntza hurbila eta argia erabiltzea, zeinak komunikazioa errazten duen (aurrekoaren oso antzeko balorazioa).
- **Bizkortasuna eta epe homogeneoak**. Justizia Administrazioa bizkorragoa izatea; erantzun azkar eta arrazoituak emateko gai izatea, eta epaitegi guztietan epeak arrazoizkoak eta homogeneoak izatea (4,6 puntu, alde oso txikia kolektibo batetik bestera).
- **Teknologia berrien laguntza**. Justiziari eskatzen zaio izapideak sinplifikatzea –teknologia berrietan oinarrituta–, jarduketak bide digitaletik egiteko aukera ematea eta itxarote-denborak murriztea (lehen aipatutako JDP 2021-2026rako egindako inkestetan, berrikuntza teknologikoak Justizia Administrazioan izango dituen ondorioei buruzko igurikimenei dagokienez, 4,2 puntuko balorazioa eman zioten honi: Justizia Administrazioaren erabateko digitalizazioak zerbitzu publiko askoz efizienteagoa eta azkarragoa dakar, eta jardun judizial telematikoak denbora alferrik galtzea eragoztea eta justizia-administrazioarekiko harremanak bizkortzea dakar.
- **Konpromisoa pertsona eta erakunde erabiltzaileekin**. Justizia-jauregi bakoitzean zerbitzu publikoa ez ematea hain burokratikoa izatea eta zerbitzuak nola ematen diren galdetzea (4,2ko batezbestekoa; 4,5 herritarretan, eta 5,0, Justizia Administrazioarentzako zerbitzuak ematen dituzten enpresetako langileen artean).

- **Kalitatezko justizia**. Justizia Administrazioak segurtasun juridikoa bermatzea, independentzia judizialak kasu berdinak ebazteko orduan desberdintasunak ez ekartzea (4,5eko batezbestekoa, eta 4,7, herritarren artean).
- **Instalazio egokiak**. Erabiltzaileentzako egokiak diren instalazioetan ematea (4,1eko batezbestekoa).
- **Pertsona kalteberen beharretara egokitua** eta biktimei babes osoa ematea.
- **Justizia eskuragarria**. Justizia Administrazioa, guztion eskura; izan ere, gaur egun, abokatutzara jotzeak duen kostuak eta tasa judizialek, praktikan, justiziaren aurreko berdintasuna egotea zailtzen dute.
- **Gatazkak auzibidetik kanpo ebaztea**. Bitartekaritza, arbitrajea eta gatazkak ebazteko beste sistema alternatibo batzuk bultzatu behar dira, bai eta epaitegien arteko bitartekaritza ere (asko eskatzen dute Justizia Administrazioaren erabiltzaileek –4,6–, eta gutxi, ordea, epaileek –2,5– eta prokuradoreek –2,0–). Eta sistema horiek guztiak ezagunak eta herritarrengandik gertukoak izatea, eta, hala badagokio, auzibidera irits ez daitezen laguntzea.



# AMIA, diagnostikoaren ondorio nagusiak eta erronkak

4

# 4. AMIA, diagnostikoaren ondorio nagusiak eta erronkak

## 4.1. AMIA

### AHULEZIAK

- Gizartean justiziari buruzko pertzepzio negatiboa eta ezjakintasuna.
- Izapidetze-denbora luzeak, prozedura konplexuak eta betearazpen motelak edo amaitu gabeak.
- Aurrez iragarri ezin den justizia. Irtenbide desberdinak itxurak berdinak diren kasuetan.
- Ez da Espediente Judizialaren izapidetze elektroniko osorik lortu.
- Askotariko eragile dituen eskumen-esparru konplexua.

### INDARRAK

- Justizia Administrazioko pertsonen eta operadoreen ustez justiziaren zerbitzu publikoak eguneratu beharra du, eta, oro har, abian diren erreformen alde daude.
- Justiziarekin lankidetzan aritzeko zerbitzuak eta doako laguntza juridikoko zerbitzuak estatuko gainerakoan baino garatuago daude, eta arreta hobea ematen dute.
- Biztanleko inbertsioa estatuko handiena da.

### MEHATXUAK

- Erreformen egutegia oso handinahia da, eta guztiz betetzeko zailtasuna dago.
- Justiziaren aldeko itun berri baterako zailtasun politikoa.
- Operadore juridikoen kolektiboetako pertsona kopuru txiki batek zenbait mesfidantza dituzte abian dauden erreformei dagokienez.

### AUKERAK

- Justizia Ministerioaren eta autonomia-erkidegoen arteko gobernantza-sistema berriak berehalako lege-erreformak eta plan eta programa berriak dakartza.
- EAEn gatazkak ebazteko baliabide egokiak (GEBE) garatzea.
- Operadore juridikoen arteko eta haiekiko elkarlana hobetzea.
- Digitalizaziorako Europako funtsek eskainitako aukerak (STEF)

## 4.2. Diagnostikoaren ondorio nagusiak eta erronkak

| Zk. | Diagnostikoaren ondorioak | Erronkak | Programak |
|---|---|---|---|
| **1** | Justizia-sistema digitalaren funtzionalitateak osatu gabe daude (espediente judizial digitala, egoitza elektronikoa, dokumentu-kudeatzailea, sinadura elektronikoa...), premiaz eboluzionatu beharko da. | Sistema integrala, zeinak elkarreragitea, izapidetzea eta artxibatzea guztiz elektronikoki eta paperik gabe ahalbidetzen duen. EJE | Justizia digitala |
| **2** | Egoera ahulenean dauden kolektiboentzako laguntza eta arreta; estatuko gainerakoan baino garatuago dago, baina ahalegin gehigarria behar du. | Egoera ahulenean dauden kolektiboentzako eta, bereziki, emakumearen aurkako indarkeriaren biktimentzako arreta integrala sendotzea. | Biktimak lehenik |
| **3** | Etorkizunean bake-justizia desagertzea eta udalerriko justizia-bulegoen sistema bilakatzea. | Udalerriko justizia-bulegoen udal-errealitatera egokitutako eredua. | Udalerriko justizia-bulegoak |
| **4** | Justiziarekiko lankidetza-zerbitzuak estatuan baino garatuago, baina eboluzionatu behar dute koordinazio egokia lortuz haien artean, epaitegi eta auzitegiekin, Bulego Juridikoarekin, Bulego Fiskalarekin eta Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako eta udaletako beste zerbitzu batzuekin (gizarte-politikak, polizia) (inkestan 3,4ko batezbesteko balorazioa du adierazpen horrek, baina alde handia dago kolektibo batetik bestera: epaileen 2,4tik Justizia Administrazioarentzako zerbitzuak ematen dituzten enpresen 5era). | Justiziarekin lankidetzan aritzeko zerbitzuen egungo eredua garatzea eta indartzea. | Justiziarako irispidea erraztea |

| Zk. | Diagnostikoaren ondorioak | Erronkak | Programak |
|---|---|---|---|
| **5** | Administrazio orokorraren antolaketa-egitura, hala zerbitzu zentraletan nola lurraldeetan, ez dago eguneratuta, eta ez die erantzuten Justizia Sailburuordetzaren oraingo eta etorkizuneko jardun-beharrizanei. | Justiziarekin lankidetzan aritzeko zerbitzuen egungo eredua garatzea eta indartzea.<br><br>EAEko Justizia Administraziorako kudeaketa publiko aurreratuko eredu bat garatzea<br><br>Gatazkak ebazteko baliabide egokiez arduratzeko egitura sortzea. | Justiziarako irispidea erraztea<br><br>Kudeaketa publiko aurreratua Justizia Administrazioan<br><br>GEBEen eredua EAEn |
| **6** | Estatuko biztanleko inbertsiorik altuena izan arren, EAEko aurrekontuetatik % 1,61 bideratzen da Justizia Zerbitzura, oinarrizko beste zerbitzu publikoek (osasuna, hezkuntza, segurtasuna eta gizarte-laguntza) daukatenetik oso urrun. | Ehuneko hori handitu dadin sustatzea, jauzi kualitatiboa ekarriko baitu baliabide materialen eta Justizia Administrazioarekiko lankidetza-zerbitzuen hobekuntzan. | Egoitza Judizial Jasangarrien Plana 2022-2030<br><br>Instalazio jasangarriak<br><br>Justizia digitala<br><br>GEBEen eredua EAEn |
| **7** | Eskumen-esparru konplexua; eskumen-eragile ugari dago eta transferentziak amaitu gabe daude. Horrek zailtasun erantsia dakarkio berez oso zaila den zerbitzu publiko baten kudeaketari (faktore horri puntuazio handiagoa ematen diote transferitutako Justizia Administrazioko langileek –4,1–, epaileek, fiskalek eta Justizia Administrazioko letraduek baino –3,5–). | ustiziaren inguruko artikulazio instituzionala hobetzea | Erantzukizun partekatua eta elkarlana |

| Zk. | Diagnostikoaren ondorioak | Erronkak | Programak |
|---|---|---|---|
| **8** | Jarduera judizialari dagokionez, zenbait jurisdikziotan, hobetzeko modukoak dira tasak –epaituak, ebatziak, ebazteke eta pilatuta daudenei dagokienez–, eta lan egin behar da prozeduren iraupen-epeak murrizteko eta homogeneizatzeko (jurisdikzio eta espezialitatearen arabera), bai eta berrespenekoak ez diren errekurtsoen tasa eta etendako epaiketen tasa gutxitzeko (4,3).<br><br>Estatu osoko auzi-tasa txikienetako bat; abiapuntu onena, beraz, EAEko justizia-zerbitzua hobetzeko (3,3). | Ebatzitakoen, ebazteke daudenen eta pilatutakoen tasak hobetzea eta prozedura azkarragoak ahalbidetzea.<br><br>Etendutako epaiketen kopurua gutxitzea, betearazpenak azkartzea eta justizia aurreikusgarriagoa sustatzea. | Justizia azkarragoa eta aurresangarriagoa |
| **9** | Justiziarekiko lankidetza-zerbitzuak Administrazioaren eta hirugarren sektorearen arteko elkarlanaren emaitza dira, eta eboluzionatzen ari dira kontratu-sistemetarantz, eta, gazteen justizian, kudeaketa propioa eta kanpoko kudeaketa duten zentroak batera egoera (3,5eko batezbestekoa; Justizia Administraziorako zerbitzuak ematen dituzten enpresak, 4,0). | Funtzionamenduko distortsioak konpontzea, horiek landu beharra dago eredua hobetzeko. | Justiziarako irispidea erraztea<br><br>Pertsona kalteberenei laguntzea |
| **10** | Eremu gehiago lortzeko (3,9) eta eraikinak eta instalazioak moldagarritasuna emateko eguneratzeko beharra, oraingo eta etorkizuneko beharrizanei erantzuteko, eta seguruagoak, irisgarriagoak, jasangarriagoak eta erosoagoak izan daitezen (4,1). | Eremu gehiago eskuratzea eta egoitza judizial jasangarrien plan berri bat bultzatzea | Egoitza Judizial Jasangarrien Plana 2022-2030<br><br>Instalazio jasangarriak |
| **11** | Justizia Administrazioa era oso independentean lan egiten duten kolektiboez osatua dago (4,0ko batezbestekoa; KILak, 4,1; lan-kontratupeko langileak, 4,3; auzitegiko medikuak, 4,8). | Justizia-jauregi bakoitzaren barruan eta sektoreka (jurisdikzio-espezialitateak, zerbitzu erkideak, justiziarekiko lankidetza-zerbitzuak...) elkarri eragiteko, koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko formula iraunkorrak, dinamikoak eta arinak zehaztea. | Erantzukizun partekatua eta elkarlana<br><br>Kudeaketa publiko aurreratua Justizia Administrazioan |

| Zk. | Diagnostikoaren ondorioak | Erronkak | Programak |
|---|---|---|---|
| **12** | Efizientzia prozesalaren legearen aurreproiektura arte ez da kultura-aldaketarik aski intentsitatez, baliabideekin eta azkartasunaz bultzatu gatazkak ebazteko baliabide egokiei dagokienez (4,0). | EAEn Gatazkak Ebazteko Baliabide Egokiak garatzea | GEBEen eredua EAEn<br><br>Kultura-aldaketa Gatazkak Ebazteko Baliabide Egokietan<br><br>Justizia Errestauratiboaren EAEko Estrategia<br><br>GEBEak garatzea |
| **13** | Abokatuak, prokuradoreak eta lan-harremanetako gradudunak eragile juridikoak dira, eta protagonismo handiagoa eta gainerako operadoreekiko harremanetarako foro iraunkorrak eskatzen dituzte (4,4 kanpoko eragile juridikoen artean). Prokuradoretzaren lanbidearen gaur egungo ikusmoldea eraldatu beharra dago komunikazio elektronikoen esparru berrian (4,0ko batezbestekoa). Prokuradoreen kolektiboarekin lanbidearen etorkizuneko balizko bilakaeraz pentsatzeko beharra. | Abokatu, prokuradore eta lan-harremanetako gradudunekiko harremana dinamizatzea | Erantzukizun partekatua eta elkarlana |
| **14** | Kudeaketa hobetzeko kulturarik ez dago, eta zerbitzua eraginkortasunez eta bikaintasunez emateko beharrezkoak diren tresnak falta dira (3,8). | EAEko Justizia Administrazioan kudeaketa publiko aurreratuko eredu adostu bat pixkanaka ezartzea | Kudeaketa publiko aurreratua Justizia Administrazioan |
| **15** | Harreman eta elkarlanerako egitura atomizatua, ez-integratua, eta horren ondorioz, ahaleginak ez dira efizienteak, eta emaitzak ez dira aski gizarteratzen (4,0ko batezbestekoa; epaileen 3,1etik prokuradoreen 4,6ra). | Justiziaren inguruko artikulazio instituzionala hobetzea | Erantzukizun partekatua eta elkarlana |

| Zk. | Diagnostikoaren ondorioak | Erronkak | Programak |
|---|---|---|---|
| **16** | EAEko gizartean justizia-zerbitzuari buruzko pertzepzio negatiboa dago (3,8), eta herritarrek ez dakite justizia-zerbitzua zer den eta nola gauzatzen den (pertsonak, jurisdikzioak, prozedurak, espazioak, aplikazioak, justiziarekin lankidetzan aritzeko zerbitzuak...) (3,9). | Kanpo-komunikazioko plan bat garatzea eta ezagutza- eta balorazio-inkesten sistema bat finkatzea<br><br>Orientazio-sistema bat ezartzea | Ezagutza eta pertzepzioa<br><br>Justiziarako irispidea erraztea |
| **17** | Doako justiziak hobera egin du 2018ko dekretu berriaz geroztik (3,5eko batezbestekoa; Justizia Administrazioa erabiltzen duten erabiltzaileak, 4,0). | Ereduak eboluzionatu dezan, eta txanda espezifiko berriak sartzea | Justiziarako irispidea erraztea |
| **18** | Giza baliabideak ez dira benetako lan-kargaren arabera esleitzen (4,2). | Ratioen azterketa bat egitea KILen esleipenak eta haien laguntzak zehazteko, eta esleipen horiek adierazleak hobetzeko konpromisoekin edo epe ertaineko kudeaketarekin ere lotzea. | Kudeaketaren hobekuntza |
| **19** | Espainiako justiziaren arau- eta egitura-esparruak adostutako erreforma garrantzitsuak behar ditu. Beste administrazio eta erakunde batzuen mendeko aldagai batzuk argitu behar dira, EAEko estrategia egoki planifikatu ahal izateko. | Abian diren arau-erreformetan laguntzea. | Erantzukizun partekatua eta elkarlana |
| **20** | Herritarren eta pertsona eta erakunde erabiltzaileen ustez, gure justizia-zerbitzua hotza, aski ulergaitza, gizatasun txikikoa eta motelegia da. | Ahozko komunikazio didaktikoa, idatzizko komunikazio ulergarria eta arreta hurbilagoa bultzatzea.<br><br>Prozedura azkarragoak bultzatzea.<br><br>Etendutako epaiketen kopurua murriztea, betearazpenak azkartzea eta justizia aurresangarriagoa sustatzea. | ustizia enpatikoagoa eta argiagoa<br><br>Justizia azkarragoa eta aurresangarriagoa |

| Zk. | Diagnostikoaren ondorioak | Erronkak | Programak |
|---|---|---|---|
| **21** | Pertsonen kolektiboek motibazioa galdu dute; informazio eta prestakuntzaren arloko gabeziak dituzte, eta beren burua arlo publikoko bokaziozko profesional gisa aldarrikatu beharra dute (3,8). | Harrera-planak egitea, lan-baldintzak hobetzea eta prestakuntza sustatzea | Profesional baloratuak eta motibatuak |
| **22** | Bulego judizial eta fiskal berriak ezarri dira (14tik 13 barruti judizial), eta hobekuntzak daude arlo batzuen funtzionamenduan, baina zenbait distortsio zuzendu behar dira (nabarmen, ZULUPen eta BEZEPen arteko harremana), eta ezartzeko daude oraindik Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektuan aurreikusitako izapidetze-unitateak. (3,8). | Horien funtzionamendua diagnostikatzea eta, behar diren egokitzapenak egin eta antolaketaren efizientziaren legearen oraingo proiektuaren azken testua kontuan hartuta, ezarpena –behin betikoa eta osoa– zehaztea.<br><br>Bulego judiziala Bilbon ezartzea | Bulego judizialaren bilakaera |
| **23** | Ez dago tresnarik herritarren igurikimenak eta beharrizanak, bai eta pertsonek eta erakundeek erabiltzen dituzten zerbitzuei buruzko balorazioak ere, aldian-aldian jaso eta kontrastatzeko (3,9ko batezbestekoa; Justizia Administrazioko lan-kontratupeko langileak, 4,5; Justizia Administraziorako zerbitzuak ematen dituzten enpresak, 5). | Gogobetetze-inkestak egitea | Konpromisoa pertsona eta erakunde erabiltzaileekin. |




# Interes-taldeak

5

# 5. Interes-taldeak

## herritarrak

Web-orriaren bidez parte hartzeko prozesuei buruz sortutako datu-base batean izena emanda hautatutako pertsonak

## biktimak

Delituen biktimak eta horiek ordezkatzen dituzten elkarteak (Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren bidezko koordinazioa) eta Bizitu Elkartea

## operadore juridikoak

- BJKN
- Justizia Ministerioa
- DOJZEN Dokumentazio
- Judizialeko Zentroa
- Magistratuen elkarte profesionala
- Francisco de Vitoria Elkartea
- Demokraziaren
- aldeko epaileak
- Foro Judizial Independentea
- Fiskalen elkartea
- Fiskalen Batasun Progresista
- Justizia Administrazioaren Letraduen Elkargo Nazionala
- Justizia Administrazioaren Letraduen Batasun Progresista
- ELA
- LAB
- CC.OO.
- CSI-F
- Abokatuen elkargoak
- Prokuradoreen elkargoak
- Gizarte-langileen elkargo ofizialak
- Lan-harremanetako gradudunen elkargo ofizialak
- Bake-epaileak
- Euskal Herriko Notario Elkargoa
- Erregistratzaileen Lurralde Dekanotza

## Beste administrazio publiko eta hirugarren sektoreko erakunde

- Lehendakaritza
- Segurtasuna Saila
- Osasun Saila/Osakidetza
- Hezkuntza Saila
- Lan eta Enplegu Saila
- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila
- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila
- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
- Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
- HAEE
- EMAKUNDE
- UPV/EHU, Zuzenbide eta Medikuntza fakultateak
- Deustuko Unibertsitatea, Zuzenbide Fakultatea
- EUDEL
- 14 barruti judizialen egoitza diren udalak
- Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundien Gizarte Politiketako Departamentuak
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saila
- Berriztu Hezkuntza Elkartea
- IRSE-EBI Birgizarteratze Institutua
- IRSEARABA Gizarte
- Inklusiorako Institutua
- Gaztaroan Ekin elkartea
- Bizgarri elkartea
- Egintza elkartea
- Zuzenbide Kolaboratiboko elkartea
- ARARTEKOA
- Oñatiko Soziologia Juridikoko Nazioarteko Institutua
- Kriminologia Institutua
- Justizia Ministerioaren Azterlan Juridikoen Zentroa
- Ertzaintza
- Polizia Nazionala
- Guardia Zibila



# Zer garen, zer egiten dugun eta nolakoak izan nahi dugun eta gu nola ikustea nahi dugun

6

# 6. Zer garen, zer egiten dugun eta nolakoak izan nahi dugun eta gu nola ikustea nahi dugun

## 6.1. Eginkizuna

**eginkizuna**

Gure administrazioek, erakundeek,
kolektiboek eta entitateek,

erantzukizun partekatuarekin eta elkarlanarekin
konprometituta,

justiziaren zerbitzu publikoa ematen dugu Euskadin,

herritarrei orientatuta,
bidezko eskubide eta interesen benetako babes judizialerako
eskubidea bermatzeko,

pertsona gaitu eta motibatuekin, eta baliabide material eta
teknologikoak erabiliz,

gizarte aske, berdinzale, bidezko eta pluralagoa lortu nahian

## 6.2. Ikuspegia

# ikuspegia

EAEko justiziaren zerbitzu publikoa ezaguna da, bai eta **atsegina, irisgarria, fidagarria, bizkorra, gardena eta efizientea** ere herritar, bertako langile, gainerako operadore juridiko eta administrazioen esanetan, izan ere,

- **babes berezia ematen die egoera ahulenean dauden kolektiboei**,
- Justizia Administrazioa erabiltzen duten pertsonen hizkuntza-eskubideak bermatzen ditu,
- gatazkak ebazteko baliabide egokiak garatzen ditu, eta
- **antolaketa-eredu bat ezarria** du **pertsona motibatuetan**, **kudeaketaren hobekuntzan** eta **justizia digital guztiz operatiboan** oinarrituta.

## 6.3. Balioak

### 6.3.1. Gure justiziaren zerbitzu publikoa nolakoa den

- Herritarrari zuzendua
- Hurbila
- Irisgarria
- Fidagarria
- Bizkorra
- Gardena
- Efizientea
- Ulergarria

### 6.3.2. Justiziaren zerbitzu publikoan lan egiten duten pertsonak nolakoak diren

- Independienteak (inpartzialak, objetiboak)
- Profesionalak (arduratsuak, gaituak, zorrotz jokatzen dutenak, konprometituak)
- Bokaziozkoak
- Motibatuak
- Proaktiboak
- Errespetuzkoak (atseginak)
- Talde-kulturari laguntzen diotenak

## 6.4. JPE 2022-2028ren mapa adierazgarria

ZER NAHI DUGU?
EAE-KO GIZARTEAK EZAGUTZEA

**Justizia ezaguna**
1IE

**Justiziak sarbidea eta babesa ematen die pertsona kalteberenei**
2IE

ETA ERABILTZEA PERTSONA KALTEBERENEI SARBIDEA ERRAZTEN DIEN JUSTIZIA-SISTEMA

PROFESIONALETAN OINARRITUTA

**Justizia pertson(et)an**
3IE

**Justizia egoitza jasangarrietan**
4IE

**Justizia digitala**
5IE

ETA BALIABIDE JASANGARRIETAN

HORRETARAKO, EAE-KO JUSTIZIAREN ZERBITZU PUBLIKOA ERALDATUKO DUGU

**Justizia aurrera**
6IE

**Justizia ulergarria, azkarragoa eta aurresangarriagoa**
7IE

**Justizia errestauratiboa eta gatazkak ebazteko baliabide egokiak**
8IE

BERRIKUNTZAREN BIDEZ

**Justizia berritzailea**
9IE

**Justiziaren alde elkarlanean**
10IE

ETA ELKARLANEAN BILDUZ



JPE 2022-2028aren Ekintza Plana

7

# 7. JPE 2022-2028aren Ekintza Plana

## 7.1. Ildo Estrategikoak. Deskribapena eta helburuak

| | Deskribapena | Helburua |
|---|---|---|
| **1IE** | **Justizia ezaguna** | |
| | EAEko justizia-sistemaren eta haren funtzionamenduaren ezagutza gizarteratzea, herritarrekin harreman hurbilagoa eta fidagarriagoa laguntzeko. | EAEko gizarteak bere justizia-administrazioa, egitura eta funtzionamendua ezagutzen ditu, eta beharrezko zerbitzutzat hartzen du. |
| **2IE** | **Justiziak sarbidea eta babesa ematen die pertsona kalteberenei** | |
| | EAEko gizartea bidezkoagoa, solidarioagoa eta inklusiboagoa izan dadin bultzatzea, pertsona kalteberenekin lotutako justiziarekiko lankidetza-zerbitzu guztiak indartuz. | Justiziarekin lankidetzan aritzeko zerbitzu gehiago eta hurbilagoak garatzea; horiek gehiago babesten dituzte pertsona kalteberenen kolektiboak (biktimak, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak, emakumeak, gazteak, adingabeak, adinekoak, dibertsitate funtzionala duten pertsonak, doako justiziaren onuradunak, migratzaileak, etab.). |

| | Deskribapena | Helburua |
| --- | --- | --- |
| **3IE** | **Justizia pertsonetan** | |
| | Gure pertsonak motibatzea, haien profesionaltasunaren, etikaren eta talde-lanaren balioa nabarmenduz. | Justizia-zerbitzu publikoa, pertsona profesionaletan, gaituetan, motibatuetan eta zerbitzu publikoko bokazioa dutenetan oinarritua. |
| **4IE** | **Justizia egoitza jasangarrietan** | |
| | Eraikin eta instalazio judizialak eguneratzea. | Eraikin judizialek, instalazioek eta baliabide materialek zerbitzuaren beharrizanei erantzuten diete eta zerbitzuaren funtzioari erantzuten diote; seguruagoak, irisgarriagoak, jasangarriagoak, funtzionalagoak eta erosoagoak dira horretarako. |
| **5IE** | **Justizia digitala** | |
| | Sistemak eta tresnak teknologikoki modernizatzea justiziaren benetako digitalizazioa lortzeko. | Espediente judizial elektronikoa, erabat ezarria eta funtzionala; komunikazio telematikoa gainerako operadore juridikoekin; izapide digitalak progresiboki garatzea egoitza judizial elektronikoaren bidez, eta bideokonferentziaren orokortze progresiboa. |

| | Deskribapena | Helburua |
|---|---|---|
| **6IE** | **Justizia aurrera** | |
| | EAEko justiziaren zerbitzu publikoaren prestazioa eta kudeaketa hobetzea, zerbitzua herritarrei eta haien premiei bideratuz. | Justiziaren zerbitzu publiko hobea garatzea; herritarren beharrei erantzungo die, eta administrazio-egitura batean oinarrituko da. Egitura horrek galdetzen, aztertzen, eta planifikatzen du; neurtzen da, hobera egiten du eta efizientea izan nahi du. |
| **7IE** | **Justizia ulergarria, azkarragoa eta aurresangarriagoa** | |
| | Prozeduretan eta jurisdikzio-jardueran denbora (azkar ebaztea), kalitatea (egoki ebaztea) eta argitasuna (hizkera argi eta erraza erabiliz ebaztea) hobetzea, eta antzeko gaien aurrean epaileek emandako erantzunaren segurtasun juridikoa eta koherentzia handitzea. | Oraingoen aldean hobetuak izan diren prozesuen eta jarduera judizialaren denboretan eragiten duten adierazleak, eta justizia aurresangarriagoa. |
| **8IE** | **Justizia errestauratiboa eta gatazkak ebazteko baliabide egokiak** | |
| | Justizia errestauratiboko EAEko estrategia garatzea, jurisdikzioetan gatazkak ebazteko baliabide egokien sistemak finkatzea eta bultzatzea, eta lankidetza-mekanismoak egituratzen laguntzea, herritarren aldetik eta politika publikoetan gatazkak ebazteko baliabide egokiak erabiltzea bultzatzeko. | Justizia errestauratiboaren eta gatazkak ebazteko baliabide egokien aplikazioan EAEn jauzi kualitatiboa eta kuantitatiboa gertatzeko beharrezkoak diren egiturazko baldintzak sortzea. |

| 9IE | Deskribapena | Helburua |
|---|---|---|
| **Justizia berritzailea** | Berrikuntza bultzatzea, azterketak eginez, jarduerak –bai eta, hala badagokio, esperientzia pilotuak ere– pentsatuz eta garatuz, etorkizunean justiziaren zerbitzu publikoaren diseinua hobetu ahal izateko. | Gainerako eragile juridikoen eta herritarren laguntzarekin, ikerketa-azterlanak, proiektu pilotuak eta udalerriko justizia-bulegoen eredua diseinatzea, garatzea eta ebaluatzea. |

| 10IE | Deskribapena | Helburua |
|---|---|---|
| **Justiziaren alde elkarlanean** | EAEn justiziaren zerbitzu publikoa ematen parte hartzen duten administrazio eta operadore juridiko guztien arteko lankidetza egituratzea, eta organoak, lantaldeak eta horien jarduerak zehaztea. | Gaur egungoak baino mekanismo eraginkorragoak, administrazio eta operadore juridikook haien bitartez elkarlanean aritzeko eta ahaleginak batzeko zerbitzua hobea eman nahian. |

## 7.2. Ildo estrategikoak, programak eta ekintzak

| | Ildo estrategikoa | Programa | Proiektua |
|---|---|---|---|
| GIZARTEA | 1IE JUSTIZIA EZAGUNA | *Ezagutza eta pertzepzioa* | 1P. Kanpo-komunikaziorako plana |
| | | | 2P. Ezagutzari eta balorazioari buruzko inkestak |
| | | *Justizian heztea* | 3P. Justizia eta derrigorrezko hezkuntza |
| | | | 4P. Justizia eta unibertsitatea |
| | | | 5P. Justizia polizia judizialaren prestakuntzan |
| | 2IE JUSTIZIAK SARBIDEA ETA BABESA EMATEN DIE PERTSONA KALTEBERENEI | *Justiziarako irispidea erraztea* | 6P. Justiziarako sarbidean berdintasuna laguntzea |
| | | | 7P. Doako justizia, gehiago eta hobeto |
| | | | 8P. Orientazio judiziala |
| | | | 9P. Justiziarekin elkarlanean aritzeko zerbitzu-ereduaren bilakaera |
| | | *Biktimak lehenik* | 10P. Emakumearen aurkako indarkerien biktimei laguntzea. EAIBaren planaren garapena |
| | | | 11P. Biktimari Laguntzeko Zerbitzua sendotzea |
| | | *Pertsona kalteberenei laguntzea* | 12P. Justizia eta Emakumeak Programa |
| | | | 13P. Justizia eta Adingabeak Programa |
| | | | 14P. Gazte Justizia Plana |
| | | | 15P. Justizia eta Adinekoak Programa |
| | | | 16P. Justizia eta Migratzaileak Programa |
| | | | 17P. Desgaitasuna duten pertsonei justiziarako sarbidea errazteko ekintza-plana |
| PERTSONAK | 3IE JUSTIZIA PERTSON(ET)AN | *Profesional baloratuak eta motibatuak* | 18P. Kolektiboentzako harrera-planak |
| | | | 19P. Transferitutako langileen lan-baldintzak hobetzea |
| | | | 20P. JAHNPO 2023-2033 berria |
| | | | 21P. EAEko Justizia Administrazioko Berdintasun Plana |
| | | | 22P. Prestakuntza-planak egitea eta garatzea |
| | | | 23P. Prestakuntza-beken programaren bilakaera |
| | | *Justizia osasungarriagoa eta seguruagoa* | 24P. Transferitutako kolektiboentzako Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana |
| | | | 25P. BJKNarekin eta JMarekin batera jarduteko protokoloa |
| | | | 26P. Larrialdi eta Ebakuazio Plan eguneratuak |
| | | *Kudeaketaren hobekuntza* | 27P. Ikuskapen Koordinatuen Plana |
| | | | 28P. Izangaien kudeaketa hobetzea |
| BALIABIDE JASANGARRIAK | 4IE JUSTIZIA EGOITZA JASANGARRIETAN | *Egoitza Judizial Jasangarrien Plana 2022-2030* | 29P. Abian diren proiektuak amaitzea |
| | | | 30P. Eremu gehiago |
| | | | 31P. Estandarrak finkatzea |
| | | | 32P. Egoitza Judizial Jasangarrien Plana 2022-2030 egitea eta garatzen hastea |
| | | *Instalazio jasangarriak* | 33P. Justizia Sailburuordetzaren Energia Jarduketarako Plan Espezifikoa 2022-2030 gauzatzea |
| | | | 34P. Egoeraren diagnostikoa eta etorkizuneko eszenatokiak. Ekintza-plana |
| | | | 35P. Datuetan oinarritutako elkarlaneko kudeaketa |
| | 5IE JUSTIZIA DIGITALA | *Justizia digitala* | *JDP 2021-2026aren proiektuak* |

| | Ildo estrategikoa | Programa | Proiektua |
|---|---|---|---|
| JUSTIZIAREN ZERBITZU PUBLIKOA | 6IE<br>JUSTIZIA AURRERA | *Bulego judizialaren bilakaera* | 36P. BJBaren EAEko ezarpenei buruzko diagnostikoa |
| | | | 37P. Bulego judiziala. Antolaketaren efizientziaren legearen proiektuaren egokitzapenen eta aplikazioaren plana |
| | | | 38P. Bulego Judiziala Bilbon ezartzea |
| | | *Kudeaketa publiko aurreratua Justizia Administrazioan* | 39P. EAEko Justizia Administraziorako Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Ereduari (JAKPAE) buruzko akordioa |
| | | | 40P. Barruti judizialetan JAKPAEa pixkanaka ezartzea |
| | | *Konpromisoa pertsona eta erakunde erabiltzaileekin* | 41P. Katalogoak eta zerbitzu-kartak |
| | | | 42P. Gogobetetzea neurtzeko inkestak |
| | | | 43P. Lekuko eta zinpekoentzako harrera eta arreta hobetzea |
| | | *AMEIaren bilakaera* | 44P. AMEIaren konfigurazioari eta egiturari buruzko azterlana |
| | | | 45P. AMEIaren bilakaera |
| | 7IE<br>JUSTIZIA ULERGARRIA, AZKARRAGOA ETA AURRESANGARRIAGOA | *Justizia enpatikoagoa eta argiagoa* | 46P. Idatzizko komunikazio ulergarria |
| | | | 47P. Ahozko komunikazio didaktikoa eta arreta hurbila |
| | | *Justizia azkarragoa eta aurresangarriagoa* | 48P. Prozedura azkarragoak |
| | | | 49P. Ebatzitakoen, ebazteke daudenen eta pilatutakoen tasak hobetzea |
| | | | 50P. Etendutako epaiketen kopurua murriztea |
| | | | 51P. Betearazpenak bizkortzea |
| | | | 52P. Justizia aurresangarriagoa |
| | 8IE<br>JUSTIZIA ERRESTAURATIBOA ETA GATAZKAK EBAZTEKO BALIABIDE EGOKIAK | *EAEko GEBEen eredua* | 53P. EAEko GEBEen liburu zuria |
| | | | 54P. Arau-esparrua, GEBEen ereduaren egitura sortzea eta garatzea EAEn |
| | | | 55P. Herritarren aldetik eta politika publikoetan GEBEak erabiltzea bultzatzea |
| | | *Kultura-aldaketa Gatazkak Ebazteko Baliabide Egokietan* | 56P. Gatazkak ebazteko baliabide egokiak eta hezkuntza |
| | | | 57P. GEBEen ezagutza gizarteratzea |
| | | *Justizia Errestauratiboaren EAEko Estrategia* | 58P. Justizia Errestauratiboaren EAEko Estrategia 2022-2025 onartzea eta garatzea |
| | | *GEBEak garatzea* | 59P. GEBEak familia-eremuan finkatzea epaileak bideratuta |
| | | | 60P. GEBEak jurisdikzio zibilean (auzi zibilak eta merkataritzakoak) garatzea |
| | | | 61P. GEBEei lan-arloko jurisdikzioan heltzea |
| | | | 62P. GEBEei administrazio-auzien jurisdikzioan heltzea |
| LANKIDETZAN BERRITZEA | 9IE<br>JUSTIZIA BERRITZAILEA | *Gure justiziaren etorkizuna* | 63P. Prospektiba: EAEko justiziaren zerbitzu publikoa 2035ean |
| | | | 64P. Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundea (OLSNE), bilakaera egokia |
| | | | 65P. Justizian ikertzea |
| | | *Udalerriko justizia-bulegoak* | 66P. Gure udalen errealitatera egokitutako UJBen eredu bat zehaztea |
| | | | 67P. UJBen eredua garatzea eta ezartzea |
| | 10IE<br>JUSTIZIAREN ALDE ELKARLANEAN | *Erantzukizun partekatua eta elkarlana* | 68P. Justiziaren inguruko artikulazio instituzionala hobetzea |
| | | | 69P. AVANTIUS Kluba abian jartzea |
| | | | 70P. Abokatuekin, prokuradoreekin eta lan-harremanetako gradudunekiko harremana dinamizatzea |
| | | | 71P. Kudeaketa publiko aurreratuko elkarlanerako egiturak |
| | | | 72P. Zenbait sektorerekin (Hezkuntza, Segurtasuna, Gizarte Politikak, Biktimak, GEBEak) lantaldeak egituratzea eta abian jartzea |
| | | *Herritar parte-hartzaileagoak* | 73P. Justizia eta Hirugarren Sektorea Taldea |
| | | | 74P. Herritarren parte-hartzeko esperientziak |

## 7.3. Proiektuak ildo estrategikoaen arabera

### 7.3.1. 1IE. JUSTIZIA EZAGUNA

| ILDO ESTRATEGIKOA | 1IE. Justizia ezaguna |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Ezagutza eta pertzepzioa** |
| **PROIEKTUA** | **1P. Kanpo-komunikaziorako plana** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEko justiziaren zerbitzu publikoari buruzko kanpo-komunikazioko plan integrala diseinatzea eta garatzea. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Herritarrek eta gizarte-taldeek EAEko justizia-jauregietako justiziaren eta zerbitzuen funtzionamendua ezagutuko dute.<br>2. Gizarte-aldaketa progresiboa. EAEko gizarteak «justizia» «bere justizia» dela antzemango du. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Mezuak, publiko hartzaileak, komunikabideen erabilera eta hedapenerako euskarri, kanpaina, tresna, formatu eta plataformak zehazten dituen plan bat diseinatzea eta garatzea.<br>2. Planaren tresna eta kanpaina nagusiak diseinatzea eta hedatzea.<br>3. Komunikabide nagusiekin lankidetzan aritzea, justiziari buruzko interesguneak zabaltzeko eta izaera didaktikoagoa eta zerbitzu publikokoa emateko, eta aldian behingo deialdi bat egitea justiziari buruzko dibulgazio-lanik onena saritzeko.<br>4. Beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzea kultura eta justiziaren ildoa garatzeko. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Kanpo-komunikazioko plana, diseinatuta (2023ko 2. hiruh.).<br>• Aurreikusitakoen aldean planeko zenbat neurri, kanpaina eta ekintza egin diren 2028an (% 70etik gora). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza, Komunikazio Zuzendaritza, eta Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | EAEko Auzitegi Nagusia, Fiskaltza Nagusia, Gobernu Idazkaritza, hedabideak, Foru Aldundiak, udalak, Kultura Saila eta EITB. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 1IE. 2P. Ezagutzari eta balorazioari buruzko inkestak eta 5IE. 11P. Justizia.eus berritzeko lanak amaitzea. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2023ko urtarrila | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 1IE. Justizia ezaguna |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Ezagutza eta pertzepzioa** |
| **PROIEKTUA** | **2P. Ezagutzari eta balorazioari buruzko inkestak** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Herritarrek EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzuari buruz duten pertzepzioa eta emandako balorazioa aldian behin ezagutzea. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Herritarrek EAEko justizia-zerbitzuari buruz zer pertzepzio duten eta zer balorazio ematen duten ezagutzea.<br>2. Estatuko eta Europako eremuekin alderatzea, zer egoera dugun ezagutzeko.<br>3. Emaitzak negatiboak izanez gero, horiek etorkizunean hobetzeko neurriak hartzea edo erakunde eskudunari helaraztea.<br>4. Gardentasunaren izenean emaitzak oro har zabaltzea. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. EAEn, estatuan eta Europako Erkidegoan egindako inkestak aztertzea eta alderatzea.<br>2. Hala badagokio, inkesta kualitatiboaren eredu bat definitzea, era horretan, aurreko analisi konparatuarekin batera, egin beharreko inkesta kuantitatiboaren sistema, erakunde kudeatzailea eta haren aldizkakotasuna zehazteko.<br>3. Aldian-aldian, ezagutza-, pertzepzio- eta balorazio-mailari buruzko inkestak egitea.<br>4. Emaitzei eta aurrekoen aldean izandako bilakaerari buruzko txostenak egitea, eta beste eremu batzuekin alderatzea (estatukoa eta Europakoa)<br>5. Inkesten emaitzak aurkeztu eta zabaltzea |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Inkestaren ereduaren definitzea (2022ko 4. hiruhil.).<br>• Lehenengo inkesta egitea (2023ko 3. hiruhil.).<br>• Lehen inkesta argitaratzea eta zabaltzea (2023ko 4. hiruhil.).<br>• Ezagutza-maila hobetzea (puntu 1, 5etik) bigarren inkestan, lehenengoaren aldean (2027ko 4. hiruhil.).<br>• Pertzepzioa hobetzea (puntu 1, 5etik) bigarren inkestan lehenengoaren aldean (2027ko 4. hiruhil.) |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza, Komunikazio Zuzendaritza, eta Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Azterlan Kabinetearen Zuzendaritza (Lehendakaritza). |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 6IE. 42P. Gogobetetze-inkestak |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2022ko iraila | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 1IE. Justizia ezaguna |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Justizian heztea** |
| **PROIEKTUA** | **3P. Justizia eta derrigorrezko hezkuntza** |
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Derrigorrezko irakaskuntzaren curriculum-edukiak aztertzea, hobekuntzak zehazteko eta aplikatzeko, EAEko ikasleek zuzenbide-estatua defendatzeko eta legezkotasun-kulturaren etengabeko garapenean parte hartzeko bereziki garrantzitsuak iritzitako ezagutza nagusiak, balioak, jarrerak eta portaerak eskura ditzaten. Ikasle horiek EAEko justizia-sistemaren eta justizia-jauregietako zerbitzuen funtzionamendua ezagutu beharko dute, orobat. |
| HELBURUAK | 1. Zuzenbide-estatua defendatzeko eta legezkotasun-kulturaren etengabeko garapenean parte hartzeko ezagutza, balio, jarrera eta portaera garrantzitsuak eskuratzen dituzten EAEko ikasleak.<br>2. EAEko sistema judizialaren eta justizia-jauregietako zerbitzuen funtzionamendua ezagutzen duten EAEko ikasleak. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Hezkuntza Sailarekin batera, oinarrizko eta bigarren hezkuntzaren curriculumean justiziari emandako tratamendua berrikustea.<br>2. Hala badagokio, aldaketak egitea lehen hezkuntzako edo derrigorrezko bigarren hezkuntzako jakintza-arloetan.<br>3. Material, unitate eta gida didaktikoak egitea, bai irakasleentzat, bai ikasleentzat.<br>4. Hezkuntza-tarteen araberako eskola-lehiaketak deitzea.<br>5. BJKN eta EAEJANarekin lankidetzan, JUSTIZIAN HEZTEA izeneko programa finkatzea eta orokortzea. |
| ADIERAZLEAK | • Egoerari buruzko txostena eta hobetzeko proposamenak (2023ko 4. hiruhil.).<br>• Zenbat unitate didaktiko eta/edo gidaliburu egin diren.<br>• EAEko ikasleek zer neurritan ezagutzen duten EAEko sistema judiziala (3,5etik gora, gehienez 5). |
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza, Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza eta Justizia Administrazioko Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Hezkuntza Saila eta BJKNa. |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 8IE. 56P. GEBEak eta hezkuntza eta 10IE. 72P. Hainbat sektorerekin lantaldeak egituratzea eta abian jartzea. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2023ko apirila | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 1IE. Justizia ezaguna |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Justizian heztea** |
| **PROIEKTUA** | **4P. Justizia eta unibertsitatea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEko unibertsitateek zuzenbidearekin eta justiziarekin lotutako titulazioak eskaintzea, eta horien ikasketa-planak eguneratuta eta sektorearen beharretara egokituta egotea; practicum bat ere badute, halaber, eta justizia-sistemako benetako esperientzia lortzeko aukera ematen du horrek. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Zuzenbideko, gizarte-laneko, lan-harreman eta giza baliabideetako, kriminologiako, politika-zientzietako eta kudeaketa publikoko graduen ikasketa-planak, eta justiziaren zerbitzu publikoaren jarduerarekin zerikusia duten beste gradu batzuenak, eguneratuta egotea.<br>2. Epailetzan, fiskaltzan, JALean, Justizia Administrazioko langileen kidegoetan eta abarretan sartu nahi duten pertsonen prestakuntza errazten duten graduondoak egotea.<br>3. Gradu eta graduondo horien ikasketa-planek sektorearekin zerikusia duten lanbideen eskariei erantzutea.<br>4. Unibertsitateko ikasleen praktiketako programa, estandarizatuta egotea. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Unibertsitateekin batera, ikasketa-planei eta prestakuntza-eskaintzari buruzko egoera-txostena egitea, plan horiek nola hobetu aztertzeko.<br>2. Hobekuntza-proposamenak ezartzea.<br>3. Praktiketako unibertsitate-ikasleen programa estandarizatzea (hitzarmenak, erregistroa eta jarraipena, etab.) eta Irakaskuntza eta Ikerketa Batzordea sortzea egokia den aztertzea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Egoerari buruzko txostena eta hobekuntza-proposamenak, eginda (2025eko 3. hiruh.).<br>• Ikasketa-plan eguneratua zenbat graduk duten. |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza eta Justizia Administrazioko Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Hezkuntza Saila, UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 8IE. 56P. GEBEak eta hezkuntza eta 10IE. 68P. Justiziaren inguruko artikulazio instituzionala hobetzea. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Txikia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2025eko urtarrila | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 1IE. Justizia ezaguna |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Justizian heztea** |
| **PROIEKTUA** | **5P. Justizia polizia judizialaren prestakuntzan** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren (PLEA) eginkizuna lagunduz, herritarren segurtasuna bermatzeko zerbitzu publikoak ematen dituzten eta polizia judizialaren eginkizunak betetzen dituzten pertsonek arlo juridikoa eta ezagutza espezializatuak eguneratzeko eskaintza nahikoa izan dezaten bultzatzea, delitu-modalitate berriei edo konplexutasun handikoei erantzuteko. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. PLEArekin elkarlanean aritzea, honako hauekin lotutako prestakuntza-eskaintza egiteko:<br>• Sartzeko oinarrizko ikastaroak<br>• Mailaz igotzeko ikastaroak<br>• Espezializazio- eta eguneratze- eta hobekuntza-ikastaroak<br>2. PLEArekin lankidetzan aritzea ezagutza espezializatuaren eskaintza egiteko, horrela delitu-modalitate berriei edo konplexutasun handikoei erantzuteko. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Justizia eta Segurtasuneko Lantaldearen esparruan lan egitea (72. galderan aurreikusita). Hainbat sektorerekin lantaldeak egituratzea eta abian jartzea, honako honetarako:<br>• PLEAren urteko edo urte anitzeko prestakuntza-planari ekarpenak egiteko.<br>• Delitu-modalitate berriei erantzuteko beharrezkoak diren eguneratzeei buruzko ekarpenak egitea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • PLEAren urteko prestakuntza-planei egindako ekarpenen arabera zenbat ikastaro eguneratu diren. |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza eta PLEA. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | BJKN-EAEJAN, Segurtasun Saila, Unibertsitateak, Kriminologiaren Euskal Institutua. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Segurtasun Publikoko Plana 2021-2025 eta 10IE. 73P. Zenbait sektorerekin (Hezkuntza, Segurtasuna, Gizarte Politikak, Biktimak, GEBEak...) lantaldeak egituratzea eta abian jartzea. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Txikia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2025eko urtarrila | 2028ko abendua |

### 7.3.2. 2IE. JUSTIZIAK SARBIDEA ETA BABESA EMATEN DIE PERTSONA KALTEBERENEI

| ILDO ESTRATEGIKOA | 2IE. Justiziak sarbidea eta babesa ematen die pertsona kalteberenei |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Justiziarako irispidea erraztea** |
| **PROIEKTUA** | **6P. Justiziarako sarbidean berdintasuna laguntzea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Eskubide baten urraketaren aurrean erantzun bat lortzeko bermea betetzen den aztertzea, bai eskubideen babes judizial eraginkorra bermatzen duten mekanismo instituzionalizatuen bidez, bai gatazkak ebazteko baliabide egokien bidezko bestelako moduen bidez. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. EAEko justiziarako sarbidean, babes judizial eraginkorrerako eskubidean edo justizia-zerbitzua eskuratzean egon daitezkeen desberdintasunei buruzko diagnostikoa.<br>2. Justiziarako sarbidean kolektibo jakin batzuen desberdintasunak murrizten edo ezabatzen laguntzen duten neurri zuzentzaileen proposamen sorta bat lortzea. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Txosten bat egitea, EAEko justiziarako sarbidean edo justizia-zerbitzua ematean dauden desberdintasunei buruzko diagnostiko-proposamenekin (legearen aurrean, legean eta legearen aplikazioan berdintasuna izateko eskubideak bereizita). Txosten horretan honako hau zehaztu beharko da: babes judizial eraginkorrerako eskubidea nola aplikatzen ari den, eta desberdintasun ekonomikoek (pobrezia), desberdintasun sozialek, generoaren arloko desberdintasunek, desgaitasunen ondoriozkoek eta abarrek zer-nolako eragina duten.<br>2. Proposamen sorta aztertzea eta jarduketen egutegia zehaztea, sarbiderako eskubidea pixkanaka hobetu ahal izateko.<br>3. Justizia-sistemara jotzen duten pertsonen datu kuantitatiboak eta kualitatiboak eta informazioa lortzea, honako hauen arabera bereizita: sexua, adina, nazionalitatea, hirian edo landan bizi diren eta desgaitasuna. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Egoerari buruzko txostena, eginda (2023ko 4. hiruh.).<br>• 2025-2028 aldian egin beharreko hobekuntza-proposamenen dokumentua (2024ko 2. hiruh.).<br>• 2025-2028 aldirako proposatutako neurrien zer % aplikatu den (% 70etik gora). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Gizarte Politiketako Sailburuordetza, unibertsitateak, epaileak, fiskalak, JALak, abokatuak, prokuradoreak, gizarte-graduatuak, herritarrak ordezkatzen dituzten erakundeak. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 1IE. Justizia Ezaguna; 2IE. 10P. Emakumearen aurkako indarkerien biktimei laguntzea, 12P. Justizia eta Emakumeak Programa, 13P. Justizia eta Adingabeak Programa, 15P. Justizia eta Adinekoak Programa, eta 16P. Justizia eta Migratzaileak; 3IE. 22P. Prestakuntza-planak egitea eta garatzea, eta 8IE. Justizia errestauratiboa eta gatazkak ebazteko baliabide egokiak. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2023ko ekaina | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 2IE. Justiziak sarbidea eta babesa ematen die pertsona kalteberenei |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Justiziarako irispidea erraztea** |
| **PROIEKTUA** | **7P. Doako justizia, gehiago eta hobeto** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Abokatuen eta prokuradoreen elkargoekin batera, EAEko orientazio-zerbitzuaren funtzionamendua eta doako justiziaren aplikazioa berrikustea –Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legea eta Doako Laguntza Juridikoari buruzko urriaren 30eko 153/2018 Dekretua aplikatuz–, haren funtzionamenduan izan litezkeen hobekuntzak aztertzeko. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. EAEko doako orientazio- eta justizia-zerbitzuen funtzionamenduan eta tratamendu ez-homogeneoan dauden gabezia nagusiak ezagutzea.<br>2. Abokatuen eta prokuradoreen elkargoekiko hitzarmenak eguneratzea, antzemandako gabeziak arintzeko eta zerbitzua hobeto emateko. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. OJZ-Doako justiziaren funtzionamenduaren egoeraren diagnostikoa egitea (non eta nola ematen duten, kolektiboak-txandak, guardiak, erantzun-denbora, hautaketa, prestakuntza, finantzaketa-moduluak, gogobetetasun-inkestak, ebaluazioa, kontrol-metodoak, digitalizazioa, etab.).<br>2. Hala badagokio, beste hitzarmen batzuk negoziatu, izapidetu eta sinatzea, zerbitzuaren prestazioa hobetu ahal izateko. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Egoerari buruzko txostena, eginda (2023ko 4. hiruh.).<br>• Hitzarmen berria abokatuen elkargoekin (2025eko 4. hiruh.).<br>• Hitzarmen berria prokuradoreen elkargoekin (2025eko 4. hiruh.).<br>• Erabiltzaileen batez besteko gogobetetasun-maila (3,5etik gora, gehienez 5). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Abokatuak eta prokuradoreak |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 8IE. Justizia errestauratiboa eta gatazkak ebazteko baliabide egokiak. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2023ko ekaina | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 2IE. Justiziak sarbidea eta babesa ematen die pertsona kalteberenei |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Justiziarako irispidea erraztea** |
| **PROIEKTUA** | **8P. Orientazio judiziala** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEko justizia-zerbitzuen zorroari buruzko informazio- eta orientazio-zerbitzu bat antolatzea, interesdunari dituen aukerei buruzko orientabideak eman dakizkion, justizia-zerbitzura haren beharrizanei erantzuteko egokien iritzitako moduan jo dezan. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Herritarrek edo erakunde erabiltzaileek edo erabiltzaile potentzialek EAEko organo judizialen eta justiziarekiko lankidetza-zerbitzuen funtzionamendua ezagutzea, bai eta duten justiziarako sarbide-eskubidea erabiltzeko modurik onena ere.<br>2. Herritarrek eta erakunde erabiltzaileek GEBEak eta justiziara jotzeko duten eskubidea egoki erabiltzea.<br>3. EAEko justiziaren zerbitzu publikoa hobetzea. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. EAEko justiziaren erabiltzaile izan daitezkeen pertsonen eta erakundeen informazio- eta orientazio-beharrak zehaztea.<br>2. EAEko justiziaren zerbitzu guztien katalogo orokorra egitea.<br>3. Orientazio-diagramak egitea, zerbitzuaren erabiltzaileak zer egoera duen, haren beharrizanaren eta lehentasunen araberako zerbitzu egokienera bideratua izan dadin.<br>4. Zerbitzu-zorroan EAEko justizia-sistemari eta justiziarekiko lankidetza-zerbitzuei buruzko aurrez aurreko informazio- eta orientazio-zerbitzu bat gehitzea.<br>5. 24 ordu/365 eguneko zerbitzua garatzea eta martxan jartzea, informazio- eta orientazio-txatbot baten bidez (telefonoz, web bidez, app bidez...). |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Zerbitzuen katalogo orokorra (2024ko 2. hiruh.).<br>• Justiziari buruzko informazio- eta orientazio-zerbitzua sortzea (2025eko 3. hiruh.).<br>• Informazio-zerbitzua erabiltzen duten pertsonen batez besteko gogobetetasun-maila (3,5etik gora, gehienez 5). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza eta Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Epaileak, fiskalak, JALak, abokatuak, prokuradoreak eta lan-harremanetako gradudunak. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 5IE. Justizia Digitalaren Plana 2021-2026; 6IE. 41P. Katalogoak eta zerbitzu-kartak eta proiektu autonomikoak, STEF finantzaketa dutenak. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2024ko urtarrila | 2028 ekaina |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 2IE. Justiziak sarbidea eta babesa ematen die pertsona kalteberenei |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Justiziarako irispidea erraztea** |
| **PROIEKTUA** | **9P. Justiziarekin elkarlanean aritzeko zerbitzu-ereduaren bilakaera** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Aurreikusitako hobekuntzak, espetxeen eskumena Eusko Jaurlaritzari eskualdatu izana eta GEBEen erregulazioa (Efizientzia Prozesalaren Legearen proiektua), justiziarekin lankidetzan aritzeko zerbitzuen egitura eta horiek emateko moduak aztertzea, eta, hala badagokio, haien berregituraketa proposatzea, zerbitzu horiek behar bezala eta eraginkortasunez eman daitezen. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Justiziarekiko lankidetza-zerbitzuen beharrizanei erantzun egokia ematea, eta horiek dimentsionatzea, planifikatu, kudeatu, koordinatu eta ebaluatu ahal izateko.<br>2. Arreta ematea arlo hauei: Justiziarako sarbidea; informazioa eta orientazioa; doako justizia; gazteen justizia; biktimarenganako arreta; justizia errestauratiboa, eta zehazten diren beste batzuk.<br>3. Espetxe-zerbitzuen egituran zigorren kudeaketa zentzuz integratzea.<br>4. GEBEei laguntzeko zerbitzuak emateko moduari eta irismenari buruz erabakitzea.<br>5. Finantzaketa publiko osoari edo partzialari buruz erabakitzea, eta, hirugarren sektoreari lotutako kanpoko erakundeek emanez gero, baita harreman-ereduari buruz ere (hitzarmena, ituna, kontratua). |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Zerbitzuen egungo konfigurazioari buruzko hausnarketa eta diagnostikoa egitea.<br>2. Zerbitzu horiek dekretu baten bidez arautzeko aukera aztertzea (zerbitzuak, izendapenak, hedapena, emateko moduak...).<br>3. Hala badagokio, Justizia Zuzendaritzako zerbitzuen LPZa aldatzea proposatzea (lanpostu kopurua, lanpostu motak, egikizunak eta zereginak, kokapena, bulegoak, etab.). |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Hausnarketa eta diagnostikoa, eginda (2022ko 4. hiruh.).<br>• Dekretua (edo zehazten den araua), izapidetuta (2023ko 4. hiruh.).<br>• Zerbitzu bakoitzaren erabiltzaileek haren funtzionamenduarekin duten batez besteko gogobetetasun-maila (3,5etik gora, gehienez 5). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza, Zerbitzu Zuzendaritza eta Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Gobernuaren organo horizontalak, eta gaur egun zerbitzuen adjudikaziodun diren hirugarren sektoreko enpresak |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | EAEko espetxeei buruzko estrategia eta 8IE. 54P. EAEn GEBEen ereduaren arau-esparrua, haren egitura sortzea eta garatzea. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2022ko apirila | 2025eko abendua |

| | |
|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | **2IE. Justiziak sarbidea eta babesa ematen die pertsona kalteberenei** |
| **PROGRAMA** | **Biktimak lehenik** |
| **PROIEKTUA** | **10P. Emakumearen aurkako indarkerien biktimei laguntzea. EAIBen planaren garapena.** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei buruzko jarduera-plana eguneratzea eta garatzea 2023-2028 aldirako, Istanbulgo Adierazpenak indarkeria horri buruz ematen duen definizioaren arabera. |
| HELBURUAK | 1. EAEko justiziaren arloan EAIBei dagokienez egiten den jarduera aztertzea.<br>2. Justizia Sailburuordetzak EAIBen arreta hobetzeko zer esku-hartze abiarazi behar duen zehaztea.<br>3. EAEan gainerako operadore juridikoekin batera EAIEen eta mistoen kopuruari eta kokapenari buruzko proposamen adostua egitea.<br>4. Esku-hartze horiek bateratzea Eusko Jaurlaritzak EAIBei dagokienez dituen eginkizun eta ikuspegiarekin eta plan orokorrekin. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei buruzko jarduera-plana eguneratzea.<br>2. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko erakundearteko akordio berriaren esparruan, erakundearteko koordinazioa lantzea, eta esku hartzeko protokoloak hobetzea.<br>3. Biktimei informazioa, arreta, orientazioa, aholkularitza eta laguntza integrala emateko zerbitzuak indartzea.<br>4. Epaile, fiskal eta JALekin, EAIKZarekin, ABIUarekin, SPJarekin, BLZekin eta justiziarekin lankidetzan aritzeko beste zerbitzu batzuekin, EAEko EAIEen eta/edo mistoen egiturari eta prozeduretan duten funtzionamenduari buruzko protokolo bat egitea, haien jardueraren kalitatea eta efikazia hobetzeko.<br>5. Sentsibilizazio-, prestakuntza- eta segurtasun- eta osasun-ekintzak egitea, EAIBekin lan egiten duten langile guztiek zeregina efizientziaz egin dezaten eta biktimei arreta hobea eman diezaieten.<br>6. Espazio eta instalazioak egokitzen jarraitzea, zerbitzua era egokian ematen dutela eta emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen segurtasuna bermatzeko.<br>7. Emakunderekin lankidetzan, informazioa hizkuntza argi eta errazean lantzea, EAIBek beren eskubideak eta justiziaren funtzionamendua, bai eta organo judizialekin duten harremana nolakoa izan daitekeen ere, ezagutu ahal izateko. |
| ADIERAZLEAK | • Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei buruzko jarduera-plana, 2023-2028 aldirako eguneratua (2023ko 2. hiruh.).<br>• EAEko EAIEen eta mistoen kopuruari eta kokapenari buruzko proposamen adostua (2023ko 4. hiruh.).<br>• EAEko EAIEen eta/edo mistoen egiturari eta funtzionamenduari buruzko protokoloa (2024ko 2. hiruh.).<br>• BLZa erabiltzen duten emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen batez besteko gogobetetasun-maila (4tik gora, gehienez 5). |
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza, Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza eta Justizia Administrazioko Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Emakunde, Gizarte Politiketako Sailburuordetza, epaileak, fiskalak, JALak, EAIKZ, ABIUa, SPJa, BLZa, genero-indarkeriaren batzorde probintzialak, BLZaren erakunde adjudikaziodUna. |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa, eta Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasan dituzten emakumeei arreta hobea emateko Erakundearteko III. Akordioa, lege horren arabera zehazten ari dena. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARANTZIA | Ertaina | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2023ko urtarrila | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 2IE. Justiziak sarbidea eta babesa ematen die pertsona kalteberenei |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Biktimak lehenik** |
| **PROIEKTUA** | **11P. Biktimari Laguntzeko Zerbitzua sendotzea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren (BLZ) funtzionamendua aztertzea, haren jarduera garatzeko etorkizuneko baldintzak zehazteko. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. BLZa sendotzea eta hobetzea, EAIBei laguntza integrala emateko funtzioa gehitu ahal izateko. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. BLZaren funtzionamenduaren diagnostikoa egitea, azken urteetan emandako zerbitzuaren azterketa kuantitatibo eta kualitatiboan oinarrituta. Indargune nagusiak, ahuleziak eta ikasitakoa zehaztea, zerbitzua hobetzeko neurriak proposatzeko.<br>2. Zerbitzua heldu diren urteetan emateko baldintzak zehaztea.<br>3. Justizia Sailburuordetzak zerbitzua ematen duen erakundearekin (edo erakundeekin) zer harreman-sistema duen zehaztea (hitzarmena, ituna edo kontratua) eta izapidetzea egitea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Diagnostikoaren txostena, eginda (2025eko 3. hiruh.).<br>• Zerbitzua emateko baldintzak jasotzen dituen dokumentua (2025eko 4. hiruh.).<br>• Erabakitako harreman-sistema izapidetzea (2026ko 2. hiruh.).<br>• Erabiltzaileek jasotako arretarekin duten gogobetetasun-mailaren %-a (4tik gora, gehienez 5). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Azken urteetan BLZa eman duen erakundea, biktimak ordezkatzen dituzten elkarteak, zerbitzua erabiltzen duten biktimak. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 2IE. 9P. Justiziarekin elkarlanean aritzeko zerbitzu-ereduaren bilakaera eta 10P. Emakumearen aurkako indarkerien biktimei laguntzea. EAIBaren planaren garapena. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2025eko urtarrila | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 2IE. Justiziak sarbidea eta babesa ematen die pertsona kalteberenei |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Pertsona kalteberenei laguntzea** |
| **PROIEKTUA** | **12P. Justizia eta Emakumeak Programa** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Emakumeen gutxiagotasun- eta mendetasun-egoera antzematea eta, hala badagokio, zuzentzea; auzitegietan beren eskubideak eskatzeko duten zailtasun handiagoak erakusten du egoera hori, bai eta haiei uziei emandako erantzunek guztiz edo zati batez ez gogobetetzeak. Berdintasun formala egon arren, justiziarako sarbidean dauden desberdintasunak antzeman eta zuzendu behar dira. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Emakumeen justiziarako sarbidean desberdintasunak antzematea.<br>2. Justizia Administrazioan desberdintasun horiek eta jarrera sexistak zuzentzea.<br>3. Salaketaren mitoa suntsitzea, familia-zuzenbidean abantailak lortzeko.<br>4. Zerbitzuak espezializatzea, emakumeei behar bezalako arreta emateko, batez ere emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez.<br>5. Epaileek, fiskalek, JALek, JAko gainerako langileek, abokatuek, prokuradoreek eta lan-harremanetako gradudunek prestakuntza espezializatua izatea. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Txosten bat egitea, emakumeen EAEko justiziarako sarbidean edo haiei justizia-zerbitzua ematean dauden desberdintasunei buruzko diagnostikoa eta proposamenak jasota.<br>2. Proposamen sorta aztertzea eta jarduketen egutegia zehaztea, emakumeen sarbide-eskubidea eta haiei emandako arreta pixkanaka hobetu ahal izateko. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Egoerari buruzko txostena, eginda (2023ko 4. hiruh.).<br>• 2025-2028 aldian egin beharreko hobekuntza-proposamenen dokumentua (2024ko 2. hiruh.).<br>• 2025-2028 aldirako proposatutako neurrien zer % aplikatu den (% 70etik gora). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza eta Emakunde. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Zerbitzu Zuzendaritza (Berdintasun-teknikaria). |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Berdintasun Plana; 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa; Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasan dituzten emakumeei arreta hobea emateko Erakundearteko III. Akordioa, lege horren arabera zehaztuko dena; 2IE.6P. Justiziarako sarbidean berdintasuna laguntzea eta 10P. Emakumearen aurkako indarkerien biktimei laguntzea. EAIBaren Planaren garapena; eta 3IE. 21P. EAEko Justizia Administrazioko Berdintasun Plana. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2023ko uztaila | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 2IE. Justiziak sarbidea eta babesa ematen die pertsona kalteberenei |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Pertsona kalteberenei laguntzea** |
| **PROIEKTUA** | **13P. Justizia eta Adingabeak Programa** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Programa bat garatzea EAEko Justizia Administrazioan adingabeentzako sarbidea eta arreta hobetzeko, eta pertsona horiek legearekin harremanetan edo gatazkan daudenean, haien beharrizan espezifikoei heltzen saiatzeko. |
| HELBURUAK | 1. Justizia-sistemarekin harremanetan dauden adingabeek informazio osoa, eta behar egokitua, izango dute beren eskubideei, prozedura-etapei eta sistema horretan dituzten eginkizunei dagokienez.<br>2. EAEko justizia-sistema adingabeen beharretara egokituko da, eta parte-hartze esanguratsua emango zaie prozeduretan.<br>3. Jurisdikzio-ordena zibileko epaitegi batzuek (familia-epaitegi espezializatuak) eta zigor-arloko jurisdikzio-ordenako (haurtzaroko indarkeriaz arduratzeko zigor-arloko epaitegi espezializatuak) epaitegi batzuek espezializazio-beharrik duten aztertzea, adingabeen eskubideei eta beharrizanei egokiago erantzuteko.<br>4. Barnahus proiektu pilotua garatzen eta, hala badagokio, orokorki ezartzen laguntzea, sexu-indarkeriaren biktima diren adingabeei arreta emateko sistema gisa.<br>5. Justizia errestauratiboa garatzea adingabeentzat, legearekin gatazkan daudenean tratu duina jaso dezaten eta, hala badagokio, zigorrak betetzearen ordezko neurriak erabiltzea bultza dadin. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. EAEko adingabeek justiziarekin duten harremanari buruzko azterlan bat egitea, zer prozeduratan esku hartzen duten, haien rola, zer-nolako arreta eta informazioa jasotzen duten, zer neurri ezartzen zaizkien, eta abar aztertuta, horiek hobetzeko neurriak ezartzeko.<br>2. Proposamen sorta eta ezarpen-plan bat aztertzea eta jarduketen egutegia zehaztea, adingabeen sarbide-eskubidea eta haiei emandako arreta pixkanaka hobetu ahal izateko.<br>3. Epaileen, fiskalen, JALen, kudeaketa, izapidetze eta laguntzako langileen eta lan-kontratuko gainerako langileen prestakuntza indartzea.<br>4. BLZaren, Zigorrak Kudeatzeko Zerbitzuaren eta Justizia Errestauratiboko Zerbitzuaren funtzionamendua hobetzea, bai eta haien arteko koordinazioa eta organo judizialekin eta gizarte-laguntzako zerbitzuekin dutena ere, Justizia Administrazioarekin harremanetan dauden adingabeei ematen zaien arreta hobetzeko.<br>5. Lantalde psikosozial judizialen erregulazioa eta funtzionamendua alda daitezen aztertzea, pertsonei arreta emateko kasuak zabaldu eta hobetzeko, eta, hala badagokio, Senidetasun Koordinazioaren figura gehitzeko.<br>6. Barnahus-en proiektuan laguntzea<br>7. Zeuk ESANlaguntza-zerbitzuarekin elkarlanean aritzea justiziari eta adingabeei buruzko informazio-kanpaina espezifiko bat egiteko.<br>8. Familia Bitartekaritzako Zerbitzuarekin lankidetzan aritzea, adingabeei ematen zaien arreta hobetzeko.<br>6. Hala badagokio, jurisdikzio-ordena zibileko eta penaleko epaitegi batzuen espezializazioa proposatzea, adingabeen eskubideei eta beharrizanei egokiago erantzuteko. |
| ADIERAZLEAK | • Egoeraren azterketa eta diagnostikoa, eginda (2023ko 4. hiruh.).<br>• 2025-2028 aldian egin beharreko hobekuntza-proposamenen dokumentua (2024ko 2. hiruh.).<br>• 2025-2028 aldirako proposatutako neurrien zer % aplikatu den (% 70etik gora). |
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza, Familia eta Haurren Zuzendaritza, eta Ikusmirak- Haurren eta Nerabeen Behatokia. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Epaileak, fiskalak, AJLak, abokatuak, prokuradoreak, lan-harremanetako gradudunak. |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 2IE. 10P. Emakumearen aurkako indarkerien biktimei laguntzea eta 14P. Gazte Justizia Plana; eta 8IE. Justizia errestauratiboa eta gatazkak ebazteko baliabide egokiak. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2023ko uztaila | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 2IE. Justiziak sarbidea eta babesa ematen die pertsona kalteberenei |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Pertsona kalteberenei laguntzea** |
| **PROIEKTUA** | **14P. Gazte Justizia Plana** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEko Gazte Justiziaren V. Plana (2020-2024) garatzea, haren emaitzak ebaluatzea eta hurrengo Gazte Justizia Plana egitea eta garatzea. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Gazte-justiziaren EAEko eredua garatzea, zeina printzipio hauetan oinarrituta dagoen:<br>• Zigor-erantzukizuna eta izaera zehatzaile-hezitzailea<br>• Sistema berme-emailea: eskubide guztiak zorrotz baino zorrotzago errespetatzea.<br>• Erantzukizuna hartzea<br>• Behar den gutxieneko esku-hartzea<br>• Adingabearen interes nagusia lehenestea, banakako egokitzapenaren ikuspegitik<br>• Ikuspegi komunitarioaren normalizazioa<br>2. Oraingo funtzionamendu-eredua sendotzea eta honako hauetan sakontzea: hezkuntza-kalitatea handitzea, sailen eta erakundeen artean koordinazio hobea eta neurriak gauzatzeko esku-hartzearen integraltasuna, prebentzio-orientazioa aplikatuz haurrei, nerabeei eta, oro har, gazteei dagokienez eragina duten politikak garatzen dituzten sail guztien jarduera-eremuetan.<br>3. EAEko Gazte Justizia Planaren (2020-2024) helburuak betetzea:<br>• *EAEko Administrazio Orokorraren eskumenekoak diren Adingabeen arloko Epaitegiek emandako ebazpen judizial guztiak betearaztea.*<br>• *5/2000 Legean deskribatutako baldintzak betez gero, gazte-justiziarekin zerikusia duten pertsona guztiei adiskidetze-erreparazio programetarako sarbidea erraztea.*<br>• *Gazteentzako justiziaren erantzunak pertsona bakoitzaren errealitatera egokitzea zenbait programa, zerbitzu eta zentro bizkor eta moldagarriren bitartez, zeinek neurri zehatzailea-hezitzailea bete behar duten adingabe guztiei bikaintasunean oinarritutako erantzuna bermatzen dieten.*<br>• *Adingabeek egindako arau-hausteak prebenitu eta gutxitzea.*<br>• *Gazteen arloko justizian inplikatuta dauden eragileei prestakuntza espezializatua eta espezifikoa ematea.*<br>• *Informazioa biltzeko sistema hobetzea, esku-hartze efizientea eta efikaza ahalbidetzeko.*<br>• *Adingabeek egindako zigor-arloko arau-hausteen erakunde-erantzunaren kudeaketa ebaluatzea.* |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. EAEko Gazte Justiziaren V. Planean (2020-2024) aurreikusitako jarduketak egitea.<br>2. Plana ebaluatzea eta EAEko Gazte Justiziaren VI. Plana (2025-2029) egin eta garatzea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Gazte Justiziaren Zerbitzuaren urteko jarduera-memoriak (hurrengo urteko 2. hiruh.).<br>• V. Planaren tarteko ebaluazioaren memoria (2022. urteko 4. hiruh.).<br>• V. Planaren azken ebaluazioa (2025. urteko 3. hiruh.).<br>• Adingabeek egindako arau-hausteen murrizketaren %-a (% 20tik gora 2025ean).<br>• Gazte Justiziaren Planean bertan ezarritakoak. |
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Lantalde Psikosozial Judizialak, Gizarte Politiketako Sailburuordetza, Segurtasun Saila, Hezkuntza Saila, Lan eta Enplegu Saila eta Osasun Saila. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 2IE. 13P. Justizia eta Adingabeak Programa eta 8IE. Justizia errestauratiboa eta gatazkak ebazteko baliabide egokiak. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2022ko urtarrila | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 2IE. Justiziak sarbidea eta babesa ematen die pertsona kalteberenei |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Pertsona kalteberenei laguntzea** |
| **PROIEKTUA** | **15P. Justizia eta Adinekoak Programa** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEko Justizia Administrazioan adinekoentzako sarbidea eta arreta hobetzeko programa bat garatzea, adinkerian eta aurreiritzi eta estereotipoetan oinarritutako ikuspegiak ezabatzea helburu, beren eskubideak baldintza berdinetan erabili ahal izan ditzaten, komunitatean parte hartuz haien zahartze aktibo eta osasungarrian oinarrituta. |
| HELBURUAK | 1. EAEko Justizia Administrazioarekin harremana duten 65 urtetik gorako pertsonen datuak lortzea, eta justiziarako sarbidean dauden adinean oinarritutako diskriminazioak aztertzea.<br>2. Adinekoei aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzea zerbitzu judizialetan eta erabaki judizialetan.<br>3. Adinekoen aurkako tratu txarren egoerak antzematea, eta horiek gertatzea dakarten faktoreak ezabatzea (lotsaren, afektua galtzearen, errepresalien eta abarren beldur izatea).<br>4. Pertsona horien justiziarako sarbidea oztopatzen duten faktoreak pixkanaka ezabatzea (sentsibilizazio, informazio eta orientaziorik ez egotea; sinesgarritasunik eza; GEBE sistemak ez eskaintzea; arreta desegokia; oztopo ekonomikoak; oztopo arkitektonikoak; hizkuntza ulertezina; estereotipoak; atzerapenak; eten digitala; birbiktimizazioa...). |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. EAEn justizia-sistemarekin harremanetan dauden adineko pertsonen kopuruari eta harreman motei buruzko txostena egitea.<br>2. Ordezkaritza handiena duten elkarteekin batera, kolektibo horren justiziarako sarbidea oztopatzen duten faktoreen katalogoa egitea.<br>3. EAEko Justizia Sailburuordetzak edo auzitegiek arau-aldaketarik egin gabe, zer neurri hartu eta planaren indarraldian ezarri ahal diren zehaztea.<br>4. Neurri horiek ezartzea eta, hala badagokio, laguntza- eta babes-zerbitzuak emateko aukera aztertzea. |
| ADIERAZLEAK | • Adinekoei justiziarako sarbidea oztopatzen dieten faktoreen katalogoa –lehenetsitako neurriak barne–, egina (2024ko 2. hiruh.).<br>• Justizia erabiltzen duten adinekoen batez besteko gogobetetasun-maila (3,5etik gora, gehienez 5). |
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza eta Gizarte Politiketako Sailburuordetza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Adinekoak ordezkatzen dituzten elkarteak. |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 1IE.1P. Kanpo-komunikaziorako plana eta 2P. Ezagutzari eta baliospenari buruzko inkestak; 2IE. 17P. Desgaitasuna duten pertsonei justiziarako sarbidea errazteko ekintza-plana; 5IE. 10P Inklusio digitalaren plana, irisgarritasuna erraztu, eta eten digitala deuseztatzeko, eta 8IE. Justizia errestauratiboa eta gatazkak ebazteko baliabide egokiak. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2023ko ekaina | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 2IE. Justiziak sarbidea eta babesa ematen die pertsona kalteberenei |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Pertsona kalteberenei laguntzea** |
| **PROIEKTUA** | **16P. Justizia eta Migratzaileak Programa** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEko Justizia Administrazioan migratzaileentzako sarbidea eta arreta hobetzeko programa bat garatzea, beren eskubideak baldintza berdinetan erabili ahal izan ditzaten eta etorkinak delitugiletzat hartzen dituen estereotipo faltsua deuseztatzeko, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko Planean ezarritakoaren alde eginez. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Migrazioaren fenomenoak EAEko Justizia Administrazioan zer-nolako eragina duen eta migratzaileei zer tratamendu ematen zaien ezagutzea.<br>2. Migratzaileak jurisdikzio-ordenekin zer baldintzatan eta inguruabarretan erlazionatzen diren aztertzea.<br>3. Migratzaileen justiziarako sarbidea eta babes judizial eraginkorrerako eskubidea hobetzea, baita administrazio-irregulartasuneko egoeran dauden pertsonei dagokienez ere.<br>4. Lankidetza sendotzea Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko Planaren atal juridiko-judizialean eta Sarearekin. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Azterlan batean migratzaileek esku hartzen duten prozedurak, behin betiko autoak, epaiak eta beste dokumentu batzuk urteka eta jurisdikzio-ordenen arabera aztertzea, egoera diagnostikatzea eta hobetzeko neurriak proposatzea.<br>2. Azterlanean proposatutako hobekuntzak pixkanaka aplikatzea; horien artean migratzaileei arreta emateko protokoloak egitea egongo da.<br>3. Migratzaileentzako doako laguntzaren eta ofiziozko txandaren funtzionamendua aztertzea eta, hala badagokio, hobetzea.<br>4. Interpretazio- eta itzulpen-zerbitzuaren funtzionamendua berrikustea, hobetzeko. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Egindako egoeraren azterketa eta diagnostikoa, eginda (2024ko 2. hiruh.).<br>• 2026-2028 aldian egin beharreko hobekuntza-proposamenen dokumentua (2025eko 2. hiruh.).<br>• 2026-2028 aldirako proposatutako neurrietatik zer % aplikatu den (% 60tik gora). |
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza, Justizia Administrazioko Zuzendaritza, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza, EATak, EAEJAN ETA JALak. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Ikuspegi-Immigrazioaren Euskal Behatokia, Biltzen-Integraziorako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua, Aholku Sarea-Atzerritartasunaren arloko Arreta Juridikorako Euskal Sarea, Eraberean, unibertsitateak, etorkinak ordezkatzen dituzten elkarteak, Migrazioaren eta Asiloaren EAEko Foroa. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Plana, eta Immigrazioaren eta Asiloaren VI. Kulturarteko Plana. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARANTZIA | Ertaina | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2023ko ekaina | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 2IE. Justiziak sarbidea eta babesa ematen die pertsona kalteberenei |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Pertsona kalteberenei laguntzea** |
| **PROIEKTUA** | **17P. Desgaitasuna duten pertsonei justiziarako sarbidea errazteko ekintza-plana** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Desgaitasuna duten pertsonen justiziarako sarbidea baldintza berdinetan unibertsalizatzeko egiturazko baldintzak sortzen dituen plana egitea eta garatzea. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Desgaitasuna duten pertsonek justiziarako sarbidea izatea bermatzea, modu eraginkorrean eta gainerako herritarren baldintza berberetan, Brasiliako Arauak eta Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren (DPEK) 13. artikulua.<br>2. Ingurune fisikoak, teknologikoak eta materialak pertsona guztientzat irisgarriak direla ziurtatzea.<br>3. Desgaitasunen bat duten pertsonek beren gaitasun juridikoa modu autonomo batez erabil dezaten laguntzea (EAEn ekainaren 2ko 8/2021 Legean, ekainaren 2koa, zeinaren bidez legeria zibila eta prozesala aldatzen baita desgaitasunen bat duten pertsonei beren gaitasun juridikoa baliatzen laguntzeko).<br>4. Irisgarritasuna eta laguntza ematea bermatzea desgaitasuna duten eta zigor-arloko eta espetxe-arloko egikaritza-sisteman arreta jasotzen duten pertsonei, bai eta gazte-justiziaren sisteman artatutako adingabeei ere.<br>5. Justiziaren eremuan desgaitasuna duten pertsonen eskubideak bermatzeko behar diren laguntzak ematen dituzten antolaketa-bitartekoak eta giza baliabideak eskuragarri jartzea. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Planaren hasierako bertsioa egitea, lan-dokumentu gisa, gutxienez honako eremu hauek barne hartuta: 1. Justiziarako sarbidea; 2. Ingurune fisikoen, teknologikoen eta materialen irisgarritasuna; 3. Irisgarritasun kognitiboa eta gaitasun juridikoa baliatzen laguntzea; 4. Irisgarritasuna eta laguntzak espetxe-eremuan; 5. Irisgarritasuna eta laguntzak gazte-justiziaren eremuan, eta 6. Informazioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa.<br>2. Lantalde bat eratzea, operadore juridikoen eta elkarte-sarearen (FEVASPACE, FEVAS, EUSKAL GORRAK, FEDEAFES, ELKARTEAN eta ONCE) ordezkariekin.<br>3. Plan-proposamena eztabaidatu eta egitea.<br>4. Onarpena eta gizarteratzea.<br>5. Plana pixkanaka garatzea eta betearaztea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Desgaitasuna duten pertsonen justiziarako sarbide-plana, onartuta (2022ko 4. hiruh.).<br>• Desgaitasuna duten atxilotuei laguntzeko protokolo espezifikoa, polizia-egoitzan zein egoitza judizialean (2023ko 4. hiruh.).<br>• Aurreikusitakoen aldean planeko jarduketen zein % ezarrita dagoen (% 60tik gora). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza, Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza, epaileak, fiskalak, JALak, LPJa eta Gizarte Politiketako Sailburuordetza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | FEVASPACE (Garun Paralisiaren Euskal Federazioa); FEVAS (Adimen Urritasuna duten Pertsonen aldeko Elkarteen Euskal Federazioa); EUSKAL GORRAK (Gorren Elkarteen Euskal Federazioa); FEDEAFES (Buruko Gaixotasuna duten Pertsonen eta haien Senideen Elkarteen Euskadiko Federazioa); ELKARTEAN (Euskal Autonomia Erkidegoko Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Konfederazio Koordinatzailea) eta ONCE (Espainiako Itsuen Erakundea). |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 2IE. 13P. Justizia eta Adingabeak Programa eta 15P. Justizia eta Adinekoak Programa. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2022ko maiatza | 2025eko abendua |

### 7.3.3. 3IE. JUSTIZIA PERTSON(ET)AN

| | |
|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | **3IE. Justizia pertson(et)an** |
| **PROGRAMA** | **Profesional baloratuak eta motibatuak** |
| **PROIEKTUA** | **18P. Kolektiboentzako harrera-planak** |
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEko Justizia Administrazioan lan egiten duten kolektibo guztientzako harrera-plan espezifikoak planifikatzea eta garatzea, haien ezaugarri eta beharrizan desberdinak kontuan hartuta; horrela, lanpostuan hasten direnean edo Justizia Administrazio honekiko harremana hastean, justizia-jauregietako jarduerari eta lan-tresnei buruzko ezagutza-oinarri komuna izango dute. |
| HELBURUAK | 1. Pertsonak beren lanpostuetan errazago integratu daitezen lortzea, behar bezalako harrera jaso dutela eta hobeto informatuta eta motibatuta daudela senti daitezen.<br>2. Langileak motibatzea Justizia Administrazioak EAEn egiten dituen jardueretan; zerbitzu publikoa ematean haien parte-hartzea sustatzea eta konfiantzazko eta konpromisozko espazio bat sortzea.<br>3. Lanpostura egokitzea, esleitutako funtzioak eta zereginak ahalik eta azkarren eta modu eraginkorrenean garatu ahal izateko.<br>4. Langile berrien informazio-beharrei erantzun sistematizatua emateko tresna eguneratua izatea. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Justizia Administrazioa osatzen duten kolektiboetako pertsonak lanpostuan sartzean gaur egun dauden gabeziei buruzko diagnostikoa egitea.<br>2. KILeko langile, lan-kontratudun langile eta AMEIko langileentzako harrera-eskuliburu bat egitea, antzemandako gabeziak arintzeko behar den informazio guztia barne hartuta.<br>3. Langile horientzako harrera-prozedura batgaratzea (erabiltzen den tresnetako bat izango da eskuliburua).<br>4. EAEko Auzitegi Nagusiarekin, Fiskaltza Nagusiarekin eta Gobernu Idazkaritzarekin elkarlanean aritzea, epaileen, fiskalen eta JALen kolektiboentzako harrera-eskuliburua eta harrera-protokoloa egiten.<br>5. Justiziarekin lankidetzan aritzeko zerbitzuak esleituta dituzten hirugarren sektoreko erakundeei eskatzea zerbitzu horietan lan egiten duten pertsonentzako harrera-prozedura eta -eskuliburua izan eta aplika ditzatela.<br>6. Diseinatutako harrera-prozedurak sistematikoki aplikatzea.<br>7. Harrera-planak aldian-aldian eguneratzea.<br>8. Harrera Planean parte hartu duten pertsonen gogobetetasun-maila baloratzea. |
| ADIERAZLEAK | • KILeko langile, lan-kontratudun langile eta AMEIko langileentzako harrera-eskuliburua, eginda (2023ko 1. hiruh.)<br>• Langile horientzako harrera-prozedura, eginda (2023ko 1. hiruh.)<br>• Planaren hartzaile diren pertsonek emandako batez besteko balioespen-maila (3,5etik gora, gehienez 5) |
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Administrazioko Zuzendaritza, Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza eta Justizia Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | AMEI, EAEJAN, fiskaltza nagusia, gobernu-idazkaria, lankidetza-zerbitzuak esleituta dituzten hirugarren sektoreko erakundeak. |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | JDP 2021-2026, 14P. Harrera digitaleko plana (2023ko urtarrila-abendua). |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2023ko urtarrila | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 3IE. Justizia pertson(et)an |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Profesional baloratuak eta motibatuak** |
| **PROIEKTUA** | **19P. Transferitutako langileen lan-baldintzak hobetzea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Kolektibo transferituetako pertsonek lan-baldintzak hobetzea zerbitzu hobea emateko. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Justizia Administrazioko pertsonek lan-ingurunean dituzten premiei erantzuten zaiela sentitzea, eta beren lan-baldintzei buruzko irudi positiboa izatea.<br>2. Justizia Administrazioko pertsonak beren lanean inplikatzea eta gogobetetasun handiagoa lortzea, baita lan-giroak hobera egitea ere.<br>3. Pertsonen inplikazio handiagoak herritarrei eta erakunde erabiltzaileei ematen zaien justiziaren zerbitzu publikoa hobetzen laguntzen du. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Justizia Administrazioko langileen lan-baldintzen egoerari buruzko azterketa konparatiboak egitea, Justizia Ministerioan eta eskumenak eskualdatuta dituzten beste autonomia-erkidego batzuetan.<br>2. Transferitutako kolektiboen beharrizanak eta igurikimenak aztertzea.<br>3. Transferitutako justiziako langileen baldintzak administrazio orokorreko langileek dituztenekin homologatzeko prozesua aztertzea eta, hala badagokio, egitea.<br>4. Lana mugikortasunean egiteko baldintzak zehaztea eta arautzea.<br>5. Justizia Administrazioko langileen beste lan-baldintza batzuk, hobetuko direnak, zehaztea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Egoeraren gaineko konparazio-azterketa, eginda (2023ko 3. hiruh.)<br>• Mugikortasuneko lanaren erregulazioa (2024ko 2. hiruh.) |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Administrazioko Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Sektoreko ordezkaritasun nagusiko sindikatuak. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 3IE. 18P Kolektiboentzako harrera-planak, 20P. JAHNPO 2023-2033 berria, 21P. EAEko Justizia Administrazioko Berdintasun Plana eta 22P. Prestakuntza-planak egitea eta garatzea. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2023ko urtarrila | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 3IE. Justizia pertson(et)an |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Profesional baloratuak eta motibatuak** |
| **PROIEKTUA** | **20P. JAHNPO 2023-2033 berria** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEko Justizia Administraziorako hizkuntza normalizatzeko 2023-2033 aldirako plan berria diseinatzea eta garatzen hastea |
| HELBURUAK | 1. Herritarren hizkuntza-eskubideen erabilera bermatzea eta bultzatzea.<br>2. Euskara eremu judizialean ikusaraztea eta haren garrantzia handitzea.<br>3. Herritarrek eta profesionalek euskarazko zerbitzuak erabil ditzaten sustatzea.<br>4. Justizia Administrazioaren zerbitzupeko langileen eta profesionalen sentsibilizazioa eta inplikazioa euskararen erabilerari dagokionez.<br>5. EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzupeko langileen euskararen erabilera eta ezagutza areagotzea eta hobetzea.<br>6. Euskara juridikoa eta judiziala normalizatzea eta hedatzea.<br>7. Agirietan euskara gehiago eta hobeto erabiltzea.<br>8. Lankidetza eta koordinazioa operadore juridikoen kolektiboekin, Justizia Administrazioan euskararen erabilera areagotzeko eta hobetzeko neurriak adosteko eta praktikan jartzeko. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Hizkuntza Normalizatzeko 2023-2033 aldirako Plan Orokor berria egitea, jarduera nagusiak eta amaitu berri denaren azken ebaluazioa berraztertuta. Bere gobernantza-sistema eta jarraipen-txostenen sistema ezartzea, baita tarteko ebaluazioa egiteko unea ere (2028).<br>2. Erreferentzia gisa, honako jarduera hauek ezarri dira:<br>• Hizkuntza-eskubideak baliatzeari eta errespetatzeari buruz kontzientziatzea.<br>• Proaktiboak izatea eta euskarazko zerbitzuen eskaintza areagotzea.<br>• Hizkuntza-paisaia normalizatzea.<br>• Herritarrek Justizia Administrazioarekin aktiboki eta pasiboki beren aukerako hizkuntza koofizialean komunikatzeko aukera izatea.<br>• Justizia Administrazioko langileentzako euskara-ikastaroak antolatzea eta kudeatzea.<br>• Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdiak kudeatzea.<br>• Izapidetze elebiduna bultzatzea eta hobetzea.<br>• Euskarazko dokumentu-corpusa hobetzea eta handitzea.<br>• Lankidetza-hitzarmenak negoziatzea eta, hala badagokio, sinatzea.<br>• Operadore juridikoen kolektiboen koordinazio-eremua aktibatzea eta indartzea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | JAHNPO 2023-2033ak adierazleen panel propioa izango du. Erreferentzia gisa, honako hauek jaso ahal izango dira:<br>• Euskara-ikastaroetan parte hartu dutenetatik ebaluazio positiboa zenbatek izan duten (% 80tik gora).<br>• Egiaztapen-probetan parte hartzen dutenetatik hizkuntza-eskakizuna zenbatek egiaztatzen duten (% 60tik gora).<br>• Itzulpen kopurua, interpretazio-saioen kopurua eta erantzundako kontsulten kopurua.<br>• Justizia Administrazioan urtean erabilitako dokumentu elebidunen kopurua.<br>• Zenbat hitzarmen sinatu diren. |
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Administrazioko Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | EHAA, HABE, EHU, Deustuko Unibertsitatea, EAEJAN, Fiskaltza Nagusia, Gobernu-idazkaria, abokatuak, prokuradoreak, lan-harremanetako gradudunak. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | JDP 2021-2026, 19P. Itzultzaile neuronal judiziala. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2022ko ekaina | 2032ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 3IE. Justizia pertson(et)an |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Profesional baloratuak eta motibatuak** |
| **PROIEKTUA** | **21P. EAEko Justizia Administrazioko Berdintasun Plana** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | 2022-2025 aldirako Berdintasunerako Plana diseinatu, egituratu eta garatzea, egoeraren diagnostikoa egin ondoren. Langileen ordezkariekin negoziatuko da. Plan horrek, funtsean, EAEko Justizia Administrazioko funtzionarioei eragiten dieten genero-desberdintasunak prebenitzea eta/edo murriztea ahalbidetuko du, eta, horrez gain, EAEko Justizia Administrazioa emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko konpromiso-eredutzat hartzea ahalbidetuko du, bere jardun-eremuan. |
| HELBURUAK | 1. Egoera egokia sortzea, EAEko Justizia Administrazioak emakumeen eta gizonen berdintasunarekin duen konpromisoa gauzatzeko eta ikusarazteko.<br>2. Langileen prestakuntza eta sentsibilizazioa gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunaren arloan.<br>3. Norberaren bizitza, familia eta lana uztartzeari buruz langileek duten pertzepzioaren ezagutzan sakontzea, horretarako dauden neurriak egokitzeko eta/edo hobetzeko.<br>4. Epaitegietara iristen diren indarkeria matxistako kasuetan, ezagutza eta, ondorioz, biktimei ematen zaien arreta hobetzea.<br>5. EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzupeko langileen barruko eremuan sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena deuseztatzea edo, halakorik ezean, gutxitzea.<br>6. EAEko Justizia Administrazioak sortutako dokumentuetan eta askotariko komunikazioetan hizkuntza ez-sexistaren erabilera sustatzea.<br>*7. Justiziaren zerbitzu publikoan emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasuna bermatzea eta sexuan oinarritutako diskriminazio zuzenak eta zeharkakoak desagerraraztea. (BEK)*<br>*8. Benetako berdintasunerantz aurrera egiteko neurriak garatzea. (BEK)*<br>9. *Genero-zeharkakotasuna aplikatzea justiziaren zerbitzu publikoan. (BEK)* |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Berdintasunaren arloko egoeraren diagnostikoa egitea EAEko Justizia Administrazioko emakumeen eta gizonen artean, informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa bilduz, indarguneak eta hobetzeko arloak identifikatuz eta txosten diagnostikoa eginez.<br>2. Indarguneen sistematizazioa eta identifikatutako hobetu beharreko puntuen ebazpenean aurrera egitea lantzeko neurrien eta ekintzen egitura sortzea eta definitzea, arduradunak eta beharrezko baliabideak zehaztuta. EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzupeko funtzionarioen berdintasunerako II. Plana egitea.<br>3. Zehaztutako neurriei ekiteko jarduera zehatzak garatzea eta praktikan jartzea. |
| ADIERAZLEAK | • Diagnostikoaren txostena, eginda (2021eko 4. hiruh.).<br>• II. EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzupeko funtzionarioen berdintasunerako plana 2022-2025, idatzia (2022ko 2. hiruh.).<br>• Aurreikusitako ekintzen gauzatze-mailaren %-a, urte bakoitzeko planifikatuen aldean (% 65etik gora)<br>• EAEko Justizia Administrazioko funtzionarioek Plana 2025eko abenduan amaitu ondoren eginiko ebaluazioan emandako batez besteko balorazio-maila (3,5tik gora, gehienez 5) |
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Administrazioko Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila eta Berdintasunerako II. Plana egiteko Batzorde Negoziatzailea eta BEKaren Jarraipen Batzordea. |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Administrazio Orokorreko eta EAEko erakunde autonomoetako berdintasun-plana (Justizia Administrazioko lan-kontratupeko langileak daude han), Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko berdintasun-plana, EAEko VII. Berdintasun Plana eta Garapen Jasangarrirako Helburuak. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2021 | 2026 |

| | |
|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | **3IE. Justizia pertson(et)an** |
| **PROGRAMA** | **Profesional baloratuak eta motibatuak** |
| **PROIEKTUA** | **22P. Prestakuntza-planak egitea eta garatzea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEko Justizia Administrazioarekin lan egiten duten kolektibo guztientzako hasierako eta etengabeko prestakuntza-sistema espezializatua eta kalitatezkoa planifikatzea, egituratzea eta garatzea, bakoitzaren ezaugarriak eta mendekotasunak kontuan hartuta. Prestakuntza hori aurrez aurrekoa izango da, baina, horrez gain, prestakuntza-tresna telematikoez ere baliatuko da, eta ikasitakoa praktikan jartzea bultzatzen duten prestakuntza- eta ekintza-sistemak lehenetsiko ditu. |
| HELBURUAK | 1. Prestakuntza langileen motibazioaren elementu nagusitzat eta bereizgarritzat hartzea.<br>2. Kudeaketako, izapidetzeko, laguntzako eta auzitegi-medikuntzako kidegoetan lan egiten duten pertsonen eta lan-kontratupeko langileen funtsezko ezagutzak eta trebetasunak hobetzea, eginkizunak ahalik eta arreta eta eraginkortasun handienaz bete ahal izan ditzaten.<br>3. Lankidetza BJKN-Eskola Judizialarekin eta JM-EFN-IJZarekin, epaileei, fiskalei, JALei eta auzitegi-medikuei eskainitako prestakuntzan jardun koordinatua eta osagarria sustatzeko.<br>4. Abokatuen, prokuradoreen eta lan-harremanetako gradudunen elkargo profesionalekin elkarlanean aritzea, kolektibo horietako pertsonen prestakuntza hobetzeko. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. EAEko Justizia Administrazioko langileen prestakuntza-beharrizanei buruzko diagnostikoa egitea.<br>2. EAEko destinoa duten epaile, fiskal eta JALeentzako prestakuntza-beharrizan osagarrien diagnostikoa egitea.<br>3. EAEko Justizia Administrazioko langileentzako Prestakuntza Plana egitea.<br>4. BJKN-EJ eta JM-EFN-IJZ erakundeekin hitzarmenak negoziatzea eta, hala badagokio, sinatzea.<br>5. Epaile, fiskal eta JALentzako Prestakuntza Osagarriko Plana prestatzea.<br>6. Abokatuen, prokuradoreen eta lan-harremanetako gradudunen elkargo profesionalekin hitzarmenak negoziatzea eta, hala badagokio, sinatzea.<br>7. EAEko Justizia Administrazioko langileentzako prestakuntza-planaren garapena kudeatzea.<br>8. Epaile, fiskal eta JALentzako Prestakuntza Osagarriko Planaren garapena kudeatzea. |
| ADIERAZLEAK | • EAEko Justizia Administrazioko langileentzako prestakuntza-plana, eginda (2023ko 2. hiruh.).<br>• Epaile, fiskal eta JALentzako Prestakuntza Osagarriko Plana (2024ko 1. hiruh.).<br>• Prestakuntzako ikastaro edo jardueretan parte hartutako JAko langileek emandako batez besteko balorazio-maila (3,5etik gora, gehienez 5).<br>• Prestakuntzako ikastaro edo jarduera osagarrietan parte hartzen duten epaileek, fiskalek eta JAko letraduek emandako batez besteko balorazio-maila (3,5etik gora, gehienez 5).<br>• Prestakuntza-ekintza egiten dutenetatik ebaluazio positiboarekin zenbatek (%) amaitzen duten (% 80tik gora). |
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Administrazioko Zuzendaritza eta Justizia Zuzendaritza. EAEJAN, BJKN-Eskola Judiziala, Fiskaltza Nagusia, Gobernu-idazkaria, Justizia Ministerioa eta EFN-IKZ, bakoitzaren kolektiboei dagokien prestakuntza osagarrian. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | HAEE. |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | JDP 2021-2026, 15P Online eta aurrez aurreko prestakuntza (2023ko apirila - 2025eko martxoa); eta 3I. 18P. Kolektiboen Harrera Planak eta 23P. Prestakuntza-beken programaren bilakaera. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2022ko urtarrila | 2028ko abendua |

| | |
|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | **3IE. Justizia pertson(et)an** |
| **PROGRAMA** | **Profesional baloratuak eta motibatuak** |
| **PROIEKTUA** | **23P. Prestakuntza-beken programaren bilakaera** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Dirulaguntzen programa hau berriz pentsatu eta formulatu beharra dago; batetik, programa izapidetu ahala pilatutako esperientziagatik –duela 30 urte sortu zen–, eta bestetik, hura ezartzea ekarri zuten arrazoietan izandako aldaketen ondorioz. |
| HELBURUAK | 1. EAEko organo judizialentzako zerbitzuaren egonkortasuna hobetzea.<br>2. Zuzenbideko karreratik irtendako pertsonak motibatzea profesionalki karrera judizial eta fiskalera eta Justizia Administrazioko Letraduen Kidegora orientatu daitezen.<br>3. EAEko herritarrak karrera eta kidego horietan sar daitezen sustatzea, etorkizunean EAEn jardun ahal izan dezaten.<br>4. Euskaraz dakiten pertsona gehiagok karrera eta kidego horietan sartzeko eta etorkizunean EAEn euskaraz jardun ahal izateko kondizioak sortzea.<br>5. EAEko Justiziaren zerbitzu publikoaren kalitatea hobetzea, herritarrek Justizia Administrazioarekin duten gogobetetasun-maila eta harekiko konfiantza-maila handitzeko. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Egoeraren azterketa egitea:<br>• Aztertzea laguntza horiek ezartzea zer arrazoik eragin zuten, laguntzek antolamendu judizialean zer-nolako eragina duten, bai eta eskatzaileen familia-, ekonomia- eta ikasketa-egoeren problematikari erantzuteko urtero egindako deialdietan zer aldaketa egin diren.<br>• Aurreko deialdietako datuak bildu, aztertu eta ebaluatzea, eta<br>• Diagnostiko bat egitea.<br>2. Etorkizuneko deialdietan ezarri beharreko aldaketen proposamen bat egin behar den aztertzea.<br>3. Deialdi-agindu berri bat proposatu, egin eta izapidetzea.<br>4. Lau urtean behin ebaluatzea emaitzak helburuekin bat datozen. |
| ADIERAZLEAK | • Egoeraren azterketa (2023ko 1. hiruh.)<br>• Deialdiaren eredu berria (2023ko 4. hiruh.)<br>• Eskatzaileen kopurua.<br>• Oposizioa gainditu duten onuradunen %-a (% 60tik gora) |
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Administrazioko Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | EAEko Auzitegi Nagusia, Fiskaltza Nagusia, Gobernu-idazkaritza, UPV/EHU eta Deustuko Unibertsitatea. |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 3IE. 22P. Prestakuntza-planak egitea eta garatzea. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2022ko ekaina | 2028ko abendua |

| | |
|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | **3IE. Justizia pertson(et)an** |
| **PROGRAMA** | **Justizia osasungarriagoa eta seguruagoa** |
| **PROIEKTUA** | **24P. Transferitutako kolektiboentzako Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEko Justizia Administrazioaren laneko arriskuen prebentziorako plana eguneratzea eta garatzea, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, laneko arriskuen prebentzioa administrazio horren kudeaketa-sistema orokorrean integratzen laguntzeko, bai bere jardueretan, bai hierarkia-mailetan. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. EAEko Justizia Administrazioko langileen osasuna babestea, haien lanaren ondoriozko arriskuak prebenituz.<br>2. Beharrezko bermeen eta erantzukizunen oinarrizko arautegia finkatzea, lan-baldintzek eratorritako arriskuen aurka, langileen osasuna maila egokian babes dadin. Gainera, xede hori bat etorri behar da lan-arriskuak prebenitzeko politika koherente, koordinatu eta eragingarriarekin.<br>3. Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea betetzea.<br>4. Justizia Administrazioaren Laneko Segurtasunaren Eskema Komuna betetzea.<br>5. Prebentzioa EAEko justizia-administrazioaren kudeaketan integratzea. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Gaur egungo prebentzio-plana berrikusi eta eguneratzea. Plan berriak prebentzio-ekintza gauzatzeko beharrezkoak diren antolamendu-egitura, erantzukizunak, funtzioak, praktikak, prozedurak, prozesuak eta baliabideak jaso beharko ditu.<br>2. Hierarkia-maila guztien prebentzio-erantzukizunak eta -funtzioak definitzea.<br>3. Prebentzio-ekintza garatzeko jarraitu beharreko prozedurak zehaztea.<br>4. Prebentzio-plana garatzea eta ezartzea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Prebentzio-planaren bertsio berria (2023ko 3. hiruh.)<br>• Plana hedatzeko zenbat ekintza egin diren.<br>• Aurreikusitako ekintzen gauzatze-mailaren %-a, urte bakoitzeko planifikatuen aldean (% 70etik gora)<br>• Segurtasun eta Osasun Batzordean dagozkien maila hierarkikoek parte hartzea (BAI/EZ) |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Administrazioko Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza, Justizia Zuzendaritza, Justizia Administrazioko Prebentzioko ordezkariak. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 3I. 25P. BJKN eta JMarekin batera jarduteko protokoloa eta 26P. Larrialdi eta Ebakuazio Plan eguneratuak. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2022ko ekaina | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 3IE. Justizia pertson(et)an |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Justizia osasungarriagoa eta seguruagoa** |
| **PROIEKTUA** | **25P. BJKNarekin eta JMarekin batera jarduteko protokoloa** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Justizia Administrazioaren Laneko Segurtasunaren Eskema Komuna (LSE) garatzea, estatu osorako diseinatua, Justizia Ministerioarekin, BJKNarekin, Fiskaltza Nagusiarekin eta autonomia-erkidegoekin lankidetzan, araudia administrazio horren antolaketa-testuingurura egokitzeko eta honako hau lortzeko: parte hartzen duten administrazioetan prebentzioa integratzea, dauden prebentzio-baliabideak indartzea eta laneko arriskuak gutxitzea. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Dauden lan-arriskuak murriztea.<br>2. Prebentzio-araudiaren aplikazioa Justizia Administrazioaren antolamendu-testuingurura egokitzea.<br>3. Justizia Administrazioko erantzukizun-eremuak koordinatzea.<br>4. Prebentzio-jarduera orokorra inplikatutako administrazioen jarduera espezifikoarekin integratzea. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Esku hartzen duten administrazio guztiei eragiten dieten prebentzio-neurriak hartzea.<br>2. Koordinazio-bitarteko egokiak ezartzea.<br>3. Administrazioetan prebentzio-planak ezartzea.<br>4. Lankidetza-organoak abian jartzea, parte-hartzea eta ordezkaritza ahalbidetzeko.<br>5. Administrazio horietako langileei informazioa ematea eta prebentzio-prestakuntza ematea.<br>6. Erakunde zientifiko tekniko espezializatu batek aldian behin kanpoko kontrol bat egin dezan agintzea; erakunde horrek prebentzio-sistemaren kanpo-ebaluazioaren txostena egingo du. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Inplikatutako prebentzio-zerbitzuen arteko koordinazio-bileren eta baterako beste bilera batzuen kopurua.<br>• Prebentzio-jardueren koordinatzailea izendatzea (2023ko 1. hiruh.)<br>• Prebentzio-sistemaren kanpo-ebaluazioaren txostena (BAI/EZ) |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Administrazioko Zuzendaritza, Justizia Ministerioa, BJKNa, Fiskaltza Nagusia, justiziaren arloko eskumenak transferituak dituzten beste autonomia-erkidego batzuk. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | LSEaren jarraipen-taldea; BJKNko, EGFko eta Justizia Ministerioko batzorde mistoa; Karrera Judizialeko Arriskuen Prebentzioko Atala; Justizia Ministerioko Laneko Arriskuen Koordinaziorako Unitatea, Justizia Administrazioko Zuzendaritzaren Prebentzio Zerbitzua. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 3I. 24P. Transferitutako kolektiboentzako Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana eta 26P. Larrialdi eta Ebakuazio Plan eguneratuak. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2022ko ekaina | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 3IE. Justizia pertson(et)an |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Justizia osasungarriagoa eta seguruagoa** |
| **PROIEKTUA** | **26P. Larrialdi eta Ebakuazio Plan eguneratuak** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEko justizia-jauregiei dagozkien larrialdi- eta ebakuazio-planak eguneratzea, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 20. artikulua betetzen laguntzeko, hau da, lehen sorospenen, suteen aurkako borrokaren eta langileen ebakuazioaren arloan behar diren neurriak hartzeko. Horretarako, neurri horiek praktikan jartzeaz arduratuko diren pertsonak izendatuko dira, eta aldian-aldian egiaztatuko da behar bezala funtzionatzen duten. |
| HELBURUAK | 1. EAEko Justizia Administrazioko langileen osasuna babestea, haien lanaren ondoriozko arriskuak prebenituz.<br>2. Egoera horiei aurre egiteko larrialdi- eta ebakuazio-planak eta antolamendua eguneratzea.<br>3. Larrialdietan eta ebakuazioetan funtzioak dituzten lanpostuetako langile guztiei prestakuntza ematea.<br>4. Larrialdi- eta ebakuazio-planen funtzionamendua eta antolamendua ebaluatzea, eta antzemandako akatsak zuzentzea. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Informazioa biltzeko eta larrialdi- eta ebakuazio-planak etengabe eguneratzeko sistematika ezartzea.<br>2. Lanpostuen zerrendak ezartzeko orduan BJKNaren eta Justizia Ministerioaren lankidetza lortzea (dela horietako bat izanik, dela horiek zehazten lagunduz), Justizia Administrazioaren Laneko Segurtasunaren Eskema Komunak ematen dituen tresnen laguntzarekin.<br>3. EAEko justizia-jauregi guztietako lanpostu-zerrendak osatzea, larrialdietan eta ebakuazioetan funtzioak dituzten lan-eremuen arabera, eta zehaztea zer lanpostutan berau betetzen duenak larrialdi- eta ebakuazio-egoeretan lankidetza-eginkizunak bere gain hartu beharko dituen.<br>4. Zehaztutako lanpostu horiek betetzen dituzten langileei lehen sorospenen eta larrialdi-egoeren prestakuntza ematea, bai eta horietan alta emandakoei ere.<br>5. Jauregietan, aldian behin simulakroak egitea.<br>6. Egindako simulakroen emaitzei eta gorabeherei buruzko txostenak egitea.<br>7. Txosten horietan antzemandako gorabeherak edo hobetu beharrekoak zuzentzeko neurriak hartzea. |
| ADIERAZLEAK | • Larrialdi- eta ebakuazio-plan eguneratuak dituzten jauregien kopurua.<br>• Jauregietan aldizkako simulazioak egitea (urtean justizia-jauregi bakoitzeko egindako simulakro kopurua, urteko simulakro kopurua EAEn).<br>• Simulakroen ondorioz antzemandako gabezien kopurua.<br>• Beren eginkizunetarako berariaz prestatutako zerrenda horietako lanpostuen %-a (% 70etik gora). |
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Administrazioko Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | BJKNa, Justizia Ministerioa, Karrera Judizialeko Arriskuen Prebentzioko Atala, Justizia Ministerioko Laneko Arriskuak Koordinatzeko Unitatea, Prebentzioko ordezkari judizialak, idazkari koordinatzaileak |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 3I. 24P. Transferitutako kolektiboentzako Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana eta 25P. BJKNarekin eta JMarekin batera jarduteko protokoloa. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2022ko ekaina | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 3IE. Justizia pertson(et)an |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Kudeaketaren hobekuntza** |
| **PROIEKTUA** | **27P. Ikuskapen Koordinatuen Plana** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Botere eta administrazio eskudunen arteko koordinazio-mekanismoak antolatzea, EAEn Justiziaren zerbitzu publikoa hobeto emateko –haren funtzionamendua behar bezala kontrolatuz–, jarduketen gainjartzeak eta bikoiztasunak saihesteko, eta giza baliabideen beharrezko esleipena eta baliabide materialen hornidura zentzuz kudeatzeko. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Ikuskapen-sistemen arteko koordinazioa.<br>2. Oro har, kalitatezko eta estaldura handiagoko ikuskaritza-jarduera garatzea, Justizia Administrazioak gaur egun dituen antolaketa-ereduen ezaugarrietara egokituta. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Justizia Ministerioak eta Estatuko Fiskaltza Nagusiak hitzarmen bat negoziatzea eta, hala badagokio, sinatzea, ikuskapen koordinatuen planaren proiektu pilotu bat garatzeko.<br>2. Ikuskapen-sistema bakoitzaren ikuskapen-jarduera eta eremu objektiboa zehaztea (BJKN-EAEJAN, Justizia Ministerioa – Gobernuaren idazkaria – Idazkari koordinatzaileak, Estatuko Fiskaltza Nagusia – Fiskaltza Nagusia – Probintziako fiskalburua eta Justizia Sailburuordetza).<br>3. Ikuskapen-sistema bakoitzaren eremu objektiboa finkatzen duten esku-hartze irizpideak definitzea eta onartzea.<br>4. Ikuskapen-jarduera modu osagarrian programatzea eta planifikatzea, eta, hala badagokio, egun berean.<br>5. Beste administrazio bati eragiten dioten edo beste administrazio batek ebatzi beharreko txostenaren ondorio nagusiak helaraztea. |
| ADIERAZLEAK | • Hitzarmena, sinatuta (2025eko 4. hiruh.)<br>• Egindako ikuskapen osagarrien kopurua |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, BJKNa, Justizia Ministerioa eta Estatuko Fiskaltza Nagusia |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | EAEko Auzitegi Nagusia, gobernu-idazkaria, fiskal nagusia, idazkari koordinatzaileak, fiskalburu probintzialak, Justizia Administrazioko Zuzendaritza, Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 10IE. 68P. Justiziaren inguruko artikulazio instituzionala hobetzea. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Txikia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2025eko urtarrila | 2028ko abendua |

| | |
|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | **3IE. Justizia pertson(et)an** |
| **PROGRAMA** | **Kudeaketaren hobekuntza** |
| **PROIEKTUA** | **28P. Hautagaien kudeaketa hobetzea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Hautagaien kudeaketa-sistema hobetzea, irizpide zehatzak eta prozedura bat ezarriz EAEko Justizia Administrazioko organoetan sortzen diren langile-beharrak bitarteko funtzionarioak izendatuz bete daitezen, eta hori behar bezain azkar eta arin egitea, eta funtzio publikorako sarbidea zuzentzen duten berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioetan oinarrituta. |
| HELBURUAK | 1. EAEko Justizia Administrazioko organoetan bitarteko funtzionario izateko hautagaien kudeaketa-sistema hobetzea.<br>2. Prozeduraren arintasuna eta azkartasuna hobetzea.<br>3. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren organo, zerbitzu edo unitateetan sortzen diren langile-beharrak estaltzeko irizpideak ezartzea, funtzionario titularrek edota bitarteko funtzionarioek bete gabeko lanpostu hutsak karrerako funtzionarioek aldi batez bete ditzaten.<br>4. Honako hauek arautzea: aldi baterako zerbitzuak beteko dituzten langileen hautapena, zerbitzu horiek emateko hautagaien zerrendak egitea eta kudeatzea, eta hautatutako pertsonen izendapena edo kontratazioa. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko lanpostuak aldi baterako betetzeko prozedura arautzen duen agindua egitea. Justizia Administrazioko organo, zerbitzu edo unitateetan lanpostuak zerbitzu-eginkizunen, behin-behineko atxikipenaren eta ordezkapen bertikalaren prozeduren bidez aldi baterako betetzeko modua arautzea.<br>2. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzupeko langileen aldi baterako beharrak estaltzeko hautagaien zerrenden kudeaketaren gaineko arautegia onartzeko agindua egitea.<br>3. Prozedura bakoitzaren definizio hobea ezartzea, bete beharreko lanpostuen tipologiaren arabera.<br>4. Hautagaiei protagonismo handiagoa ematea:<br>• Zer eskaintza jaso nahi duten zehazteko, edozein unetan baldintzak aldatzeko ahalmena izanik.<br>• Jasotzen dituzten lan-eskaintzei dagokienez, horiek baztertzeko eskubidea izango baitute, justifikatu beharrik gabe.<br>• Hala bitarteko langileren izendapenari nola lan-eskaintzari uko egiteko aukerari dagokionez, horrek zerrendetatik baztertzea ekarri gabe, lanerako prestasunik gabeko egoerara –18 hilabete baino gehiago luzatuko ez den epealdi batez–, igarotzea baizik.<br>• Izendapena hobetzeko aukerari dagokionez.<br>5. Komunikazio elektronikoa ezartzea hautagaiekin komunikatzeko bitarteko nagusi gisa. |
| ADIERAZLEAK | • Aldi baterako beharrizanei erantzuteko hautagaien zerrendak kudeatzeari buruzko araudia onartzen duen Agindua (2021eko 1. hiruh.)<br>• Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko lanpostuak aldi baterako betetzeko prozedura arautzen duen agindua (2022ko 4. hiruh.) |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Administrazioko Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Idazkari koordinatzaileak. |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2021eko urtarrila | 2028ko abendua |

### 7.3.4. 4IE. JUSTIZIA EGOITZA JASANGARRIETAN

| ILDO ESTRATEGIKOA | 4IE. Justizia egoitza jasangarrietan |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Egoitza Judizial Jasangarrien Plana 2022-2030** |
| **PROIEKTUA** | **29P. Abian diren proiektuak amaitzea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Planifikatutako eta aurrekontuan sartutako proiektuak amaitzea, baldin eta, gaur egun, gauzatzen ari badira edo hasteko kontratu-izapideren bat egiteke badago. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Azken urteetako plangintza betetzea obra berriko, birgaitzeko edo egokitzeko proiektuei dagokienez.<br>2. Planteatzen joan diren premia larrienei erantzutea: COVIDaren pandemiaren ondoriozko premia berriei erantzutea, epaitegi berriei arreta ematea, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiak egokitzea, akats funtzionalak zuzentzea, etab. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegietan egokitzapenak amaitzea. Emakumeen indarkeriaren arloko Bilboko 1 eta 2 zenbakiko epaitegiak.<br>2. Henaoko eraikineko lanak amaitzea.<br>3. Henaoko eraikina altzariz hornitzea eta martxan jartzea, dagozkion lekualdaketak eginda.<br>4. Justizia-jauregien inguruan erositako edo alokatutako lokaletan justiziarekiko lankidetza-zerbitzuetarako espazioak egokitzea eta altzariz hornitzea.<br>5. Hala badagokio, AMEIrako eremu bat egokitzea Bilboko Justizia Jauregiaren ondoko toki batean. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko Bilboko epaitegiak, egokituta (2023ko 1. hiruh.).<br>• Henaoko obra, amaituta (2023ko 3. hiruh.).<br>• Henaoko eraikina, altzariz hornituta eta jardunean (2023ko 4. hiruh.).<br>• Gasteizen justiziarekin lankidetzan aritzeko lokala egokitzea (2022ko 4. hiruh.). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza eta Zerbitzu Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | EAEko Auzitegi Nagusia, Fiskaltza Nagusia, Gobernu Idazkaritza, Langileen Batzordea, AMEI. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 4IEaren gainerako proiektuak. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2022ko urtarrila | 2023ko abendua |

| | |
|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | **4IE. Justizia egoitza jasangarrietan** |
| **PROGRAMA** | **Egoitza Judizial Jasangarrien Plana 2022-2030** |
| **PROIEKTUA** | **30P. Eremu gehiago** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Espaziorik eza eta egungo funtzionaltasunak hobetu beharra konpontzea. Ildo horretan, premiaz erantzun behar zaie behar hauei: Bilboko barruti judizialeko beharrak; hiru hiriburuetako justizia-jauregien ondoan justiziarekiko lankidetza-zerbitzuak hartzeko espazioak gaitzeko beharrak, eta AMEIko laborategiak lekualdatzeko aukera ebaluatzea. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Egungo eraikinetatik ahalik eta gertuen dauden lekuetan espazioak eskuratzea, Bilboko barruti judizialeko beharrei erantzuteko.<br>2. Hiriburuetako barruti judizialetako egungo eraikinetatik ahalik eta gertuen espazioak eskuratzea, justiziarekiko lankidetza-zerbitzuak har ditzaten.<br>3. AMEI hurbileko toki batera, laborategiak hartzeko egokiagoa den batera, eramateko aukera ebaluatzea, segurtasuna hobetzeko. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Henaoko eraikinean espazioa eskuratzea<br>2. Henaoko eraikinaren ondoan garajeak eskuratzea<br>3. Henaoko espazioarentzat erabilera berri bat planteatzea, epe ertain-luzeko plangintzari egokituagoa, Bilbon berriki eskuratutakoa kontuan hartuta.<br>4. Bilboko zabalguneko Ibáñez de Bilbao 28ko eraikina (lehengo Mapfre eraikina) eskuratzea.<br>5. Aurrekontu Zuzendaritzarekin, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzarekin eta Gobernu Kontseiluarekin aurretik egindako eskuraketak izapidetzea.<br>6. Egoitza judizialetatik haien ondoan dauden kanpoko espazioetara eramateko moduko justiziarekiko lankidetza-zerbitzuen beharrak zehaztea.<br>7. Merkatua aztertzea, aukera-guneak aurkitzeko.<br>8. Pixkanaka, Kristal eraikinean eta Gasteizko eta Donostiako justizia-jauregien ondoan eremuak eskuratzea.<br>9. Bilbon eta Donostian eraikin berrien beharra aztertzea, epaitegi berriak, bulego judizial eta/edo fiskal berria, auzialdiko auzitegiak eta abarrak sortzea aurreikusita.<br>10. Eremua eskuratzea, hala badagokio, AMEI eta beste erabilera batzuetarako. |
| ADIERAZLEAK | • Bilboko zabalguneko Ibáñez de Bilbao 28ko eraikina, erosita (2021eko 4. hiruh.).<br>• 1.000 metro karratu eskuratzea Kristal eraikinean (2022ko 4. hiruh.).<br>• Donostian eta Gasteizen justiziarekin lankidetzan aritzeko zerbitzuetarako eremuak eskuratzea (2023ko 3. hiruh.). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza, Zerbitzu Zuzendaritza, Aurrekontu Zuzendaritza, eta Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Tasazio-erakundeak eta higiezinen merkatuan jarduten duten erakundeak. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 4IEaren gainerako proiektuak. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2018 | 2024ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 4IE. Justizia egoitza jasangarrietan |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Egoitza Judizial Jasangarrien Plana 2022-2030** |
| **PROIEKTUA** | **31P. Estandarrak finkatzea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Egoitza judizialak eta justiziarekiko lankidetza-zerbitzuak hartzen dituzten eraikinek bete behar dituzten estandarrak ezartzea –irisgarriak, seguruak eta efizienteak izan daitezen–, justiziaren arloko espazioetan trantsizio ekologikoa txertatzeko. |
| HELBURUAK | 1. Etorkizunean zer beharrizan funtzional egongo diren aztertzea, honako hauek direla eta: auzialdiko auzitegietako eta bulego judizialeko antolamendu-aldaketak (Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua), GEBEak gehitzea (Efizientzia Prozesalaren Legearen proiektua), eta etengabeko digitalizazio-prozesua.<br>2. Abiapuntuko estandarrak lantzea, egoitza judizialak eta justiziarekiko lankidetza-zerbitzuak hartzen dituzten eraikin berriak edo eremuen birgaitzeak planifikatu ahal izateko.<br>3. Jasangarritasun-irizpideak txertatzea, estandar horiek justizia-eraikinak irisgarriak, seguruak eta efizienteak izan daitezen lagun dezaten, energiarekin, eraikinaren ezaugarriekin eta haren erabilerarekin lotutako ikuspegiak kontuan hartuta. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Erreferentziako estandarrak egitea –obra berria, eraberritzea edo birgaitzea bereizita–, eta eremuen gehieneko eta gutxieneko moduluak zehaztea.<br>2. Jurisdikzio eta espezialitate batzuen gutxieneko premiak zehaztea, eta honako alderdi hauetan arreta berezia jarrita: EAIEak –biktimaren intimitatea; abokatuarekin lasaitasunez hitz egiteko aukera; arreta duina; tratu txarrak eman dizkionarekin edo laguntzen duten pertsonekin inolako topaketarik ez izateko bermea ahalbidetzeko–; GEBE berrietako kontziliazio-aretoak, zerbitzu komunetan espazio gardenak erabiltzea, eta intimitatea ahalbidetzen duten aretoak gehitzea.<br>3. Langileekin lotutako beste premia batzuk aurreikustea. Esate baterako, aldagelak, edoskitze-gelak, mugikortasunean lan egitearen ondorioz espazioek eboluzionatzea.<br>4. Horiek sortzen elkarlanean aritzea. |
| ADIERAZLEAK | • Inplikatutako kolektiboekin egindako bileren kopurua.<br>• Erreferentzia-estandarrak, eginda (2023ko 1. hiruh.). |
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza eta Justizia Ministerioaren eta autonomia-erkidegoen lantaldea. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Justizia Ministerioa, EAEJAN, Fiskaltza Nagusia, Gobernu Idazkaritza, AMEI, langileen ordezkariak. |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 2030 Justizia Plana; Efizientzia Prozesalaren Legearen proiektua; Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua; STEPa; Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratua (EKPNI); Klima Aldaketari Egokitzeko Plan Nazionala 2021-2030 (KAEPN); Espainiako Hiri Agenda (EHA) eta 4IEaren gainerako proiektuak. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2022ko urtarrila | 2023ko martxoa |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 4IE. Justizia egoitza jasangarrietan |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Egoitza Judizial Jasangarrien Plana 2022-2030** |
| **PROIEKTUA** | **32P. Egoitza Judizial Jasangarrien Plana 2022-2030 egitea eta garatzen hastea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Egoitza judizialak eta justiziarekiko lankidetza-zerbitzuak hartzen dituzten eraikinetan 2022-2030 aldiko beharrak planifikatzea, antolamendu- eta jarduera-aldaketa handiak ekarriko dituen arau-esparru berria kontuan hartuta; eta obra berriak, eraberritzeak edo birgaitzeak gauzatzea, funtzionalak eta jasangarriak izan daitezen. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Justiziaren zerbitzu publikoa ematearekin zerikusia duten jarduerak egiteko gaur egun eta epe ertainera dauden eremu-beharrei erantzutea.<br>2. Egoitza judizialak eta justiziarekiko lankidetza-zerbitzuak hartzen dituzten eraikinak eguneratzea eta duintzea, justiziaren kalitatezko zerbitzu publikoa emateko.<br>3. Irisgarriak, seguruak eta eraginkorrak diren justizia-eraikinak, energiarekin, eraikinaren ezaugarriekin eta erabilerarekin lotutako ikuspegiak kontuan hartuta. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Eraikin judizialen beharren eta etorkizunean izan litezkeen egoeren diagnostikoa egitea.<br>2. Plan berria egitea, erabilerak, jarduketak, epeak eta kostuak finkatuta, beharko diren altzariak, lekualdaketak, hala badagokio, eta martxan noiz jarriko den zehaztuta.<br>3. Plan honetan sartzea, hala badagokio, instalazio jasangarrien etorkizuneko jardunaren eta jarduketen diagnostikoa.<br>4. Epaileekin, fiskalekin, JALekin, AMEIarekin, langileen ordezkariekin, abokatuekin, prokuradoreekin eta lan-harremanetako gradudunekin elkarlanean aritzea, hura hobetzeko egiten dituzten ekarpenak jaso daitezen.<br>5. Plana garatu eta gauzatzea; urte anitzeko finantziazioa lortzea; obrak lizitatu eta gauzatzea; ekipamenduez eta altzariez hornitzea; behar diren lekualdaketak zehaztea, eta espazioak martxan jar daitezen erraztea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Beharrizanei buruzko diagnostikoa, eginda (2022ko 4. hiruh.).<br>• Plan berria, operadore juridikoekin gizarteratuta eta onartuta (2023ko 2. hiruh.). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza, Zerbitzu Zuzendaritza, Aurrekontu Zuzendaritza, eta Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Justizia Administrazioko Zuzendaritza, Justizia Zuzendaritza, EAEko Justizia Auzitegi Nagusia, Fiskaltza Nagusia, Gobernu Idazkaritza, AMEI, langileen ordezkariak, abokatuak, prokuradoreak eta lan-harremanetako gradudunak. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 2030 Justizia Plana; Efizientzia Prozesalaren Legearen proiektua; Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua; STEPa; 4IEaren gainerako proiektuak; eta 8IE. Justizia errestauratiboa eta gatazkak ebazteko baliabide egokiak (GEBE). |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2022ko urtarrila | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 4IE. Justizia egoitza jasangarrietan |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Instalazio jasangarriak** |
| **PROIEKTUA** | **33P. Justizia Sailburuordetzaren Energia Jarduketarako Plan Espezifikoa 2022-2030 gauzatzea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Justizia Sailburuordetzaren 2022-2030 aldirako Energia Jarduketarako Plan Espezifikoa 2021aren amaieran egin ondoren –Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legearen agindua betez–, plan hori garatu eta betearaztea EAEko eraikin judizialen jasangarritasun energetikoa hobetzeko. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Eraikin judizialen zerrendari buruzko 4/2019 Legearen betetze-maila ezagutzea.<br>2. Planaren indarraldian aurrezpen eta efizientzia energetikoko neurriak bultzatzeko eta energia berriztagarriak sustatzeko eta ezartzeko jardueren aurreikuspena. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. BMS sistema (kontsumoen kontrol zentralizatua) ezartzen amaitzea.<br>2. Energia-kontsumoak monitorizatu eta kudeatzea.<br>3. Eraikin judizialen auditoretza energetikoak 2023. urtean eguneratzea.<br>4. Girotzeko instalazioak berritzen jarraitzea.<br>5. LED teknologia bidezko argiztapena pixkanaka berritzen jarraitzea.<br>6. Energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazio fotovoltaikoak egitea.<br>7. Horrekin lotutako beste jarduketa batzuk egitea; 2022-2030 aldirako egoitza judizial jasangarrien planean jasoko dira (eraikin judizialen inguratzailea ordeztea, kanpoko zurajeak ordeztea, beirak ordeztea, etab.).<br>8. 100 pertsona baino gehiagoko lantokietan mugikortasun-planak egitea<br>9. Sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak egitea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Auditorien eguneratzea, eginda (2024ko 1. hiruh.)<br>• BMS sistema, erabat ezarrita eta jardunean (2024ko 2. hiruh.)<br>• 8 eraikin judizialen energia-ziurtagiriak hobetzea, auditoria berrien arabera (2024ko 2. hiruh.).<br>• 2 mugikortasun-plan, eginda eta gauzatzen (2025eko 3. hiruh.).<br>• 2025eko 4. hiruhilekoan zenbat sentsibilizazio-ekintza egin diren (5etik gora). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza, eta Justizia Administrazioko Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Energiaren Euskal Erakundea (EEE), eta auditoretza energetikoak egiten dituzten erakundeak. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 4IEaren gainerako proiektuak. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2022ko urtarrila | 2030eko abendua |

| | |
|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | **4IE. Justizia egoitza jasangarrietan** |
| **PROGRAMA** | **Instalazio jasangarriak** |
| **PROIEKTUA** | **34P. Egoeraren diagnostikoa eta etorkizuneko eszenatokiak. Ekintza-plana** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Eraikin judizialak, iraunkortasun-irizpideen arabera behar bezala mantenduta eta eguneratuta. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Eraikin judizialak mantentze-egoerari eta etorkizuneko agertokiei buruzko diagnostikoa egitea.<br>2. Bilboko AMEIko aireztapen-sistema berritzea.<br>3. Eraikin eta instalazio judizialak sistematikoki mantentzea irizpide jasangarrien arabera. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Gaur egungo mantentze-zerbitzuak aztertzea, hala badagokio, agiri berrietan eskatzen diren prestazioak hobetzeko. Honako mantentze-lan hauek hartu beharko dituzte barne:<br>• Prebentzio-arlokoa<br>• Konduktiboa<br>• Tekniko-legala<br>• Aldarazlea<br>• Zuzentzailea<br>2. Plan honetako jarduerak, hala badagokio, egoitza judizial jasangarrien 2022-2030 aldirako planean sartzea.<br>3. Bilboko AMEIko aireztapen-sistema berritzeko jarduketa-lehiaketa izapidetzea.<br>4. Eraikin judizialak mantentzeko 2022-2026 aldirako Plana egitea, eta plan horretan mantentze-lan aldatzaile eta zuzentzaileen gaineko aurreikuspenak jasotzea.<br>5. Eraikin judizialak mantentzeko 2022-2026 aldirako plana gauzatzea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Bilboko Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuko aireztapen-sistema berritzea (2024ko 4. hiruh.).<br>• Eraikin judizialak mantentzeko 2023-2028 aldirako Plana, egina (2023ko 2. hiruh.). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza, eta Justizia Administrazioko Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Eraikin judizialen mantentze-lanen enpresa esleipendunak. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 4IEaren gainerako proiektuak. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2022ko urria | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 4IE. Justizia egoitza jasangarrietan |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Instalazio jasangarriak** |
| **PROIEKTUA** | **35P. Datuetan oinarritutako elkarlaneko kudeaketa** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Eraikin judizialak mantentzeko sistema digitalizatua ezartzea, datuetan oinarritutako eta eraikinak gehien erabiltzen dituzten kolektiboen lankidetzan oinarritutako kudeaketa ahalbidetzeko, eta eraikinen zaintza- eta segurtasun-sistemak eguneratzea. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. GMAO (ordenagailuz lagundutako mantentze-lanen kudeaketa) eraikinen mantentze-sistema digitalizatua finkatzea, mantentze-lan guztien plangintza eta jarraipen egokia egin ahal izateko.<br>2. Erabiltzaileei informazioa eta lankidetza ematea eraikinen mantentze-lanei dagokienez.<br>3. Zaintza-sistema hobetzea eta integratzea. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. GMAOren funtzionamendua finkatzea, mantentze-lanen enpresa esleipendunek informazioa behar bezala kargatuta.<br>2. Eraikin judizialak erabiltzen dituzten kolektiboak informatzea eta kontzientziatzea eraikinen erabilerarekin lotutako zenbaki nagusiei dagokienez.<br>3. GMAOn integratutako gorabeheren komunikazio telematikoko sistema hedatzea eta hobetzea justizia.eus atariko intranetaren bidez.<br>4. Sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduketak egitea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Ordenagailuz lagundutako mantentze-lanen kudeaketaren funtzionamendua, finkatuta (2023ko 2. hiruh.).<br>• Gorabeherak telematikoki jakinarazteko sistema hobetua, jardunean (2024ko 1. hiruh.).<br>• Gorabeherak konpontzeko sistemarekin erabiltzaileek zer gogobetetasun-maila duten (3tik gora, guztira 5). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza, eta Justizia Administrazioko Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Eraikin judizialen mantentze-lanen enpresa esleipendunak. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 4IEaren gainerako proiektuak. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Txikia | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2022ko urria | 2025eko abendua |

### 7.3.5. 5IE. JUSTIZIA DIGITALA

[>> Justizia Digitalaren Plana (2021-2026)].



### 7.3.6. 6IE. JUSTIZIA AURRERA

| **ILDO ESTRATEGIKOA** | **6IE. Justizia aurrera** |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Bulego judizialaren bilakaera** |
| **PROIEKTUA** | **36P. BJBaren EAEko ezarpenei buruzko diagnostikoa** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | 2010etik 2018ra bitartean 14 barruti judizialetatik 13tan EAEn egindako bulego judizial berriaren (BJB) ezarpenen funtzionamenduari buruzko diagnostikoa. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. BJBa EAEn ezartzeko diagnostikoa egitea, eta haren amaierako atal batean ikasitako ikasgaiak eta hobetu beharrekoen proposamenak jasotzea.<br>2. Bulego judizialaren funtzionamendua hobetzea.<br>3. Justiziaren zerbitzu publikoa hobeto ematea. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. BJBaren funtzionamenduari buruzko inkestak egitea eta BJBa ezarri den 13 barruti judizialetan kolektiboek haiek bete ditzaten kudeatzea<br>2. EAEko BJBaren funtzionamenduari buruzko jardunaldi batzuk egitea koordinatzea.<br>3. BJBaren ezarpenaren gaineko diagnostikoa egitea.<br>4. Ikasitakoen eta hobetzeko proposamenen katalogo bat edukitzea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • BJBaren funtzionamenduari buruzko jardunaldiak, eginda (2023ko 1. hiruh.).<br>• BJBaren ezarpenaren diagnostikoa, eginda (2023ko 2. hiruh.). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Administrazioko Zuzendaritza, Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Justizia Zuzendaritza, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia, Fiskaltza Nagusia, Gobernu Idazkaritza, abokatuak, prokuradoreak, lan-harremanetako gradudunak, AMEI eta Justizia Administrazioko langileak. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 6IE. 37P. Bulego judiziala. Antolaketaren efizientziaren legearen proiektuaren egokitzapenen eta aplikazioaren plana eta 38P. Bulego Judiziala Bilbon ezartzea. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2022ko uztaila | 2023ko ekaina |

| | |
|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | **6IE. Justizia aurrera** |
| **PROGRAMA** | **Bulego judizialaren bilakaera** |
| **PROIEKTUA** | **37P. Bulego judiziala. Antolaketaren efizientziaren legearen proiektuaren egokitzapenen eta aplikazioaren plana** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Bulego Judizialaren funtzionamendu-eredua berrikustea, hobetzea eta ezartzea Bulego Judizial Berria ezarrita duten 13 barruti judizialetan, funtzionamenduari buruzko diagnostikotik lortutako hobekuntza-neurriak aplikatuta eta antolaketaren efizientziari buruzko Lege berrian zehaztutako estandarrean oinarrituta. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Gure justiziaren zerbitzu publikoaren efizientzia hobetzea, herritarren beharrak asetzeko.<br>2. Justiziaren zerbitzu publikoaren antolamendua Bulego judizialean oinarrituta egotea. Horrek honako hau ekarriko du:<br>✓ Diseinu malgua izatea.<br>✓ Lana espezializazioaren bidez hobeto banatzea.<br>✓ Herritarrei eta profesionalei zerbitzu hobea ematea, bizkortasun handiagoa lortuz ez ezik, erantzun homogeneoa emanez egoera berdinen aurrean.<br>✓ Lanaren arrazionalizazioa eta kudeaketarekiko erantzukizuna sartzea, egitura hierarkizatua osatuz.<br>✓ Eraldaketa digitalean bermatzea, Bulego Judizialean lan deslokalizatua egitea ahalbidetuko baitu.<br>✓ Auzialdiko Auzitegien funtzionamendura egokitzea. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. EAEko barruti judizialetan bulego judizialaren funtzionamendurako eredu hobetu bat lantzea, Antolaketaren Efizientziaren Lege berrira egokituta, izapidetze-unitate prozesalekin eta zerbitzu erkide prozesalekin, eta, barruti judizialen neurriaren arabera, askotariko tipologiak kontuan hartuta.<br>2. Hala badagokio, barruti judizial batek eredu berriarekin funtzionatzen duenproiektu pilotu bat zehaztea, eta hori auzialdiko auzitegiak ezartzeko pilotu batekin erlazionatzea.<br>3. Garatzeko arauak eta jarraibideak eguneratzea, eredua definitzeko eta aplikatzeko.<br>4. BJBa ezarrita duten 13 barruti judizialetako bulego judizialak eredu berrira egokitzea:<br>✓ Antolaketa-tresnak landuz (antolamendu-eredu berria egituratzen duten unitate, zerbitzu, arlo edo taldeen antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko erreferentziako dokumentazioa, arduradunentzako erreferentzia-jarraibideak, etab.).<br>✓ LPZ berriak diseinatuz.<br>✓ Hala badagokio, espazioak eta konfigurazio teknologikoa egokituz.<br>✓ Langileak berrantolatuz eta egokituz.<br>✓ Ukitutako kolektiboei prestakuntza, informazioa eta sentsibilizazioa emanez. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Eredua, zehaztuta (2023ko 2. hiruh.).<br>• Proiektu pilotua, eginda (2024ko 3. hiruh.).<br>• Eredu berriari zenbat egokitzapen egin zaizkion (7tik gora 2025eko 4. hiruh.ean, 13 2026ko 4. hiruh.ean).<br>• Inplikatutako kolektiboek eredu berriarekin zer-nolako gogobetetasun-maila duten (3tik gora, gehienez 5). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Administrazioko Zuzendaritza, Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | EAEko Auzitegi Nagusia, Fiskaltza Nagusia, Gobernu Idazkaritza, abokatuak, prokuradoreak, lan-harremanetako gradudunak, AMEI eta Justizia Administrazioko langileen ordezkariak. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua; Justiziaren Zerbitzu Publikoaren antolaketa-eredu berria ezartzeko programa (Justizia Ministerioarekin eta autonomia-erkidegoekiko gobernantza partekatuan); 4IE. 30P. Eremu gehiago eta 32P. Egoitza Judizial Jasangarrien Plana 2022-2030 egitea eta garatzen hastea; 5IE. EJEarekin lotutako proiektuak; 6IE. 36P. BJBaren EAEko ezarpenei buruzko diagnostikoa; eta 9IE. 66P. Gure udalen errealitatera egokitutako UJBen eredu bat zehaztea eta 67P. UJBen eredua garatzea eta ezartzea. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARANTZIA | Handia | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2022ko urtarrila | 2026ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 6IE. Justizia aurrera |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Bulego judizialaren bilakaera** |
| **PROIEKTUA** | **38P. Bulego Judiziala Bilbon ezartzea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Bilboko barruti judizialean bulego judiziala eredu berriaren arabera ezartzea, gainerako 13 barruti judizialetako bulegoen egokitzapena amaitu eta eremu-falta konpondu eta AVANTIUSi buruzko espediente judizial berria ezarri ondoren. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Bilboko barruti judizialean justiziaren zerbitzu publikoaren efizientzia hobetzea, herritarren beharrak asetzeko.<br>2. Justiziaren zerbitzu publikoa antolatzea bulego judizialean bermatuta. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Haren ezarpena EAEko Justizia Auzitegi Nagusiarekin, fiskalekin eta JALekin koordinatzea.<br>2. Ezartzeko talde eragilea abian jartzea.<br>3. Prestaketa-lanak egitea.<br>4. Informazio-saioak egitea.<br>5. Prestakuntza- eta tutoretza-plana garatzea.<br>6. Lanpostuen zerrendak onartzea eta lanpostuak betetzea.<br>7. Langileak atxikitzea eta egokitzea.<br>8. Baliabide materialak, behar diren eremuak eta azpiegitura informatikoa (EJE berria) egokitzea.<br>9. Ezarpena zehaztea eta behar diren doikuntzak egitea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Ezartzeko talde eragilea abian jartzea (2025eko 2. hiruh.)<br>• Bilboko barruti judizialean bulego judiziala ezartzea (2026ko 4. hiruh.) |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Administrazioko Zuzendaritza, Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | EAEko Auzitegi Nagusia, Fiskaltza Nagusia, Gobernu Idazkaritza, abokatuak, prokuradoreak, lan-harremanetako gradudunak, AMEI, Justizia Administrazioko langileen ordezkariak. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua; Justiziaren Zerbitzu Publikoaren antolaketa-eredu berria ezartzeko programa (Justizia Ministerioarekin eta autonomia-erkidegoekiko gobernantza partekatuan); 4IE. 30P. Eremu gehiago eta 32P. Egoitza Judizial Jasangarrien Plana 2022-2030 egitea eta garatzen hastea; 5IE. EJEarekin lotutako proiektuak; eta 6IE. 36P. BJBaren EAEko ezarpenei buruzko diagnostikoa. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2025eko urtarrila | 2026ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 6IE. Justizia aurrera |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Kudeaketa publiko aurreratua Justizia Administrazioan** |
| **PROIEKTUA** | **39P. EAEko Justizia Administraziorako Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Ereduari (JAKPAE) buruzko akordioa** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEko justizia-administrazioak kudeaketa publiko aurreratuaren tresnak baliatzen ditu, eta bere eredua diseinatzen du, justiziaren zerbitzu publiko onena ahalbidetzeko eta etengabeko hobekuntza bermatzeko. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Kudeaketa hobetzeko kultura eta zerbitzua eraginkortasunez eta bikaintasunez emateko beharrezkoak diren tresnak finkatzea.<br>2. Elkarri eragiteko formula iraunkorrak, dinamikoak eta bizkorrak garatzea, justiziaren esparruan lan egiten duten kolektiboek justizia-jauregi bakoitzaren barruan eta sektoreka koordinazioa eta lankidetza hobetu ditzaten. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Lantaldea sortzea (epaileekin, fiskalekin, Justizia Administrazioko letraduekin eta langileen ordezkariekin). Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua onartu ondoren, Autonomia Erkidegoaren eremuko Justizia Zerbitzu Publikoaren Kalitaterako Batzordea izan liteke.<br>2. Parte hartzeko saioak egitea, eredua eta haren ezarpena adosteko.<br>3. Hasierako eredua eta proiektu pilotua egin dadin onartzea.<br>4. Proiektu pilotua garatzea.<br>5. Ondorioak adostea eta, hala badagokio, ereduaren eta haren aplikazioaren egokitzapenak proposatzea.<br>6. Eredua, taldeak, gizarteratzea eta ezarpena formalki onartzea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Pilotuaren garapena (2025eko 4. hiruh.)<br>• EAEko Justizia Administrazioan kudeaketa publiko aurreratuaren eredua onartzea (2026ko 2. hiruh.) |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Autonomia Erkidegoko justiziaren zerbitzu publikoaren Kalitaterako Batzordea. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza, Justizia Administrazioko Zuzendaritza, Funtzio Publikoaren Sailburuordetza, EAEJAN, Fiskaltza Nagusia, Gobernu Idazkaritza, abokatuak, prokuradoreak, lan-harremanetako gradudunak, AMEI, Justizia Administrazioko langileen ordezkariak eta EUSKALIT. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua; Justiziaren Zerbitzu Publikoa antolatzeko eredu berria ezartzeko programa (Justizia Ministerioarekin eta autonomia-erkidegoekiko gobernantza partekatuan) eta 10I. 71P. Kudeaketa publiko aurreratuko elkarlanerako egiturak. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2024ko urtarrila | 2026ko ekaina |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 6IE. Justizia aurrera |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Kudeaketa publiko aurreratua Justizia Administrazioan** |
| **PROIEKTUA** | **40P. Barruti judizialetan JAKPAEa pixkanaka ezartzea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEko barruti judizialetan kudeaketa publiko aurreratuaren eredu (JAKPAE) berria pixkanaka ezartzea eta garatzea. |
| HELBURUAK | 1. Eredua gizarteratzea, prestakuntza ematea eta «erreminta-kutxa» bat eskura jartzea, etengabe hobetu ahal izateko.<br>2. EAEko barruti judizialetan JAKPAE berria pixkanaka ezartzea.<br>3. Barruti judizial guztietan autoebaluazio-sistemak eta hobekuntza-planak abian jartzea.<br>4. Jardunbide egokiak zabaltzea. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Prestakuntza- eta ekintza-sistema diseinatzea eta garatzea.<br>2. Ezartzeko taldeak eta laguntzaileen kluba jardunean jartzea.<br>3. Tresnak zehaztea.<br>4. Barruti judizialetan kudeaketa-(auto)ebaluazioak egitea.<br>5. Barruti judizialetan hobekuntza-planak (4-5 urtekoak) zehaztea.<br>6. Hobekuntza-planen aldizkako jarraipena egitea.<br>7. Justiziaren zerbitzu publikoaren kalitateari buruzko urteko txostena egitea, EAEko datuetan oinarrituta (Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua).<br>8. Jardunbide egokienentzako sari bat definitzea eta deialdiak egitea eta ebaztea.<br>9. Justizia Ministerioan eta beste autonomia-erkidego batzuetan martxan dauden esperientziak ezagutzeko sistema bat zehaztea, jardunbide egokien berri jasotzeko.<br>10. Intranetean jardunbide egokiak biltzen dituen atala eskura jartzea. |
| ADIERAZLEAK | • Zenbat prestakuntza-ikastaro eta ekintza egin diren (6tik gora 2027an)<br>• Autoebaluazioen eta hobekuntza-planen kopurua (6 2027an, 8 2028an) |
| ERAGILE ARDURADUNA | Autonomia Erkidegoko justiziaren zerbitzu publikoaren Kalitaterako Batzordea |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza, Justizia Administrazioko Zuzendaritza, Funtzio Publikoaren Sailburuordetza, EAEJAN, Fiskaltza Nagusia, Gobernu Idazkaritza, abokatuak, prokuradoreak, lan-harremanetako gradudunak, AMEI, Justizia Administrazioko langileen ordezkariak eta EUSKALIT. |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua; Justiziaren Zerbitzu Publikoa antolatzeko eredu berria ezartzeko programa (Justizia Ministerioarekin eta autonomia-erkidegoekiko gobernantza partekatuan) eta 10I. 71P. Kudeaketa publiko aurreratuko elkarlanerako egiturak. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARANTZIA | Handia | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2026ko uztaila | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 6IE. Justizia aurrera |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Konpromisoa pertsona eta erakunde erabiltzaileekin** |
| **PROIEKTUA** | **41P. Katalogoak eta zerbitzu-kartak** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEn justiziaren zerbitzu publikoa ematen parte hartzen duten organo eta erakundeek esleituta dituzten eta barruti judizialetan ematen diren zerbitzuen katalogoak eta kartak egitea. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Herritarrek eta pertsona eta erakunde erabiltzaileek barruti judizialetan, EAEJANan, Fiskaltza Nagusian, Gobernu Idazkaritzan eta AMEIan ematen dituzten zerbitzuen berri izatea (bai jurisdikzionalak, bai gobernu-arlokoak, bai justiziarekiko lankidetzakoak).<br>2. Zerbitzu horiek emateko orduan konpromiso jakin batzuk pixkanaka ezartzea.<br>3. Gizarte-aldaketa progresiboa. EAEko gizarteak «justizia» «bere justizia» dela antzemango du. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Zerbitzu-katalogoen eta zerbitzu-karten edukiari buruz erabakitzea, bai eta horiek nola egin eta eguneratzeko sistemari buruz ere.<br>2. Justizia-jauregietan ematen dituzten zerbitzuen katalogoa egitea. Ereduzko katalogo bat egongo da, eta justizia-jauregi bakoitzaren errealitatera egokituko da gero.<br>3. EAEko Auzitegi Nagusian, Gobernu Idazkaritzan, Fiskaltza Nagusian eta AMEIan ematen dituzten zerbitzuen katalogoak egitea.<br>4. Zerbitzu-kartak egitea, barruti judizialetako hobekuntza-planetan zehazten denaren arabera.<br>5. Zerbitzu-katalogoak eta/edo -kartak eguneratzea eta zerbitzu-kartetako konpromisoen betetze-mailaren jarraipena egitea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Barruti judizialetako zerbitzuen katalogoak, eginda eta ezagutarazita (2024ko 2. hiruh.).<br>• AMEIaren zerbitzuen katalogoak (2024ko 2. hiruh.). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Autonomia Erkidegoko justiziaren zerbitzu publikoaren Kalitaterako Batzordea |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza, Justizia Administrazioko Zuzendaritza, Justizia Zuzendaritza, EAEko Justizia Auzitegi Nagusia, Fiskaltza Nagusia, Gobernu Idazkaritza, abokatuak, prokuradoreak, lan-harremanetako gradudunak, AMEI, Justizia Administrazioko langileen ordezkariak eta EUSKALIT. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua; Justiziaren Zerbitzu Publikoaren antolaketa-eredu berria ezartzeko programa (Justizia Ministerioarekin eta autonomia-erkidegoekiko gobernantza partekatuan); 1IE. 2P. Ezagutzari eta balorazioari buruzko inkestak; 6IE. 40P. Barruti judizialetan JAKPAEa pixkanaka ezartzea eta 45P. JAKPAEaren bilakaera eta pixkanakako ezarpena AMEIan; eta 10I. 71P. Kudeaketa publiko aurreratuko elkarlanerako egiturak. |

| | | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | | 2023ko uztaila | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 6IE. Justizia aurrera |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Konpromisoa pertsona eta erakunde erabiltzaileekin** |
| **PROIEKTUA** | **42P. Gogobetetzea neurtzeko inkestak** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Inkestak diseinatzea eta egitea, herritarrek eta pertsona eta erakunde erabiltzaileek justiziaren zerbitzu publikoarekin zer-nolako gogobetetasun-maila duten ezagutzeko. Herritarrak dira justiziaren zerbitzu publikoaren erdigunea, eta berariazko konpromisoa dugu haien gogobetetzea lortzearekin; horretarako, baina, beharrezkoa da haien igurikimenak, pertzepzioak eta eskaerak aztertzea eta ezagutzea, baita zerbitzu honi dagokionez zer-nolako gogobetetasun-maila duten ere. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Herritarrek eta pertsona eta erakunde erabiltzaileek justiziaren zerbitzu publikoari dagokionez zer igurikimen eta eskaerak dituzten ezagutzea.<br>2. Herritarrek eta pertsona eta erakunde erabiltzaileek justiziaren zerbitzu publikoarekin zer-nolako gogobetetasun-maila duten ezagutzea.<br>3. Herritarrek eta pertsona eta erakunde erabiltzaileek bulego judizialaren zerbitzuen funtzionamendua ezagutzea.<br>4. Hala badagokio, zerbitzua hobetzeko eta haren gaineko pertzepzioa hobetzeko neurriak hartzea. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Laginaren xede diren kolektiboak zehaztea: herritarrak, oro har, justizia-sistemaren barruko zerbitzuen pertsona eta erakunde erabiltzaileak, abokatuak, prokuradoreak, lan-harremanetako gradudunak eta abarrak, eta inkestak zenbatean behin edo zer unetan egingo diren.<br>2. Talde bakoitzerako galdetegien diseinua zehaztea.<br>3. Inkestak egitea, datuak biltzea eta kodetzea.<br>4. Datuak aztertzea.<br>5. Emaitzei eta horien bilakaerari buruzko informazioa publiko egitea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Zenbat inkesta diseinatu diren (4 2024ko 1. hiruh.ean).<br>• Egindako inkesten kopurua (4 2024ko 4. hiruh.ean). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Autonomia Erkidegoko justiziaren zerbitzu publikoaren Kalitaterako Batzordea. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza, Justizia Administrazioko Zuzendaritza, Justizia Zuzendaritza, EAEko Justizia Auzitegi Nagusia, Fiskaltza Nagusia, Gobernu Idazkaritza, abokatuak, prokuradoreak, lan-harremanetako gradudunak, AMEI, Justizia Administrazioko langileen ordezkariak eta EUSKALIT. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua; Justiziaren Zerbitzu Publikoaren antolaketa-eredu berria ezartzeko programa (Justizia Ministerioarekin eta autonomia-erkidegoekiko gobernantza partekatuan); 1IE. 2P. Ezagutzari eta balorazioari buruzko inkestak; 6IE. 40P. Barruti judizialetan JAKPAEa pixkanaka ezartzea eta 41P. Zerbitzu-katalogoak eta -kartak; 10I. 71P. Kudeaketa publiko aurreratuko elkarlanerako egiturak. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2023ko urria | 2028ko abendua |

| | |
|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | **6IE. Justizia aurrera** |
| **PROGRAMA** | **Konpromisoa pertsona eta erakunde erabiltzaileekin** |
| **PROIEKTUA** | **43P. Lekuko eta zinpekoentzako harrera eta arreta hobetzea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEko barruti judizialetara lekuko eta zinpeko gisa joaten diren pertsonei ematen zaien tratua eta arreta hobetzea. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Prozedura judizialetara lekuko gisa joaten diren pertsonen tratua eta arreta hobetzea.<br>2. Prozedura penal baten ikustaldian zinpeko izendatutako pertsonen tratua eta arreta hobetzea. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Diagnostiko bat egitea, lekukoei ematen zaien tratuaren ahulezia nagusiak zehazteko.<br>2. Lekukoei harrera egiteko sistema bat zehaztea eta ezartzea, ahuleziak minimizatzeko, eta informazio nahikoa helaraztea honako hauei buruz: zer funtzio duten, haren garrantzia, justizia-jauregian nondik nora ibiliko diren, zer eskubide ekonomikoak dituzten, halakorik badute, eta abar.<br>3. Diagnostiko bat egitea epaimahaia osatzen duten pertsonen tratuan dauden ahulezia nagusiak zehazteko.<br>4. Epaimahaia osatzen duten pertsonei harrera egiteko sistema bat zehaztea eta ezartzea, ahuleziak minimizatzeko, eta informazio nahikoa helaraztea honako hauei buruz: zer funtzio duten, haren garrantzia, justizia-jauregian nondik nora ibiliko diren, zer eskubide ekonomikoak dituzten, halakorik badute, eta abar. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Diagnostikoak, eginda (2024ko 2. hiruh.).<br>• Harrera-sistemak, ezarrita (4 2024ko 4. hiruh.ean).<br>• Lekuko eta zinpekoen arretaren pertzepzioa hobetzea (3,5etik gora, gehienez 5) |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Administrazioko Zuzendaritza, Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza eta Gobernu Idazkaritza |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | EAEko Auzitegi Nagusia, Fiskaltza Nagusia, abokatuak, prokuradoreak, lan-harremanetako gradudunak, AMEI, Justizia Administrazioko langileen ordezkariak. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 6IE. 40P. Barruti judizialetan JAKPAEa pixkanaka ezartzea. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Txikia | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2024ko urtarrila | 2026ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 6IE. Justizia aurrera |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **AMEIaren bilakaera** |
| **PROIEKTUA** | **44P. AMEIaren konfigurazioari eta egiturari buruzko azterlana** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | AMEIaren prestazio-ereduari buruzko gogoeta, zerbitzu-zorroa eta arau-esparrua eguneratu behar diren zehazteko. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. AMEIaren egitura eguneratzea, justizia-administrazioari laguntzeko organo tekniko gisa dituen beharrei erantzuteko. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. AMEIaren egungo zerbitzu-zorroa aztertzea (funtzioak), nola betetzen ari den, eta, eguneratu beharra dagoen.<br>2. AMEIaren egitura eta funtzionamendua aztertzea, agindutako lege-funtzioa behar bezala betetzen duen zehazteko. Ildo horretan, aztertu behar da zerbitzuen xedea, izaera, mendekotasun organikoa, egitura funtzionala eta lurralde-egitura eguneratu behar diren (auzitegi-klinika, auzitegi-patologia eta laborategia, irakaskuntza-unitatea, zuzendaritza-batzordea, irakaskuntza- eta ikerketa-batzordea, koordinazio- eta hobekuntza-batzordea, etab.).<br>5. Hala badagokio, zerbitzu-katalogoa eta aztertutako eremu batzuk eguneratzea erabaki behar da.<br>6. Hala badagokio, hura arautzen duen egungo dekretuaren aldaketa izapidetzea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Azterketak eta diagnostikoak, eginda (2023ko 3. hiruh.).<br>• Arauketa berria barne hartzen duen dekretu berria, argitaratuta (2024ko 4. hiruh.). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Administrazioko Zuzendaritza, AMEI eta Zerbitzu Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza, Justizia Zuzendaritza, EAEko Justizia Auzitegi Nagusia, Fiskaltza Nagusia, Gobernu Idazkaritza, langileen ordezkariak. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 6IE. 39P. EAEko Justizia Administraziorako Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Ereduari (JAKPAE) buruzko akordioa, 40P. Barruti judizialetan JAKPAEa pixkanaka ezartzea eta 45P. AMEIaren bilakaera. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2023ko urtarrila | 2024ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 6IE. Justizia aurrera |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **AMEIaren bilakaera** |
| **PROIEKTUA** | **45P. AMEIaren bilakaera** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | AMEIak arauketa berrian proposatzen diren aldaketetara egokitzen du bere egitura, halakorik badago, eta justizia-administraziorako EAEn hitzartutako kudeaketa publiko aurreratuko tresnez baliatzen da, zerbitzurik onena ahalbidetzeko eta etengabeko hobekuntza bermatzeko. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Arauketa berrian proposatzen diren egitura eta funtzionamendua egokitzea, hala badagokio.<br>2. Kudeaketa hobetzeko kultura ez ezik, zerbitzua efizientziaz eta bikaintasunez emateko beharrezkoak diren tresnak ere ezartzea.<br>3. Eredua gizarteratzea, prestakuntza ematea eta «erreminta-kutxa» bat eskura jartzea, etengabe hobetu ahal izateko.<br>4. Autoebaluazio-sistema eta hobekuntza-planak abian jartzea. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Arauketa berrian proposatzen diren aldaketak aplikatzea, hala badagokio.<br>2. Prestakuntza-/ekintza-sistema diseinatzea eta garatzea.<br>3. Tresnak zehaztea.<br>4. Kudeaketaren (auto)ebaluazioak egitea.<br>5. Hobekuntza-planak zehaztea (4-5 urte).<br>6. Hobekuntza-planen aldizkako jarraipena egitea.<br>7. Auzitegi-medikuntzako beste institutu batzuetan abian dauden esperientziak ezagutzeko sistema bat zehaztea, jardunbide egokiak lortzeko.<br>5. Intraneten jardunbide egokiak biltzen dituen atal bat eskura jartzea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Zenbat prestakuntza-ikastaro eta ekintza egin diren (2tik gora 2027an)<br>• Autoebaluazioa, eginda, eta hobekuntzarako plana, abian (2025eko 4. hiruh.) |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Administrazioko Zuzendaritza, AMEI |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza, Justizia Zuzendaritza, Autonomia Erkidegoko justiziaren zerbitzu publikoaren Kalitaterako Batzordea, EUSKALIT |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 6IE. 39P. EAEko Justizia Administraziorako Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Ereduari (JAKPAE) buruzko akordioa, 40P. Barruti judizialetan JAKPAEa pixkanaka ezartzea eta 44P. AMEIaren egiturari eta konfigurazioari buruzko azterlana. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2025eko urtarrila | 2028ko abendua |

### 7.3.7. 7IE. JUSTIZIA ULERGARRIA, AZKARRAGOA ETA AURRESANGARRIAGOA

| ILDO ESTRATEGIKOA | 7IE. Justizia ulergarria, azkarragoa eta aurresangarriagoa |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Justizia enpatikoagoa eta argiagoa** |
| **PROIEKTUA** | **46P. Idatzizko komunikazio ulergarria** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Behar diren neurriak hartzea Herritarrek Justiziaren Aurrean Dituzten Eskubideen Gutunaren *Justizia ulergarria* epigrafean, 5., 7. eta 8. ataletan , ezarritakoa bete dadin. |
| HELBURUAK | 1. Dokumentu judizialak hartzaileentzako moduko hitz erraz eta ulergarriekin idaztea, sintaxi eta egitura errazak erabilita, eta azalpen argia eman nahian, baina zorroztasun teknikoa alde batera gabe.<br>2. Justizia-administrazioaren pertsona eta erakunde erabiltzaileek prozedura judizialekin lotutako dokumentazioa gero eta hobeto ulertzea. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Operadore juridiko guztiei laburbilduta helaraztea Hizkuntza Juridikoa Modernizatzeko Batzordearen gomendioak.<br>2. EAEko organo judizialetan Justiziaren Estilo Liburua eta Espainiera Juridikoaren Hiztegia erabil dezaten sustatzea.<br>3. Euskara juridikoaren hiztegi bat egitea.<br>4. Dokumentazioa estandarizatzeko lantaldearen osaera eta funtzioak berriz planteatzea.<br>5. Irakurketa errazeko hizkuntza erabilita dokumentuak egiteko programa bat garatzea, dokumentuen tipologia (dokumentazio judiziala, formularioak, informazio-dokumentazioa) eta kolektibo hartzaileak (adimen-desgaitasuna duten pertsonak, adingabeak, etab.) kontuan hartuta. |
| ADIERAZLEAK | • Dokumentazioa estandarizatzeko lantaldearen osaera, izena eta funtzioak birplanteatzea (2023ko 4. hiruh.)<br>• Euskara juridikoaren hiztegia, eginda (2026ko 1. hiruh.)<br>• Erabiltzaileek jarduera judizialetako hizkuntzari buruz duten pertzepzioaren hobekuntza (3tik gora, gehienez 5) |
| ERAGILE ARDURADUNA | EAEko Auzitegi Nagusia, Fiskaltza Nagusia, Gobernu idazkaria, Justizia Administrazioko Zuzendaritza, Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza, Justizia Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Hizkera errazaren arloko adituak, hirugarren sektorea ordezkatzen duten elkarteak, Kultura Saila, Abokatuen, Prokuradoreen eta lan-harremanetako gradudunen elkargoak eta herritarrak ordezkatzen dituzten elkarteak. |
| *LOTUTAKO PROIEKTUAK* | 1IE. Justizia ezaguna. 1P. Kanpo-komunikaziorako plana eta 2P. Ezagutzari eta baliospenari buruzko inkestak; 2IE. Justiziak sarbidea eta babesa ematen die pertsona kalteberenei; 5IE. JDP 2021-2026. Espediente Judizial Elektronikoa (EJE) eta Justizia Berritzailea; eta 7IE. 47P. Ahozko komunikazio didaktikoa eta arreta hurbila. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2023ko uztaila | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 7IE. Justizia ulergarria, azkarragoa eta aurresangarriagoa |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Justizia enpatikoagoa eta argiagoa** |
| **PROIEKTUA** | **47P. Ahozko komunikazio didaktikoa eta arreta hurbila** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Epaileei, fiskalei eta JALei komunikazio-trebetasunei buruzko prestakuntza osagarria ematea, eta ahozko jarduerak zuzentzeko eta horietan parte hartzeko gomendioak eta jarraibideak egiten laguntzea, adeitasun, hurbiltasun eta ulerkortasun handiagoa izan dezaten, Herritarrek Justiziaren aurrean dituzten Eskubideen Gutunaren *Justizia ulergarria* epigrafean, 6. atalean, ezarritakoa betetzeko. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Oinarrizko gomendioak eta jarduera-jarraibideak egotea, Justiziako profesionalak jarduketetan hurbilagoak eta adeitsuagoak izan daitezen.<br>2. Ahozko arreta behar espezifikoak dituzten kolektiboei egokitzea (emakumearen aurkako indarkeriaren biktimak, adingabeak, adimen-desgaitasuna duten pertsonak, etab.).<br>3. Epaileen, fiskalen eta JALen ahozko adierazpena hobetzea, ikustaldietako, agerraldietako edo ahozko bestelako jardun batzuetako zuzendari aritzen direnean.<br>4. Pertsona eta erakunde erabiltzaileek jarduketa judizialen zentzua eta edukia ulertzea, zer adierazten zaien hobeto ulertzea eta hobeto artatuak sentitzea. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Adierazpenak, testigantzak, epaiketak, ikustaldiak eta bestelako agerraldiak hasteko, egiteko eta amaitzeko moduei buruzko gomendioak biltzen dituen eskuliburua egitea. Aurrez aurrekoak edo telematikoak bereizi beharko dituzte.<br>2. Dekalogo bat egitea ahozko ekitaldia edo entzunaldia zuzentzen dituzten pertsonentzat, bai eta gainerako parte-hartzaileentzat ere.<br>3. Justizia-jauregietan beren eginkizunak betetzen dituzten kolektiboentzako dekalogoak egitea (arreta berezia jarrita ikustaldiak egiten laguntzen dutenei), eta profesionalei eta justizia-zerbitzu publikoa erabiltzen duten pertsona eta erakundeei arreta emateko jarraibideak jasotzea horietan.<br>4. Eskuliburua zabaltzea eta dekalogoen berri ematea justizia-jauregi guztietan.<br>5. Gomendioen aplikazioaren jarraipen-ekintzak egitea.<br>6. Epaile, fiskal eta JALentzako komunikazio-trebetasunei buruzko ikastaro baten prestakuntza-eskaintza osagarria egitea.<br>7. Abokatu, prokuradore eta lan-harremanetako gradudunentzako berariazko prestakuntza-jarduerak antolatzen laguntzea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Ahozko egintzak eta entzunaldiak zuzentzeko gomendioen eskuliburua, eginda (2024ko 2. hiruh.).<br>• Dekalogoak (2024ko 2. hiruh.).<br>• Zenbat prestakuntza-eskaintza egin diren (2025eko 2. hiruh.).<br>• Erabiltzaileek jarduera judizialetako hizkuntzari buruz duten pertzepzioaren hobekuntza (3tik gora, gehienez 5) |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | EAEko Auzitegi Nagusia, Fiskaltza Nagusia, Gobernu-idazkaria, Justizia Administrazioko Zuzendaritza, abokatuak, prokuradoreak eta lan-harremanetako gradudunak. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Justizia Administrazioko Zuzendaritza, Eskola Judiziala eta Ikasketa Judizialen Zentroa. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 1IE. 2P. Ezagutzari eta balorazioari buruzko inkestak eta 3IE. 22P. Prestakuntza-planak egitea eta garatzea. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2024ko urtarrila | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 7IE. Justizia ulergarria, azkarragoa eta aurresangarriagoa |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Justizia azkarragoa eta aurresangarriagoa** |
| **PROIEKTUA** | **48P. Prozedura azkarragoak** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEJANarekin lankidetzan aritzea, prozedura judizial batzuen iraupen luzearen arrazoiak ezagutzeko, eta epe horiek laburtzeko edo bizkortzeko neurriak hartzeko proposamenak egiteko. |
| HELBURUAK | 1. Prozedura judizial batzuen gehiegizko iraupenaren arrazoiak ezagutzea, organoa, jurisdikzio-ordena, barruti judiziala eta/edo lurraldea kontuan hartuta.<br>2. Epeak laburtzen laguntzen duten neurriak hartzea.<br>3. Epaileek, JALek eta bulego judizialeko gainerako langileek ezagutu dute zer iraupen izan ohi diren beren epaitegietan, beren jurisdikzio-ordenako gainerakoetan, beren barruti judizialean eta EAEko barruti judizial guztietan.<br>4. Gehiegizko iraupena duten prozeduren iraupena laburtzea. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Prozedura judizialen iraupenaren batez besteko denboraren estimazioa aztertzea jurisdikzio-ordenen, organo judizialaren eta auzigai motaren arabera, estatistika judizialeko datuetan oinarrituta, eta batez besteko denbora horietatik aldentzea zerk dakarren aztertzea.<br>2. Urteko bilakaeraren jarraipena egitea, iraupen horien sekuentzia historikoa ikusteko.<br>3. Ohiko iraupenak handitzea dakarten arrazoiak edo egoerak zuzentzeko neurriei buruzko proposamenak egitea auzigai moten, organoen, espezialitateen eta jurisdikzioen arabera.<br>4. Horiek ezar daitezen sustatzea eta/edo laguntzea.<br>5. Jardunbide egokiak zabaltzea: jurisdikzio-ordenaren arabera ebazteko denbora gutxien duten organo judizialetako langileek (magistratu-epaileak, JALak eta KILak) funtzionamendu-esperientzia beste organo batzuei helaraztea.<br>6. Pilotu gisa, jurisdikzio-ordenaren batean, aurreikuspen-programa bat proposatzea, prozeduren iraupen egokia zehaztuta. |
| ADIERAZLEAK | • Lehen estimazio-azterlana, eginda (2024ko 3. hiruh.).<br>• Ezarritako neurriak (2024-2028).<br>• Batez besteko iraupen-denboren hobekuntzaren %-a, jurisdikzio-ordena penalean (%10etik behera 2025ean; %30etik behera 2027an), auzien jurisdikzioan (% 10etik behera 2025ean; % 20tik behera 2027an); arlo sozialeko jurisdikzioan (% 10etik behera 2025ean, % 20tik behera 2027an) eta jurisdikzio zibilean (% 10etik behera 2025ean; % 20tik behera 2027an). |
| ERAGILE ARDURADUNA | EAEko Auzitegi Nagusia, organo judizialak. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza. |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Efizientzia Prozesalaren Legearen proiektua; Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua; Efizientzia Digitalaren Legearen aurreproiektua; 5IE. 23P. Estatistika eta datu judizial automatizatuak eta 24P. Erabakiak hartzeko informazioa biltzeko sistema; 6IE. 39P. EAEko Justizia Administraziorako Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Ereduari (JAKPAE) buruzko akordioa eta 40P. Barruti judizialetan JAKPAEa pixkanaka ezartzea; eta 8IE. Justizia errestauratiboa eta gatazkak ebazteko baliabide egokiak. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2024ko urtarrila | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 7IE. Justizia ulergarria, azkarragoa eta aurresangarriagoa |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Justizia azkarragoa eta aurresangarriagoa** |
| **PROIEKTUA** | **49P. Ebatzitakoen, ebazteke daudenen eta pilatutakoen tasak hobetzea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEJANarekin elkarlanean aritzea, barruti judizial, jurisdikzio-ordena eta organo judizial bakoitzeko plan bat egiteko, ebatzitakoen, ebazteke daudenen eta pilatutakoen tasak eta epai kopurua hobetzeko. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. EAEko organo judizialek jarduera judizialaren tasetan duten posizio erlatiboa hobetzea.<br>2. Magistratu/epaile bakoitzeko auzien kopurua haztatu ondoren, epaile/magistratu bakoitzeko ebazpen-tasa eta epai kopurua handitzea, hala badagokio.<br>3. Ebazteke daudenen eta pilatutakoen tasak gutxitzea, hobetzeko tartea badute. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Erreferentziako tasak hobetzeko plan bat egiteabarruti judizial/jurisdikzio-espezialitate/organo judizialaren arabera; eta plan horretan urteko hobekuntza-aurreikuspenak zehaztea.<br>2. Plana zabaltzea eta haren helburuak organo judizialei helaraztea.<br>3. Jarraipena egitea ea helburuak lortu diren edo ez, eta haiek betetzea zerk eragotzi duen zehaztea, hala badagokio, neurri zuzentzaileak hartu ahal izateko.<br>4. Plana ezar dadin sustatzea eta/edo laguntzea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Tasak hobetzeko plana, eginda (2025eko 3. hiruh.).<br>• Helburuak lortzen saiatzearen ontasunari buruzko zabalkundea eta sentsibilizazioa (2025eko 4. hiruh.).<br>• Estatistika judizialean jurisdikzio-ordena guztietan posizioa hobetzea 2027an (datuak, 2028ko 2. hiruh.). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | EAEko Auzitegi Nagusia, organo judizialak. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Efizientzia Prozesalaren Legearen proiektua; Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua; Efizientzia Digitalaren Legearen aurreproiektua; 5IE. 23P. Estatistika eta datu judizial automatizatuak eta 24P. Erabakiak hartzeko informazioa biltzeko sistema; 6IE. 39P. EAEko Justizia Administraziorako Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Ereduari (JAKPAE) buruzko akordioa eta 40P. Barruti judizialetan JAKPAEa pixkanaka ezartzea; eta 8IE. Justizia errestauratiboa eta gatazkak ebazteko baliabide egokiak. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2025eko urtarrila | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 7IE. Justizia ulergarria, azkarragoa eta aurresangarriagoa |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Justizia azkarragoa eta aurresangarriagoa** |
| **PROIEKTUA** | **50P. Etendutako epaiketen kopurua murriztea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEko Justizia Auzitegi Nagusiarekin elkarlanean aritzea ikustaldiak eta egintza judizialak eteteko arrazoi ohikoenak aztertzeko, jurisdikzio-ordenetan zer kalte eragiten dituzten kontuan hartuta, eta arreta berezia jartzea araudi prozesalean jasota ez dauden egoeretan sortzen diren kalteei, haien kopurua murrizten saiatzeko. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Jurisdikzio-ordenetan eteteko ohiko kausak ezagutzea.<br>2. Horiek murrizten laguntzen duten neurriak proposatzea eta hartzea.<br>3. Hala badagokio, ZLUPen eta ZEPOaren arteko koordinazioa hobetzea.<br>4. ZEPOaren jarduketa-prozedurak hobetzea, hala badagokio. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Jurisdikzio-ordenetan ikustaldiak eta egintza judizialak eteteko ohiko arrazoiak aztertzea.<br>2. Hobekuntza-neurriak proposatzea eteteak saihesteko, eta, hala badagokio, EAEJANaren gomendioetara eta ZEPOen jardun-prozeduren proposamenera bideratzea.<br>5. Horiek ezar daitezen sustatzea eta/edo laguntzea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Azterlana, eginda, proposatutako neurriak barne (2023ko 3. hiruh.).<br>• EAEJANaren gomendioa, eginda (2023ko 4. hiruh.).<br>• Ikustaldiak eta egintza judizialak antolatzeko prozedura aldatzea (2023ko 4. hiruh.).<br>• Etendako ikustaldi eta egintza judizialen kopuruaren murrizketaren %-a (% 10 2025ean, eta % 30 2028an). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | EAEko Auzitegi Nagusia, organo judizialak, JALak, ZLUP eta ZEPO. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza, Justizia Administrazioko Zuzendaritza. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Efizientzia Prozesalaren Legearen proiektua; Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua; Efizientzia Digitalaren Legearen aurreproiektua; 5IE. 23P. Estatistika eta datu judizial automatizatuak eta 24P. Erabakiak hartzeko informazioa biltzeko sistema; eta 6IE. 39P. EAEko Justizia Administraziorako Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Ereduari (JAKPAE) buruzko akordioa eta 40P. Barruti judizialetan JAKPAEa pixkanaka ezartzea. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2023ko ekaina | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 7IE. Justizia ulergarria, azkarragoa eta aurresangarriagoa |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Justizia azkarragoa eta aurresangarriagoa** |
| **PROIEKTUA** | **51P. Betearazpenak bizkortzea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEJANarekin elkarlanean aritzea betearazpenak zailtzen edo moteltzen dituzten kausak aztertzeko, funtzionamendua hobetzen saiatzeko. |
| HELBURUAK | 1. Biktimari eragindako kaltearen konponketa bizkortzea, zigor-arloko prozesuen betearazpen zibilak azkartuz.<br>2. Betearazpenen funtzionamendua hobetzen laguntzen duten neurriak hartzea, bereziki betearazpen zibilen atzerapenak konpontzeko. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. EAEko prozedura judizialen betearazpenei buruzko azterlan bat egitea, datu banakatuak lortzeko eta gehiegi zergatik irauten duten ezagutzeko, bai eta, hala badagokio, zergatik ez diren amaitzen jakiteko ere.<br>1. EAEko enkanteen funtzionamenduari buruzko azterlan bat egitea, enkanteen kopuruari, denborei eta emaitzei buruzko datuak lortzeko.<br>2. Betearazpenak hobetzeko plan bat egitea, eta planaren barruan haien gehiegizko iraupena edo ez gauzatzea dakarten arrazoiak edo egoerak zuzentzeko neurriei buruzko proposamen sorta bat jasotzea.<br>3. Zigor-arloko prozesuen betearazpenak bizkortzeko neurriak jasotzen dituen proposamen bat egitea.<br>4. Organo judizialen, ZLUPen eta BZEPen arteko koordinazioa hobetzea, eta bulego judizialaren funtzionamendu arina eta bikoiztasunik gabea zehaztea betearazpenei dagokienez.<br>5. Horiek ezar daitezen sustatzea eta/edo laguntzea. |
| ADIERAZLEAK | • Azterlana, eginda (2024ko 2. hiruh.).<br>• EAEJANaren gomendioa, eginda (2024ko 3. hiruh.).<br>• Betearazpenak hobetzeko plana, eginda (2024ko 4. hiruh.).<br>• Betearazpen zibilak egiteko denboraren hobekuntzaren %-a (murrizketa >% 20 2025ean eta % 40tik gora 2028an). |
| ERAGILE ARDURADUNA | EAEJAN, JALak eta BZEP. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza, Prokuradoreen Elkargoak, Notarioen Elkargoak eta, Jabetza Erregistratzaileen Elkargoak. |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Efizientzia Prozesalaren Legearen proiektua; Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua; Efizientzia Digitalaren Legearen aurreproiektua; 5IE. 23P. Estatistika eta datu judizial automatizatuak eta 24P. Erabakiak hartzeko informazioa biltzeko sistema; eta 6IE. 39P. EAEko Justizia Administraziorako Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Ereduari (JAKPAE) buruzko akordioa eta 40P. Barruti judizialetan JAKPAEa pixkanaka ezartzea. |

| ERAGINA/GARANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2024ko urtarrila | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 7IE. Justizia ulergarria, azkarragoa eta aurresangarriagoa |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Justizia azkarragoa eta aurresangarriagoa** |
| **PROIEKTUA** | **52P. Justizia aurresangarriagoa** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiarekin elkarlanean aritzea, antzeko gaien aurrean epaileek emandako erantzunaren segurtasun juridikoa eta koherentzia handitzea tresnak eskura jartzeko; horretarako, organo judizialen ezagutza gizarteratuko da eta tresna prozesalak baliatuko dira xede berarekin prozedurak edo betearazpenak elkartzeko. |
| HELBURUAK | 1. Antzeko gaiei buruzko ebazpen judizialetan, aurrez aurresangarritasuna eta segurtasun juridikoa handitzea.<br>2. Magistratuek eta epaileek goiko auzialdietan emandako epaiak hobeto ezagutzea, batez ere haien esanahia aldatzen denean.<br>3. *Lekukoaren prozeduren* sistema eta *ondoreak hedatzeko* mekanismoa erabiltzeko tresnak ematea (Efizientzia Prozesalaren Legearen aurreproiektuan aurreikusita daude). |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Jurisdikzio-ordenetako epaileen kolektiboen arteko koordinaziorako aldizkako topaketen edo jardunaldien programa bat egitea, goiko auzialdietan gaiak ebaztean dauden joera nagusien berri emateko.<br>2. Programa hori auzialdiko auzitegien funtzionamenduan jartzera egokitzea (Antolaketaren Efizientziaren Legearen aurreproiektuan aurreikusita daude).<br>3. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak jardunbide egokirako proposamena egin ondoren, *lekukoaren prozeduren* sistema eta ondoreak hedatzeko mekanismoak erabiltzea sustatzeko kondizioak eta bitartekoak ezartzeko eszenatoki posible bat aurreratzea. |
| ADIERAZLEAK | • Koordinazio-saioen kopurua (4tik gora urtean 2024tik aurrera).<br>• Lekukoaren prozedurari eta ondoreak hedatzeko mekanismoari laguntzeko jardunbide egokien programa, eginda (2025eko 3. hiruh.).<br>• Antzeko gaien aurrean emandako erantzun judizialaren homogeneotasunari eta koherentziari buruzko pertzepzioaren hobekuntza (3tik gora –gehienez 5– 2027an). |
| ERAGILE ARDURADUNA | EAEJAN, salako presidenteak, entzunaldiko presidenteak eta dekanoak. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza, Justizia Administrazioko Zuzendaritza eta Justizia Zuzendaritza. |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Efizientzia Prozesalaren Legearen proiektua eta Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua; 5IE. 23P. Estatistika eta datu judizial automatizatuak eta 24P. Erabakiak hartzeko informazioa biltzeko sistema; eta 6IE. 39P. EAEko Justizia Administraziorako Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Ereduari (JAKPAE) buruzko akordioa eta 40P. Barruti judizialetan JAKPAEa pixkanaka ezartzea. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2024ko urtarrila | 2028ko abendua |

### 7.3.8. 8IE. JUSTIZIA ERRESTAURATIBOA ETA GATAZKAK EBAZTEKO BALIABIDE EGOKIAK

| ILDO ESTRATEGIKOA | 8IE. Justizia errestauratiboa eta gatazkak ebazteko baliabide egokiak |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **EAEko GEBEen eredua** |
| **PROIEKTUA** | **53P. EAEko GEBEen liburu zuria** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEn gatazkak ebazteko baliabide egokien (GEBE) egoera aztertzen duen liburu zuri bat egitea, jarduketak eta horien sustapena modu integratuan koordinatzeko ardura izango duten erakundeak zehazteko, eta dauden hutsuneak konpontzeko. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. EAEko GEBEen egoera ezagutzea.<br>2. Ibilbide-orri bat egitea, eta bertan, egin beharreko jarduketak eta erakunde arduradunak zehaztea.<br>3. Koordinazio-sistema bat ezartzea. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Liburu Zuriaren oinarrizko edukia zehaztea.<br>2. Liburu Zuria egiteko agindua unibertsitateko irakasleei edo ikertaldeari ematea.<br>3. Egin beharreko jarduketak 2030erako EAEko GEBEen Mapa 2030ean zehaztea eta adostea, administrazioen eta/edo erakundeen eremuen eta erantzukizunen arabera, eta lidergo instituzionala Eusko Jaurlaritzako zer sailak izan beharko duen zehaztea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Liburu Zuria, eginda (2023ko 2. hiruh.).<br>• EAEko GEBEen mapa 2030, erakundeen artean adostua (2023ko 4. hiruh.). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuk, Arartekoa, EAEJAN, foru-aldundiak, EUDEL, abokatuak, prokuradoreak, lan-harremanetako gradudunak eta Zuzenbide Kolaboratiboko Euskadiko Elkartea. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Efizientzia Prozesalaren lege Proiektua eta 10IE. 72P. Zenbait sektorerekin (Hezkuntza, Segurtasuna, Gizarte Politikak, Biktimak, GEBEak...) lantaldeak egituratzea eta abian jartzea. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2022ko urria | 2023ko abendua |

| | |
|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | **8IE. Justizia errestauratiboa eta gatazkak ebazteko baliabide egokiak** |
| **PROGRAMA** | **EAEko GEBEen eredua** |
| **PROIEKTUA** | **54P. Arau-esparrua, GEBEen ereduaren egitura sortzea eta garatzea EAEn** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Esparru juridiko bat ezartzea, esparru horrek aukera eman dezan, Efizientzia Prozesalaren Legea eta aplikatzekoak diren beste oinarrizko arau batzuk garatuz, EAEko eremuan gaur egun dauden eta etorkizunean ezartzen diren gatazkak ebazteko baliabide egokiak (GEBE) jasotzeko. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. EAEren eskumenen eremuan GEBEak arautzea.<br>2. Jardun-esparrua zehaztea, bitartekarien, adiskidetzaileen edo hirugarren neutralen prestakuntzaren eta espezializazioaren bitartez GEBEen profesionaltasuna bermatzeko.<br>3. GEBEen zerbitzu profesionalizatuak laguntzeko, sustatzeko eta herritarrek haietara jotzeko egitura sortzea, eta dagozkion erregistroak arautzea.<br>4. Doako laguntza juridikoa eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten pertsonei dagokienez, doako GEBEak emateko sistema eta baldintzak aurreikustea.<br>5. Organo judizialen eta herritarren esku administrazio-esparrua eta azpiegitura jartzea prozesu judizialaren barruan epaileek GEBEetara bidera ditzaten errazteko.<br>6. GEBEak jurisdikzio-ordenetan eta eremu sozialetan ezar daitezen laguntzea. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Arau-esparru bat egin eta izapidetzea. Erreferentzia modura, honako atal hauek izan ditzake:<br>• Xedea eta aplikazio-eremua.<br>• Lankidetza, koordinazioa eta datuak.<br>• Administrazio-antolaketa.<br>• Pertsonen eta erakundeen erregistroa.<br>• Prestakuntza. Kalitatea. Prozedura.<br>• Doakotasun-kasuak.<br>• Zehapen-prozedura.<br>2. GEBEei zerbitzua emateko administrazio-egitura zehaztea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Araudia, argitaratua (2023ko 4. hiruh.).<br>• Egitura administratiboa: lanpostuen zerrendak sortuta eta langileak hautatuta (2024ko 3. hiruh.).<br>• Pertsonen eta erakundeen erregistroa, jardunean (2024ko 4. hiruh.). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza eta Zerbitzu Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Izapidetzean parte hartzen duten Eusko Jaurlaritzako organoak, abokatuak, lan-harremanetako gradudunak, Zuzenbide Kolaboratiboko Euskadiko Elkartea. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Efizientzia Prozesalaren Legearen proiektua (epeak eta edukia baldintzatuko ditu) eta 2IE. 9P. Justiziarekin elkarlanean aritzeko zerbitzu-ereduaren bilakaera. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2023ko uztaila | 2028ko abendua |

| | |
|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | **8IE. Justizia errestauratiboa eta gatazkak ebazteko baliabide egokiak** |
| **PROGRAMA** | **EAEko GEBEen eredua** |
| **PROIEKTUA** | **55P. Herritarren aldetik eta politika publikoetan GEBEak erabiltzea bultzatzea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Gatazkak ebazteko baliabideak justizia-sistematik kanpo erabil daitezen laguntzea, politika publikoek askotariko eremuetan hartutako neurrien osagarri (familia, kontsumoa, hirigintza, etxebizitza, hipotekak, osasuna, hezkuntza, segurtasuna, kirola, giza eskubideak eta bizikidetza, etab.). |
| HELBURUAK | 1. Alderdien arteko negoziazioa sustatzea, gatazka soziala gutxitzeko eta haien arrazoien balioa nabarmentzea elkarrizketa bidezko irtenbideak eraikitzeko, bai eta auzitegien zama arintzeko ere.<br>2. Herritarrei duten arazoa kudeatzeko biderik egokiena eskaintzea; kasu askotan adostasunezko bidea izango da hori, justizia-sistemara iritsi aurretik.<br>3. GEBEen erabilera sustatzen duten administrazioen eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzea, plangintza hobetzeko, baliabideak hobeto erabiltzeko, informazio integratu hobea emateko eta, azken finean, gatazkak elkarrizketaren bidez konpontzeko kultura pixkanaka zabaltzeko eta ezartzeko. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Sailen eta erakundeen arteko lantalde bat abian jartzea, EAEn dauden GEBEen zerbitzuen eskaintza behar bezala planifikatu ahal izateko.<br>2. Informazio-lan egokia egitea informazio- eta orientazio-zerbitzuen bitartez, eta, hala badagokio, GEBEen arloko informazio- eta orientazio-zerbitzu espezifiko bat sortzeko aukera aztertzea.<br>3. Erakunde publikoei proposamenak egitea, baldin eta honako eremu hauetan GEBEen enplegu-potentzialtasuna badute:<br>• EAEko Familia Bitartekaritzako Zerbitzu Integrala.<br>• Lan eta Enplegu Sailaren bide sozialaren aurreko adiskidetze administratiboko zerbitzuak.<br>• Kontsumoko arbitraje-sistema.<br>• Hipoteka Bitartekaritzarako Zerbitzua, Eusko Jaurlaritzak Ekonomisten Euskal Elkargoaren eta Euskadiko Zinpeko Kontu Azterlarien Institutuaren bitartez emana.<br>• Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia, komunitate- eta auzo-gatazketan polizia-bitartekaritza eta elkarrizketaren bidezko beste konponbide-bitarteko batzuk bultzatzeko.<br>• Erakunde sanitarioak, erabiltzaileekiko harremanetan gatazkak konpontzeko baliabide egokiak garatzeko.<br>• Hezkuntza-erakundeak, hezkuntza-komunitatean gatazkak konpontzeko baliabide egokiak garatzeko.<br>• Tokiko administrazioak, eremu komunitarioan GEBEak indartzeko, honelako gatazketan: harremanekin lotutako gatazketan, bizilagunen artekoetan, jarduera ekonomikoen ondoriozkoetan, eremu publikoaren erabilerak sortutakoetan, familiakoetan, elkarteen barrukoetan, kulturartekoetan, belaunaldien artekoetan edo bizikidetza-arauekin lotutakoetan.<br>4. Udalerriko justizia-bulegoek eremu horretan duten zeregina garatzea, Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektuan eta 9IEaren udalerriko justizia-bulegoen programan ezarritakoari jarraikiz. |
| ADIERAZLEAK | • Bitartekaritza koordinatzeko lantaldea, abian jarrita (2024ko 3. hiruh.).<br>• EAEn eskainitako zerbitzu guztiei buruzko informazio eta orientazio integratuaren edukia (2025eko 4. hiruh.). |
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza, Gizarte Politiketako Sailburuordetza, Segurtasun Saila, Osasun Saila, Lan eta Enplegu Saila, EUDEL eta udalak. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua; 8IE. 53P. EAEko GEBEen liburu zuria; eta 9IE. 66P. Gure udalen errealitatera egokitutako UJBen eredu bat zehaztea eta 67P. UJBen eredua garatzea eta ezartzea. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Txikia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2024ko apirila | 2028ko abendua |

| | |
|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | **8IE. Justizia errestauratiboa eta gatazkak ebazteko baliabide egokiak** |
| **PROGRAMA** | **Kultura-aldaketa Gatazkak Ebazteko Baliabide Egokietan** |
| **PROIEKTUA** | **56P. Gatazkak ebazteko baliabide egokiak eta hezkuntza** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Derrigorrezko irakaskuntzako curriculum-diseinuak aztertzea, eta curriculum horietan edukiak sartzea, ikasleek GEBEak erabiltzeko balio, jarrera eta portaera garrantzitsuak eskura ditzaten, eta justizia-sisteman eta administrazioetan dauden era horretako zerbitzuak ezagut ditzaten. Horrez gain, EAEko unibertsitateek ikasketa-planak eguneratu ditzaten bultzatzea, GEBEekin lotutako jakintza-arloak eta/edo ikasgaiak jaso ditzaten. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. EAEko ikasleek GEBEekin lotutako balioak, jarrerak eta portaerak eskuratzea, eta gatazkak ebazteko eskaintzen diren zerbitzuak ezagutzea.<br>2. Justizia Administrazioan parte hartzen duten edo harekin elkarlanean aritzen diren lanbideetako unibertsitate-irakaskuntzen ikasketa-planak eguneratzea, eta horietan GEBEekin lotutako jakintza-arloak eta kredituak sartzea.<br>3. Graduondoak egotea, epaile, fiskal, JAL, abokatu, prokuradore, lan-harremanetako gradudun izan nahi duten pertsonei GEBEei buruzko prestakuntza errazteko.<br>4. PLEArekin elkarlanean aritzea, gatazkak ebazteko baliabide egokien erabilerari buruzko ezagutza-eskaintza egiteko. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Hezkuntza Sailarekin batera, oinarrizko eta bigarren hezkuntzaren curriculumean GEBEei emandako tratamendua berrikustea.<br>2. Hala badagokio, aldaketak egitea lehen eta bigarren hezkuntzako jakintza-arloetan.<br>3. Material, unitate eta gida didaktikoak egitea, bai irakasleentzat, bai ikasleentzat.<br>4. Gatazken kudeaketa positiboari eta, horiek ebazteko, GEBEak erabiltzeari buruzko eskola-lehiaketak deitzea, hezkuntza-tarteen arabera.<br>5. Unibertsitateekin batera, ikasketa-planak aztertzea, egoera-txosten batean horientzako hobekuntzak proposatzeko.<br>6. Hobekuntza-proposamenak ezartzea.<br>7. Ekarpenak egitea PLEAk GEBEen ezagutza espezializatuaren eskaintza eguneratzeari dagokionez. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Egoerari buruzko txostena eta hobetzeko proposamenak derrigorrezko hezkuntzan (2025eko 4. hiruh.).<br>• Egoerari buruzko txostena eta hobetzeko proposamenak unibertsitatean (2025eko 4. hiruh.).<br>• Zenbat unitate didaktiko eta/edo gidaliburu egin diren.<br>• EAEko ikasleek GEBEekin lotutako EAEko zerbitzuei buruz zer-nolako ezagutza-maila duten (3tik gora, gehienez 5). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza, Justizia Administrazioko Zuzendaritza, Hezkuntza Saila, UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta PLEA. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | BJKN-EAEJAN, Segurtasun Saila eta Kriminologiaren Euskal Institutua. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 1IE. 3P. Justizia eta derrigorrezko hezkuntza, 4p. Justizia eta Unibertsitatea, eta 5P. Justizia polizia judizialaren prestakuntzan; eta 10IE. 72P. Zenbait sektorerekin (Hezkuntza, Segurtasuna, Gizarte Politikak, Biktimak, GEBEak...) lantaldeak egituratzea eta abian jartzea. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Txikia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2025eko urtarrila | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 8IE. Justizia errestauratiboa eta gatazkak ebazteko baliabide egokiak |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Kultura-aldaketa Gatazkak Ebazteko Baliabide Egokietan** |
| **PROIEKTUA** | **57P. GEBEen ezagutza gizarteratzea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Kanpo-komunikazioko plan integral bat diseinatzea eta garatzea, eztabaidak konpontzeko bitarteko egokiei buruzkoa eta, horiei dagokienez, justizia-sisteman eta EAEko administrazioetan ematen diren zerbitzuei buruzkoa. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Herritarrek eta gizarte-taldeek jakingo dute gatazkak ebazteko baliabide egokiek nola funtzionatzen duten, bai eta horiei dagokienez, justizia-sisteman eta EAEko administrazioetan ematen diren zerbitzuek nola funtzionatzen duten ere.<br>2. Gizarte-aldaketa progresiboa. EAEko herritarrek hautematea adostasunezko bidea eta gatazkak ebazteko baliabideak erabiltzea auzibidearen ordezko aukera egokia dela, eta hori erabiltzeak onura handiak dakartzala (komunikazioa handitzen du; tentsioak gutxitzen ditu; lankidetza indartzen du; konponbidean erantzukizuna hartzea areagotzen du; irabazteko/galtzeko sentimendua gainditzen du; kostu afektiboa murrizten du; gogobetetzea areagotzen du...). |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Plan bat diseinatu eta garatzea honako hauek zehazteko: mezuak, hartzaileak, komunikabideak nola erabili, eta hedapenerako euskarri, kanpaina, tresna, formatu eta plataformak.<br>2. Planaren tresna eta kanpaina nagusiak diseinatzea eta egitea (gatazkak ebazteko baliabide egokiak: zer diren, zertarako balio duten, zer mota dauden, zer eragilek edo pertsonak esku hartzen duten, garapen-faseak; bai eta horiei lotuta Justizia Administrazioan eta EAEko administrazioetan zer zerbitzu eskaintzen diren: izena, eremua, edukia, harremanetarako erreferentziak –webgunea, helbide elektronikoa, gune fisikoak–).<br>3. Komunikabide nagusiekin elkarlanean aritzea, gatazkak ebazteko baliabide egokiei buruzko interesguneak zabaltzeko, eta izaera didaktiko eta zerbitzu publikoko izaera handiagoa har dezaten; halaber, aldizkako deialdi bat egitea , GEBEei buruzko dibulgazio-lanik onena saritzeko.<br>4. EUDELekin eta udal nagusiekin batera, GEBEek eremu komunitarioan gatazkak ebazteko modura duten balioa nabarmentzeko jarduerak egiteko programa bat zehaztea.<br>5. Beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzea kulturaren eta GEBEen ildo bat garatzeko. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • GEBEei buruzko kanpo-komunikazioko plana, diseinatuta (2025eko 3. hiruh.).<br>• 2028an aurreikusitakoen aldean planeko zenbat kanpaina, neurri eta/edo ekintza egin diren (% 70etik gora). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza, Komunikazio Zuzendaritza, Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza eta Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuk. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Arartekoa, EAEJAN, Foru Aldundiak, EUDEL, abokatuak, prokuradoreak, lan-harremanetako gradudunak, Zuzenbide Kolaboratiboko Euskadiko Elkartea. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 1IE. 1P. Kanpo-komunikaziorako plana eta 2P. Pertzepzioari eta balorazioari buruzko inkestak; eta 5IE. Justizia Digitalaren Plana eta 11P. Justizia.eus berritzeko lanak amaitzea. |

| ERAGINA/GARANTZIA | Ertaina | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2025eko apirila | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 8IE. Justizia errestauratiboa eta gatazkak ebazteko baliabide egokiak |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Justizia Errestauratiboaren EAEko Estrategia** |
| **PROIEKTUA** | **58P. Justizia Errestauratiboaren EAEko Estrategia 2022-2025 onartzea eta garatzea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Justizia errestauratiboko EAEko estrategia zehaztea, kalitatezko justizia errestauratiboko zerbitzuak, aski ezagunak eta fidagarriak, egongo direla ziurtatzeko, zerbitzu horietarako sarbidea bermatzeko eta EAEko gizartean gure justizia humanizatzen duen kultura-aldaketa gerta dadin behar diren ekintzak zehazteko. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Justizia errestauratiboko zerbitzuak izatea delitu baten ondorioz kaltedun edo biktima diren guztientzat, bai eta erasotzaileentzat edo biktimarioentzat ere, edozein dela ere EAEko bizilekua, adina, dena delako delitua edo zigor-arloko prozesuaren fasea, zigor-betearazpena barne.<br>2. Justizia errestauratiboko zerbitzuak kalitate-estandar homogeneoen arabera ematea, haien espezifikotasuna alde batera utzi gabe.<br>3. Justizia-sistema penalean lan egiten duten edo harekin elkarlanean aritzen diren pertsonek justizia errestauratiboko gaikuntza izatea, eta epaile eta fiskalen zein poliziaren ikasketa-planetan sartzea, bai eta lanbide juridikoen unibertsitateko ikasketa-planetan ere.<br>4. Herritarrek eta zigor-arloko sisteman parte hartzen duten agentziek justizia errestauratiboaren funtzionamendua eta haren onurak ezagutzea, eta haren potentzialtasunean konfiantza izatea, justizia biguntzen duen aldaketa kultural baterako urrats gisa. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Justizia Errestauratiboaren EAEko Estrategia 2022-2025 elkarlanean lantzea.<br>2. Justizia Errestauratiboaren EAEko Estrategia 2022-2025 onartzea.<br>3. Justizia Errestauratiboaren EAEko Estrategia 2022-2025 garatzea, zehazten duen egutegiaren arabera. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Justizia Errestauratiboaren EAEko Estrategia 2022-2025 onartzea (2022ko 2. hiruh.).<br>• Estrategian urte bakoitzean aurreikusitako ekintzetatik zer % bete den (% 70etik gora).<br>• Estrategian bertan finkatzen direnak. |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | EAEJAN, Fiskaltza Nagusia, Gobernu-idazkaria, abokatuak, prokuradoreak, zigor-arloko jurisdikzio-ordenan esku hartzen duten organo judizialak, JEZaren erakunde esleipenduna, EAEko polizia. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Prozedura Kriminalaren Legearen aurreproiektua |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2022ko urtarrila | 2025eko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 8IE. Justizia errestauratiboa eta gatazkak ebazteko baliabide egokiak |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **GEBEak garatzea** |
| **PROIEKTUA** | **59P. GEBEak familia-eremuan finkatzea epaileak bideratuta** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Azken urteetan familia-prozedura judizialen barruan bitartekaritza-mekanismoen funtzionamendua aztertuta, hobetzeko moduko eremuak zehaztea, haiek finkatzeko, eta bideratutako auzigaien kopurua eta adostasunez ebatzitakoen ehunekoa nabarmen handitzeko. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. GEBEen funtzionamendua indartzea eremu intrajudizialean, jurisdikzio-ordena zibilean, familia-auzigaietan.<br>2. Epaileak bideratutako familiako bitartekaritza-zerbitzuaren funtzionamenduaren bilakaerari buruzko azterketa: bideratutako auzigai mota, ekimena, zer organo judizialek bideratu dituzten, efizientzia prozesalaren legearen eragina eta prozedurarako betekizuna, eta abar.<br>3. Protokoloak eta funtzionamendu-sistema, faseen epeak eta organo judizialekiko harremana aztertzea, horiek arindu eta hobetu daitezkeen zehazteko.<br>4. Bideratutako auzigaien kopuruaren hazkundea, neurri txikiagoan erabiltzen dituzten organo judizialetan bereziki, bai eta adostasunez ebatzitakoen ehunekoa ere. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Azken urteetako jarduera-memoria aintzat hartuta, haren funtzionamenduaren bilakaera, auzigai motak eta organo judizialekiko harremana aztertzea.<br>2. Bideratutako auzigaien kopurua handitzeko jarduketa-plan bat proposatzea, neurri txikiagoan erabiltzen dituzten organo judizialei eta adostasunez ebatzitakoen ehunekoari arreta berezia jarrita. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Azterlana eta jarduketa-plana, eginda (2023ko 2. hiruh.).<br>• JEZra (familia) bideratutako auzien kopuruaren hazkundea (% 35etik gora 2025ean, eta %70 2028an).<br>• Akordioarekin ebatzitako auzien kopuruaren %-a (ehuneko 3 puntutik gora 2025ean, eta ehuneko 6 puntutik 2028an) |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza, EAEJAN, Fiskaltza Nagusia, Gobernu-idazkaria. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | JEZ, familiaren arloan eskumenak dituzten organo judizialak. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Efizientzia Prozesalaren Legearen proiektua; eta 8IE. 53P. EAEko GEBEen liburu zuria eta 55P. Herritarren aldetik eta politika publikoetan GEBEak erabiltzea bultzatzea. |

| ERAGINA/GARANTZIA | HANDIA | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2022ko urria | 2028ko abendua |

| | |
|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | **8IE. Justizia errestauratiboa eta gatazkak ebazteko baliabide egokiak** |
| **PROGRAMA** | **GEBEak garatzea** |
| **PROIEKTUA** | **60P. GEBEak jurisdikzio zibilean (auzi zibilak eta merkataritzakoak) garatzea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEn GEBEak jurisdikzio-ordena zibilean (auzi zibilak eta merkataritzakoak) ezagutu eta erabil daitezen modurik eta prozedurarik egokiena zein den aztertzea, aukeratutako prozedura ahalik eta eraginkorrena izan dadin saiatzea prozedurarako betekizuna betetzeko, eta epaileek bideratutakoak handitzea nahi zen emaitzarik ez badu ekarri. |
| HELBURUAK | 1. Jurisdikzio-ordena zibileko organo judizialetan auzien gainkarga (auzi zibilak eta merkataritzakoak) murriztea eta etorkizuneko gatazkak gutxitzea.<br>2. Jurisdikzio-ordena zibilean (auzi zibilak eta merkataritzakoak) GEBEak orokorrean erabiltzea, jarduera jurisdikzionalaren beraren aurreko prozedurarako betekizun gisa, bai eta, azken horren emaitzarik ezean, magistratuak/epaileak edo JALek gauzatutako adiskidetzea edo epaileek bideratutako beste GEBE batzuk erabiltzea.<br>3. GEBEak prozedurarako betekizun gisa azkarrago betetzeko egitura eta prozedurak erregulatzea eta abian jartzea, eta bulego judizialaren ZEPOen funtzionamendua (edo dekanotza-zerbitzuena, oraindik ezarrita ez badago) egokitzea, deribatutako administrazio-kudeaketari erantzuteko.<br>4. Aurretiazko ahalegin horiek akordiorik ez badakarte eta prozesu judiziala egiten bada, magistratuen eta/edo JALen adiskidetzeak eta epaileek GEBEak erabiltzera bideratutako kasuak handitzea. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Jurisdikzio-ordenako (auzi zibilak eta merkataritzakoak) Estatuko GEBEen esperientziarik onenei buruzko informazioa biltzea.<br>2. Horietan eta aplikatu beharreko araudian oinarrituta, egitura eta prozedurak diseinatzea, GEBEen erabilera arintzeko prozedurarako betekizun gisa.<br>3. Bi proiektu pilotu egitea auzi zibil eta merkataritzakoez arduratzen diren bi organo judizialen egitura eta prozedura probatzeko, ikasitakoa aztertzea eta behin betiko funtzionamendu-prozedura proposatzea.<br>4. Bulego judizialaren egokitzapena zehaztea, Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektuarekiko koherentzia atxikita, ZEPOek administrazio-arreta eman dezaten, eta prozedurak abian jartzea EAEJANek organo judizialei egindako jardunbide egokien gomendioen bidez eta JALei emandako protokoloen bidez.<br>5. Justizia Sailburuordetzak jurisdikzio zibilean eta/edo merkataritza-jurisdikzioan GEBEen zerbitzurik bere gain hartzen duen aztertzea, epaileak bideratuta, eta, hala badagokio, prestazioa nola eman eta haren finantzaketa.<br>6. Era berean, prozedura garatu bitartean, EAEJANek prozedura judiziala GEBEra bideratzeari buruzko jardunbide egokien edo protokoloen gomendioak egitea, eta bideratzearen kasuak eta hura nola lehenetsi ezartzea.<br>7. Alderdiak doako justiziaren onuradun badira, GEBE zerbitzuen finantzaketa publikoa aurreikustea komeni edo beharrezkoa den aztertzea.<br>8. Sistema bat jartzea, 600 eurotik beherako prozeduretan, aukeratutako GEBEa bitarteko telematikoen bidez garatu ahal izan dadin. |
| ADIERAZLEAK | • Auzi zibil eta merkataritzakoez arduratzen diren 2 organo judizialetan 2 pilotu eginda (2024ko 3. hiruh.).<br>• EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak proposatutako protokoloak, gomendioak edo jardunbide egokiak (2024ko 4. hiruh.).<br>• Bulego judizialaren egitura administratiboa, egokituta (2024ko 4. hiruh.).<br>• GEBEra bideratutako auzi zibil eta merkataritzakoen kopuruaren hazkundea (2025. urtean % 10etik gora; 2026. urtean % 15etik gora; 2027. urtean % 20tik gora; 2028. urtean % 25etik gora). |
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza, Justizia Administrazioko Zuzendaritza, Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza, EAEJAN, Fiskaltza Nagusia eta Gobernu Idazkaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Abokatuak, Prokuradoreak, lan-harremanetako gradudunak, beste elkargo profesional batzuk, GEMME (Bitartekaritzaren aldeko magistratuen Europako taldea), Zuzenbide kolaboratiboko elkartea eta hirugarren sektoreko erakundeak |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Efizientzia Prozesalaren Legearen proiektua; Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua; 5IE. 22P. Gatazkak ebazteko sistema alternatiboko ODR (Online Dispute Resolution) baten bideragarritasuna aztertzea eta, hala badagokio, garatzea eta ezartzea. 54P. EAEn GEBEen ereduaren arau-esparrua, haren egitura sortzea eta garatzea. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2023ko urria | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 8IE. Justizia errestauratiboa eta gatazkak ebazteko baliabide egokiak |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **GEBEak garatzea** |
| **PROIEKTUA** | **61P. GEBEei lan-arloko jurisdikzioan heltzea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEko lan-arloko jurisdikzioan GEBEak ezagutu eta erabiltzeko modurik eta prozedurarik egokiena aztertzea, eta prozeduraren barruan GEBErako bideratzeak handitzea eta ahalik eta eraginkorrenak izan daitezen saiatzea. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Arlo sozialeko jurisdikzioko organo judizialetan auzigaien gainkarga gutxitzea eta etorkizuneko gatazkak murriztea.<br>2. Lan-prozeduren barruan GEBEen erabilera handitzea.<br>3. Lan-arloko jurisdikzioko bitartekaritzaren esperientziarik onenak ezagutzea eta EAEn erabiltzeko egokitzea. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Arlo sozialeko jurisdikzioaren EAEko zein estatuko GEBEen esperientziarik onenei buruzko informazioa jasotzen duen azterketa egitea, haien indarguneak eta ahulguneak zehaztea eta irakaspenak ateratzea.<br>2. Horietan eta aplikatu beharreko araudian oinarrituta, funtzionamendu-prozedura baten egitura diseinatzea, GEBEak are gehiago erabil daitezen EAEko lan-arloko jurisdikzioan, eta, hala badagokio, pilotu bat egitea.<br>3. Bulego judizialaren egokitzapena zehaztea, Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektuari jarraikiz, ZEPOetan administratiboki kasu egin dezaten, eta prozedurak abian jartzea EAEJANek, prozedura garatu bitartean, prozedura judiziala GEBEra bideratzeari buruz egindako jardunbide egokien edo protokoloen gomendioen bitartez; halaber, bideratzearen kasuak eta hura nola lehenetsi ezartzea.<br>4. Aztertzea ea Justizia Sailburuordetzak epaileak bideratutako GEBE zerbitzua lan-arloko jurisdikzioan bere gain hartzen duen, eta, hala badagokio, hori nola eman eta nola finantzatu.<br>5. Alderdiak doako justiziaren onuradun badira, GEBE zerbitzuen finantzaketa publikoa aurreikustea komeni edo beharrezkoa den aztertzea.<br>6. Sistema bat jartzea, aukeratutako GEBEa bitarteko telematikoen bidez garatu ahal izan dadin. |
| ADIERAZLEAK | • Azterlana egin da. (2024ko 3. hiruh.).<br>• EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak proposatutako protokoloak, gomendioak edo jardunbide egokiak (2024ko 4. hiruh.).<br>• Bulego judizialaren egitura administratiboa, egokituta (2024ko 4. hiruh.).<br>• GEBEra bideratutako lan-arloko jurisdikzioko auzien kopuruaren hazkundea (2025. urtean % 10etik gora; 2026. urtean % 15etik gora; 2027. urtean % 20tik gora; 2028. urtean % 25etik gora) |
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza, Justizia Administrazioko Zuzendaritza, Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza, EAEJAN eta Jaurlaritzaren Idazkaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Lan Harremanen Kontseilua (LHK), abokatuak, prokuradoreak, lan-harremanetako gradudunak, beste elkargo profesional batzuk, GEMME (Bitartekaritzaren aldeko Magistratuen Europako taldea), Zuzenbide Kolaboratiboko elkartea eta hirugarren sektoreko erakundeak. |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Efizientzia Prozesalaren Legearen proiektua; Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua; 5IE. 22P. Gatazkak ebazteko sistema alternatiborako ODR (Online Dispute Resolution) baten bideragarritasuna aztertzea eta, hala badagokio, garatzea eta ezartzea; 7IE. 50P. Etendutako epaiketen kopurua murriztea; eta 8IE. 53P. EAEko GEBEen liburu zuria eta 55P. EAEn GEBEen ereduaren arau-esparrua, haren egitura sortzea eta garatzea. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2023ko urria | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 8IE. Justizia errestauratiboa eta gatazkak ebazteko baliabide egokiak |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **GEBEak garatzea** |
| **PROIEKTUA** | **62P. GEBEei administrazio-auzien jurisdikzioan heltzea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEko administrazioarekiko auzien jurisdikzioan GEBEak ezagutu eta erabiltzeko modurik eta prozedurarik egokiena aztertzea, prozeduraren barruan GEBErako bideratzeak handitzea eta ahalik eta eraginkorrenak izan daitezen saiatzea. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organo judizialetan auzigaien gainkarga gutxitzea eta etorkizuneko gatazkak murriztea.<br>2. Eusko Jaurlaritzaren administrazio-eremuan GEBEen erabilera handitzea.<br>3. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioko prozeduretan GEBEen erabilera handitzea.<br>4. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan bitartekaritzari dagokionez dauden esperientziarik onenak ezagutzea eta horiek EAEn erabiltzeko egokitzea. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Azterketa bat egitea administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenako GEBEen esperientziarik onenei buruzko informazioa (EAEkoak zein estatuko gainerako lurraldeetakoak) jasotzeko, haren indarguneak eta ahuleziak zehazteko, eta irakaspenak ateratzeko.<br>2. Horietan eta aplikatu beharreko araudian oinarrituta, behin betiko funtzionamendu-prozedura baten egitura diseinatzea, EAEko lan-arloko jurisdikzioan GEBEen erabilera handitu dadin, eta pilotu bat egitea.<br>3. Bulego judizialaren egokitzapena zehaztea, Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektuari jarraikiz, ZEPOetan administratiboki kasu egin dezaten, eta prozedurak abian jartzea EAEJANek, prozedura garatu bitartean, prozedura judiziala GEBEra bideratzeari buruz egindako jardunbide egokien edo protokoloen gomendioen bitartez; halaber, bideratzearen kasuak eta hura nola lehenetsi ezartzea.<br>4. Aztertzea ea Justizia Sailburuordetzak epaileak bideratutako GEBE zerbitzua administrazio-auzien jurisdikzioan bere gain hartzen duen, eta, hala badagokio, hori nola eman eta nola finantzatu.<br>5. Alderdiak doako justiziaren onuradun badira, GEBE zerbitzuen finantzaketa publikoa aurreikustea komeni edo beharrezkoa den aztertzea.<br>6. Sistema bat jartzea, aukeratutako GEBEa bitarteko telematikoen bidez garatu ahal izan dadin.<br>7. Eusko Jaurlaritzako Administrazioarekiko Auzien Zuzendaritzarekin proiektu bat garatzea, letraduei gai horri buruzko prestakuntza emateko, eta bitartekaritza judiziala eskatu edo indartzeko jarduerak zehazteko, eta, hala badagokio, gainerako EAEko gainerako administrazio publikoetara zabaltzeko. |
| ADIERAZLEAK | • Azterlana, eginda (2024ko 3. hiruh.).<br>• EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak proposatutako protokoloak, gomendioak edo jardunbide egokiak (2024ko 4. hiruh.).<br>• Bulego judizialaren egitura administratiboa, egokituta (2024ko 4. hiruh.).<br>• GEBEra bideratutako lan-arloko jurisdikzioko auzien kopuruaren hazkundea (2025. urtean % 10etik gora; 2026. urtean % 12tik gora; 2027. urtean % 15etik gora, eta 2028. urtean % 20tik gora) |
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza, Justizia Administrazioko Zuzendaritza, Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza, EAEJAN eta Jaurlaritzaren Idazkaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Lan Harremanen Kontseilua (LHK), abokatuak, prokuradoreak, lan-harremanetako gradudunak, beste elkargo profesional batzuk, GEMME (Bitartekaritzaren aldeko Magistratuen Europako taldea), Zuzenbide Kolaboratiboko elkartea eta hirugarren sektoreko erakundeak. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Efizientzia Prozesalaren Legearen proiektua; Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua; 5IE. 22P. Gatazkak ebazteko sistema alternatiborako ODR (Online Dispute Resolution) baten bideragarritasuna aztertzea eta, hala badagokio, garatzea eta ezartzea; eta 8IE. 53P. EAEko GEBEen liburu zuria eta 55P. EAEn GEBEen ereduaren arau-esparrua, haren egitura sortzea eta garatzea. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2024ko urria | 2028ko abendua |

## 7.3.9. 9IE. JUSTIZIA BERRITZAILEA

| | |
|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | **9IE. Justizia berritzailea** |
| **PROGRAMA** | **Gure justiziaren etorkizuna** |
| **PROIEKTUA** | **63P. Prospektiba: EAEko justiziaren zerbitzu publikoa 2035ean** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEko justiziaren eremuan prospektiba publikoko ariketa bat egitea, epe ertaineko joeren azterketan oinarrituta (hogeita hamarreko hamarkada), zerbitzuak edo egiturak hobetzeko proposamenak egin ahal izan daitezen, eta horrela, justiziaren zerbitzu publikoaren gizarte-balioa handitzeko. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 3. Hainbat eragilek eztabaida lasaia izatea (operadore juridikoak, administrazioa, botere judiziala, unibertsitateak, herritarrak...), eta muturreko ikuspegiak gainditzea (hala nola –zenbait operadoreren– «justizia nirea da» eta –zenbait pertsonaren– «guztia doakoa da»), erantzukizun partekatuko ikuspegi baten bidez (erantzukidetasuna) eta arreta justizia ez deshumanizatzean jarriz.<br>4. Gure gizarteko etorkizuneko joerei buruzko hausnarketa, eta horiek justiziaren zerbitzu publikoari zer neurritan eragingo dioten.<br>5. Justiziaren zerbitzu publikoari buruzko proposamenak egitea, zerbitzuak garatzea eta hobetzea ekarri nahian, justiziaren sistema publikoaren gizarte-balioa handitzeko. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 4. Eragileen parte-hartzea erabakitzea.<br>5. Prospektiba proaktiboaren eredua erabiltzeko modua zehaztea.<br>6. Honako hauek zehaztea: ekimena, dimentsioak (soziala, ekonomikoa, teknologikoa, juridikoa) eta irismena (justizia-administrazioaren eredua edo ereduak), egutegiak, prozesua nola egin eta azken produktu izatea zer nahi dugun.<br>7. Prozesua garatzea.<br>8. Emaitzak jendaurrean jakinaraztea eta erakunde eskudunei helaraztea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Garapenari eta lanketari buruzko barne-akordioa (2023ko 2. hiruh.).<br>• Azken produktua, eginda (2024ko 4. hiruh.).<br>• Zabaldu eta helaraztea (2025eko 2. hiruh.). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Justizia Administrazioko Zuzendaritza, Justizia Zuzendaritza, Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza, EAEJAN, Fiskal Nagusia, Gobernu Idazkaritza, OLSNE, unibertsitateak, abokatuak, prokuradoreak, lan-harremanetako gradudunak, hirugarren sektoreko erakundeak eta herritarrak ordezkatzen dituzten elkarteak. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 9I. 64P. Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundea (OLSNE), bilakaera egokia eta 65P. Justizian ikertzea. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARANTZIA | Ertaina | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2023ko urtarrila | 2025eko ekaina |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 9IE. Justizia berritzailea |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Gure justiziaren etorkizuna** |
| **PROIEKTUA** | **64P. Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundea (OLSNE), bilakaera egokia.** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | OLSNEren bilakaera posiblea aztertzea. 1988an sortu zutenSoziologia Juridikoko Ikerketa Batzordeak (Nazioarteko Soziologia Elkartea) eta Eusko Jaurlaritzak. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Azken 10 urteetako jarduera aztertzea, eta zehaztea, gaur egungo xede nagusiari eutsita, ea posible den gizartearekin eta justizia-administrazioarekin lotura zuzenagoa duten beste helburu batzuk gehitzea.<br>2. Helburu horiek betetzeko beharrezkoak diren aldaketa juridikoak, egiturazkoak eta ekonomikoak ebaluatzea eta, hala badagokio, proposatzea. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Azken 10 urteetako urteko memorietan oinarrituta, OLSNEk jarduera-arlo guztietan (liburutegia, dokumentazio-zentroa, masterra, mintegiak, argitalpenak, egoitza) zer lorpen izan dituen aztertzea.<br>2. Justizia Sailburuordetzak azterketaren, ikerketaren eta prestakuntzaren arloan zer behar dituen aztertzea.<br>3. OLSNEren bilakaerarako hainbat eszenario eta alternatiba planteatzea, bai eta baliabideak egokitzeko edo esleitzeko beharrak ere.<br>4. Hala badagokio, behar diren aldaketak proposatzea hura burutzeko.<br>5. Hautatutako alternatiba ezartzea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • OLSNEren jarduketen azterketa, eginda (2025eko 1. hiruh.).<br>• Azterlanaren, ikerketaren eta prestakuntzaren eremuan Justizia Sailburuordetzak zer beharrizan dituen aztertzea, eginda (2025eko 1. hiruh.).<br>• Egoerei eta bilakaera-proposamenei buruzko txostena (2025eko 4. hiruh.). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza eta OLSNE. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Oñatiko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Zerbitzu eta Unibertsitateen Zuzendaritza. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 9IE. 63P. Prospektiba: EAEko justiziaren zerbitzu publikoa 2035ean eta 65P. Justizian ikertzea. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Txikia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2024ko uztaila | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 9IE. Justizia berritzailea |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Gure justiziaren etorkizuna** |
| **PROIEKTUA** | **65P. Justizian ikertzea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Justiziaren zerbitzu publikoarekin zerikusia duten ildoak, ikerketa-proiektuak edo azterlanak garatzea. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Justiziaren zerbitzu publikoak beste sektore batzuekin (ekonomia, hirugarren sektorea, belaunaldien arteko justizia, etab.) duen harremanari buruzko ezagutza hobetzea. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Unibertsitateetako ikertaldeekin sinergiak sortzea, ikerketa-azterlanak edo -proiektuak garatzeko.<br>2. Justiziaren zerbitzu publikoak EAEn zer-nolako eragin ekonomiko duen jakiteko txosten bat agintzea, efizientzia judizialaren alderdi guztiak zabal jorratu ditzan.<br>3. Ikerketa bat egiteko enkargua egitea edo, horretarako erakunderik balego, belaunaldien arteko justiziarekin zerikusia duen ikerketa-proiektu bat, haren askotariko alderdiak barne hartuta: ingurumena, zor publikoaren kudeaketa, pentsio-sistemaren finantzaketa, hizkuntzaren transmisioa.<br>4. Beste azterlan garrantzitsu batzuk zehaztea eta, hala badagokio, horiek agintzea.<br>5. Agindututako azterlanen berri ematea zabaltzea, hala barnean (operadore juridikoak) nola kanpoan (gizartea eta herritarrak). |
| ADIERAZLEAK | • Zenbat azterlan edo proiektu egin diren (3tik gora 2025eko 4. hiruh.ean; 6tik gora 2028ko 5. hiruh.ean). |
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Zuzendaritza eta Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Justizia Administrazioko Zuzendaritza, EAEJAN, Fiskal Nagusia, Gobernu Idazkaritza, OLSNE, unibertsitateak, abokatuak, prokuradoreak, lan-harremanetako gradudunak, hirugarren sektoreko erakundeak eta herritarrak ordezkatzen dituzten elkarteak. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 9IE. 63P. Prospektiba: EAEko justiziaren zerbitzu publikoa 2035ean eta 64P. Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundea (OLSNE), bilakaera egokia. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARANTZIA | | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2022ko uztaila | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 9IE. Justizia berritzailea |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Udalerriko justizia-bulegoak** |
| **PROIEKTUA** | **66P. Gure udalen errealitatera egokitutako UJBen eredu bat zehaztea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Udalerriko edo udalerri-multzoko justizia-bulegoen eredu bereziaren proposamenean aurrera egitea, gaur egungo bake-epaitegien ordez. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. EAEko udalerrietan Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektuaren aurreikuspenak aplikatzeko eredua diseinatzea, lurralde historikoen errealitateak kontuan hartuta.<br>2. Udaletan justiziarekin lotutako zerbitzuak mantentzea.<br>3. Behar diren kondizioak sortzea, udalerri horietan bizi direnak, kudeaketak zuzenean egiteko, hiriburuetara joan behar izan ez daitezen. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. EAEko egungo bake-epaitegiei buruzko egoera-txostena egitea.<br>2. Lantalde bat eratzea –EUDELekin, udalekin eta foru-aldundiekin– Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua aplikatzeko eredua EAEn garatzeko:<br>• Justizia-bulegoek udalerrietan zer eginkizun hartu dituzten beren gain zehaztea, bai eta justizia-administrazioarekin elkarlanean aritzeko beste eginkizun osagarri batzuk ere hartu ahal dituzten.<br>• Beste administrazio publiko batzuekiko lankidetza-bidea aztertzea, bulego horien zerbitzu-zorroa (leihatila bakar gisa) handitzeko.<br>• Arreta-araubidea zehaztea, baldin eta lanpostu-zerrenda bereko kide batek zerbitzuak udalerri batean baino gehiagoan ematen baditu, bai eta udalek arreta osagarria nola emango duten ere.<br>• Bulego horien instalazioak eta bitarteko instrumentalak zehaztea, bai eta haien kudeaketa-sistema ere (udalak edo Justizia Sailburuordetza).<br>• Justizia Sailburuordetzak sistema eta ekipo informatikoak nola emango dituen zehaztea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Bake-epaitegien egungo egoerari buruzko azterlana (2022ko 4. hiruh.)<br>• Lantaldea, eratuta (2022ko 4. hiruh.).<br>• Sistema berriaren diseinua (2023ko 4. hiruh.). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Administrazioko Zuzendaritza, EUDEL eta udalak. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | FA. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Justizia Plana 2030; Antolaketaren Efizientziaren Legearen plana; STEF. Udalen erregistro zibilak digitalizatzea eta 9IE. 67P. UJBen eredua garatzea eta ezartzea. |

| ERAGINA/GARANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2022ko urtarrila | 2023ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 9IE. Justizia berritzailea |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Udalerriko justizia-bulegoak** |
| **PROIEKTUA** | **67P. UJBen eredua garatzea eta ezartzea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Udalerriko edo udalerri-multzoetako justizia-bulegoen eredua aplikatzea egungo bake-epaitegien ordez, Antolaketaren Efizientziaren etorkizuneko Legearen aurreikuspenak betez. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Udalerrietako justiziarekin lotutako zerbitzuak mantentzea.<br>2. Behar diren kondizioak sortzea, udalerri horietan bizi direnak, kudeaketak zuzenean egiteko, hiriburuetara joan behar izan ez daitezen.<br>3. EAEko udalerrietan eredu berria ezartzea. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Lanpostuen zerrendak aldatzea, Antolaketaren Efizientziaren etorkizuneko Legearen eta EAErako zehaztutako ereduaren arabera (66 proiektua).<br>2. Udalerrietako justizia-bulegoek beren gain hartutako zerbitzuen katalogoa diseinatzea (bai justiziarekin lotutakoak, bai, hala badagokio, beste administrazio publiko batzuekin lankidetzan egindakoak).<br>3. Bulego horien funtzionamendu- eta arreta-araubidea zehaztea, eta, hala badagokio, Justizia Administrazioko langileen eta udaletako langile egokien arteko bizikidetza-modua zehaztea.<br>4. Bulego horien instalazioak eta bitarteko instrumentalak zehaztea, baita haien kudeaketa-sistema ere (udalak edo Justizia Sailburuordetza).<br>5. Sistemez eta ekipo informatikoez hornitzea.<br>6. Bulego horien jarraipena egitea eta funtzionamendua koordinatzea.<br>7. Funtzionamendu estandarizatua ahalbidetzeko lankidetza-sistemak ezartzea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Sistema berria ezartzea (2024ko 1. hiruh.).<br>• Bulego horietan arreta jasotako udalerriak (% 70etik gora 2025eko 4. hiruh.ean). |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Administrazioko Zuzendaritza, EUDEL eta udalak. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | FA. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Justizia Plana 2030; Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua; AELPA aplikatzea Justizia Ministerio eta autonomia-erkidegoekiko gobernantza partekatuan, AEB proiektuan eta 9IE. 66P. Gure udalen errealitatera egokitutako UJBen eredu bat zehaztea. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2024ko urtarrila | 2028ko abendua |

## 7.3.10. 10IE. JUSTIZIAREN ALDE ELKARLANEAN

| ILDO ESTRATEGIKOA | 10IE. Justiziaren alde elkarlanean |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Erantzukizun partekatua eta elkarlana** |
| **PROIEKTUA** | **68P. Justiziaren inguruko artikulazio instituzionala hobetzea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEko justizia-zerbitzu publikoak justizia-arloko eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Sailaren eta beste administrazio publiko eta konstituzio-organo batzuen laguntza behar du, eskumenak partekatzen baitituzte eta lurraldeari nahiz funtzionaltasunari dagokienez behar bezala koordinatu behar baitira. |
| HELBURUAK | 1. Arloko biltzarraren, EJBNaren eta AJEEBTaren funtzionamendu efizientea eta elkarlanean, gobernantza partekatuaren oraingo bidea sendotuz.<br>2. Justizia Ministerioarekin eta eskumenak transferituta dituzten gainerako autonomia-erkidegoekin harremanak dinamizatzea.<br>3. BJKNarekiko lankidetza handitzea, DOJZEN EAEn dagoela baliatuz. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Arloko biltzarraren funtzionamendu efizienteagoa egon dadin laguntzea, gobernantza partekatuaren esparruan.<br>2. AJEEBTean eta EJBNan elkarlanean eta proaktiboki parte hartzea.<br>3. Justizia Ministerioarekin eta beste autonomia-erkidego batzuekin harremana areagotzea, justiziaren zerbitzu publikoak beste lurralde batzuetan zer funtzionamendu duen ezagutzeko; horretarako, alde biko edo alde anitzeko topaketak sustatuko dira eskumenak transferituta dituzten beste autonomia-erkidego batzuekin, gobernuko kideen, epaileen, fiskalen eta JALen ordezkariek parte hartuta.<br>4. Alde biko harremanak sendotzea honako hauen bitartez: Erakunde arteko Batzorde Mistoa (EBM); EAEko Administrazio Orokorraren eta Ministerio Fiskalaren arteko koordinaziorako Batzorde Mistoa, eta Eusko Jaurlaritzaren eta EAEn destinatutako idazkaritza judizialaren arteko lankidetzarako organoa.<br>5. BJKNarekiko hitzarmen bat lantzea, AArekin zerikusia duten proiektuetan DOJZENekin elkarlanean aritzeko.<br>6. Justizia Administrazioko Batzorde Mistoa martxan jartzea, JPE 2022-2028aren jarraipena egiteko. Batzorde horrek 2021-2026 JDParen jarraipenerako aurreikusitako batzordea barne hartuko du. |
| ADIERAZLEAK | • Parte hartutako konferentzien eta batzordeen urteko bileren kopurua (20tik gora).<br>• BJKNarekiko hitzarmena, sinatuta eta betearazten (2024ko 3. hiruh.). |
| ERAGILE ARDURADUNA | Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, Justizia Sailburuordetza, Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza, Justizia Administrazioko Zuzendaritza, Justizia Zuzendaritza |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Justizia Ministerioa, beste autonomia-erkidego batzuk, BJKN, DOJZEN, EJBN, AJEEBT, Arloko Biltzarra, EAEJAN, Fiskaltza Nagusia, AJLak, abokatuak, prokuradoreak, lan-harremanetako gradudunak, langileen ordezkariak. |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Planaren gainerako ildoetako guztiak |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2022ko urtarrila | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 10IE. Justiziaren alde elkarlanean |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Erantzukizun partekatua eta elkarlana** |
| **PROIEKTUA** | **69P. AVANTIUS Kluba abian jartzea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | Lau autonomia-erkidegok (Nafarroa, Kantabria, Aragoi eta EAE) AVANTIUS prozesu-kudeaketako sistema –baita profesionalekin harremanetan jartzeko PSP aplikazioa ere– ezarrita edo ezartzeko bidean dute (Nafarroako Gobernuak lagata). Horrenbestez, komeni da lankidetza-mailan aurrera egitea, irizpideak bateratzeko, eta sistemaren garapen ebolutiboak planifikatu eta koordinatzeko, eskala-ekonomiak ezarrita. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK | 1. Prozesu-kudeaketarako eta profesionalekin harremanetan jartzeko sistema bat –erabiltzaileen beharretara eta arau-aldaketen eskakizunetara eguneratua– finkatzea, ahalik eta lasterren eta kostu txikienarekin.<br>2. Administrazioek horiei dagokienez egiten dituzten garapenak denek baliatzea.<br>3. Administrazioek abiatutako proiektuak osagarriak izatea eta bikoizketarik ez egotea. |

| | |
|---|---|
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Suspertze eta Erresilientzia Funtsaren banaketari dagokionez dagoeneko ekin zaien koordinazio-bilerekin jarraitzea.<br>2. AVANTIUS sistemaren bitartez autonomia-erkidegoen arteko harreman-sistema zehazteko egitura juridikorik egokiena aztertzea. Hasiera batean, hitzarmen aldeaniztunak edo partzuergoren bat izan daiteke.<br>3. Inplikatutako gainerako autonomia-erkidegoekin negoziatzea, sistemarik onena adosteko.<br>4. Hala badagokio, akordioa lortuta, izapidetze juridikorik egokienari heltzea. |

| | |
|---|---|
| ADIERAZLEAK | • Inplikatutako 4 autonomia-erkidegoen eta iTRACASAren urteko koordinazio-bileren kopurua (2tik gora) |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza eta Nafarroako, Kantabriako eta Aragoiko autonomia-erkidegoak. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Zuzendaritza eta organo horizontalak. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 5IE. 5P. Garapen zuzentzaileen eta ebolutiboen plangintza eta hasiera, elkarreragingarritasun-doikuntzak barne. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2022ko martxoa | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 10IE. Justiziaren alde elkarlanean |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Erantzukizun partekatua eta elkarlana** |
| **PROIEKTUA** | **70P. Abokatuekin, prokuradoreekin eta lan-harremanetako gradudunekiko harremana dinamizatzea** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | EAEko justizia-zerbitzu publikoak justizia-arloko eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Sailaren eta gure erkidegoan abokatuak, prokuradoreak eta lan-harremanetako gradudunak ordezkatzen dituzten elkargo-erakundeen laguntza behar du; izan ere, eskumen batzuk partekatzen dituzte, eta behar bezalako koordinazioa eduki behar dute. |
| HELBURUAK | 1. Loturak indartzea abokatuen kontseiluarekin, prokuradoreen elkargoekin eta lan-harremanetako gradudunen elkargoekin.<br>2. JPE 2022-2028 eta JDP 2021-2026, bai eta EAEko justiziaren zerbitzu publikoarekin zerikusia duen beste edozein gai ere, garatzeari dagokionez, lankidetza, azterketa, eztabaida, partaidetza eta aholkularitza gauzatzea. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Batzorde Mistoa kanpoko operadore juridikoekin martxan jartzea, JPE 2022-2028aren jarraipena egiteko; batzorde horrek JDP 2021-2026aren jarraipenerako aurreikusitakoa hartuko du barne.<br>2. Batzorde horrek eginkizun hauek ditu:<br>• proiektuaren barne-komunikazioa ziurtatzea,<br>• planaren jarraipenari buruzko urteko txostenen eta planaren aldaketen berri edukitzea, eta, behar denean, bidezkotzat jotzen dituen proposamenak egitea,<br>• proiektua ordezkatzen dituzten kolektiboen artean hedatzen laguntzea,<br>• ordezkatzen dituzten kolektiboen arteko lankidetza koordinatzea, eta<br>• EAEko justizia-zerbitzu publikoarekin eta kolektibo horien jarduerarekin zerikusia duen beste edozein gairi buruzko lankidetza, azterketa, eztabaida, partaidetza eta aholkularitza. |
| ADIERAZLEAK | • Kanpoko operadore juridikoekiko batzorde mistoaren JPE 2022-2028aren jarraipenerako urteko bilerak (1 gutxienez) |

| | |
|---|---|
| ERAGILE ARDURADUNA | Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, Justizia Sailburuordetza, Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza, Justizia Administrazioko Zuzendaritza eta Justizia Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Abokatuak, prokuradoreak eta lan-harremanetako gradudunak. |

| | |
|---|---|
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | JPE 2022-2028an agente laguntzaile gisa abokatuak, prokuradoreak eta lan-harremanetako gradudunak dituzten guztiak. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2022ko urtarrila | 2028ko abendua |

| | |
|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | **10IE. Justiziaren alde elkarlanean** |
| **PROGRAMA** | **Erantzukizun partekatua eta elkarlana** |
| **PROIEKTUA** | **71P. Kudeaketa publiko aurreratuko elkarlanerako egiturak** |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA | 39P eta 40P proiektuek aipatzen duten eredua ezartzeko, lantalde jakin batzuk eratu beharko dira barruti judizial bakoitzaren barruan eta orokorrean. |
| HELBURUAK | 1. Kudeaketa hobetzeko kultura ezartzea, Justizia Administrazioaren zerbitzua ematean efizientzia eta bikaintasuna lortzeko bidean.<br>2. Elkarri eragiteko formula iraunkorrak, dinamikoak eta bizkorrak garatzea, justiziaren esparruan lan egiten duten kolektiboek justizia-jauregi bakoitzaren barruan eta sektoreka koordinazioa eta lankidetza hobetu ditzaten. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. EAEko eremuan Justiziaren Zerbitzu Publikoaren Kalitaterako Batzordea formalki eratzea eta haren lan egiteko modua zehaztea.<br>2. EUSKALITekin eta Aurrerabide proiektua garatzeko arduradunekin elkarlanean lan egitea Funtzio Publikoko Sailburuordetzan edo estatuko beste erakunde batzuetan, eredua Justizia Administrazioan definitzeko eta garatzeko.<br>3. Barruti judizial bakoitzean eta, hala badagokio, zerbitzuetan, unitateetan eta/edo jurisdikzio-ordenan kudeaketa ezartzeko eta hobetzeko taldeak sortzea.<br>4. Beharrezkoak diren partaidetzazko saioak egitea: prestakuntza, ekintzak, autoebaluazioa, hobekuntza-plana ezartzea, etab.<br>5. Q-Epea sareko kide diren beste erakunde publiko batzuekin lankidetzan aritzea, Justizia Administraziora egokitzeko moduko esperientzien berri eman diezaguten. |
| ADIERAZLEAK | • Autonomia-erkidegoko justiziaren zerbitzu publikoaren Kalitaterako Batzordea sortzea (2024ko 1. hiruh.).<br>• EUSKALITekiko harreman egituratua (hitzarmena edo kontratua) (2025eko 3. hiruh.). |
| ERAGILE ARDURADUNA | Autonomia-erkidegoko justiziaren zerbitzu publikoaren Kalitaterako Batzordea eta Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Justizia Administrazioko Zuzendaritza, Justizia Zuzendaritza, Funtzio Publikoko Sailburuordetza, EUSKALIT eta Q-epea. |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Antolaketaren Efizientziaren Legearen proiektua; Justiziaren Zerbitzu Publikoaren antolaketa-eredu berria ezartzeko programa (Justizia Ministerioarekin eta autonomia-erkidegoekin gobernantza partekatuan); eta 06I. 39P. EAEko Justizia Administraziorako Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Ereduari (JAKPAE) buruzko akordioa eta 40P. Barruti judizialetan JAKPAEa pixkanaka ezartzea. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | DATAK | Hasiera | Aurreikusitako amaiera |
| | | | 2024ko urtarrila | 2028ko abendua |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 10IE. Justiziaren alde elkarlanean |
|---|---|
| **PROGRAMA** | **Erantzukizun partekatua eta elkarlana** |
| **PROIEKTUA** | **72P. Zenbait sektorerekin (Hezkuntza, Segurtasuna, Gizarte Politikak, Biktimak, GEBEak) lantaldeak egituratzea eta abian jartzea** |
| | | | Azterlanaren, ikerketaren eta prestakuntzaren eremuan Justizia Sailburuordetzak zer beharrizan dituen aztertzea, eginda (2025eko 1. hiruh.). |
| | | | Egoerei eta bilakaera-proposamenei buruzko txostena (2025eko 4. hiruh.). |
| | | 65P. Justizian ikertzea | Zenbat azterlan edo proiektu egin diren (3tik gora 2025eko 4. hiruh.ean; 6tik gora 2028ko 5. hiruh.ean). |
| | **Udalerriko justizia-bulegoak** | 66P. Gure udalen errealitatera egokitutako UJBen eredu bat zehaztea | Bake-epaitegien egungo egoerari buruzko azterlana (2022ko 4. hiruh.) |
| | | | Lantaldea, eratuta (2022ko 4. hiruh.). |
| | | | Sistema berriaren diseinua (2023ko 4. hiruh.). |
| | | 67P. UJBen eredua garatzea eta ezartzea | Sistema berria ezartzea (2024ko 1. hiruh.). |
| | | | Bulego horietan arreta jasotako udalerriak (% 70etik gora 2025eko 4. hiruh.ean). |
| **10IE.<br>JUSTIZIAREN ALDE ELKARLANEAN** | **Erantzukizun partekatua eta elkarlana** | 68P. Justiziaren inguruko artikulazio instituzionala hobetzea | Parte hartutako konferentzien eta batzordeen urteko bileren kopurua (20tik gora). |
| | | | BJKNarekiko hitzarmena, sinatuta eta betearazten (2024ko 3. hiruh.). |
| | | 69P. AVANTIUS Kluba abian jartzea | Inplikatutako 4 autonomia-erkidegoen eta iTRACASAren urteko koordinazio-bileren kopurua (2tik gora) |
| | | 70P. Abokatuekin, prokuradoreekin eta lan-harremanetako gradudunekiko harremana dinamizatzea | Kanpoko operadore juridikoekiko batzorde mistoaren JPE 2022-2028aren jarraipenerako urteko bilerak (1 gutxienez) |
| | | 71P. Kudeaketa publiko aurreratuko elkarlanerako egiturak | Autonomia-erkidegoko justiziaren zerbitzu publikoaren Kalitaterako Batzordea sortzea (2024ko 1. hiruh.). |
| | | | EUSKALITekiko harreman egituratua (hitzarmena edo kontratua) (2025eko 3. hiruh.). |
| | | 72P. Zenbait sektorerekin (Hezkuntza, Segurtasuna, Gizarte Politikak, Biktimak, GEBEak) lantaldeak egituratzea eta abian jartzea | Justizia eta hezkuntzaren lantaldea sortzea (2023ko 3. hiruh.). |
| | | | Justizia eta segurtasunaren lantaldea sortzea (2023ko 3. hiruh.). |
| | | | Justizia eta gizarte-politiken lantaldea sortzea (2023ko 3. hiruh.). |
| | | | Justizia eta biktimen lantaldea sortzea (2023ko 3. hiruh.). |
| | | | Justizia eta GEBEren lantaldea sortzea (2023ko 3. hiruh.). |
| | **Herritar parte-hartzaileagoak** | 73P. Justizia eta Hirugarren Sektorea Taldea | Justizia eta hirugarren sektore sozialaren lantaldea sortzea (2023ko 3. hiruh.). |
| | | 74P. Herritarren parte-hartzeko esperientziak | Herritarren partaidetza-prozesu bat Justizia Administrazioarekin lankidetzan aritzeko zer programa edo zerbitzutan egingo den erabakitzea (2023ko 3. hiruh.). |
| | | | Parte-hartze prozesuen kopurua (1 2024an, 1 2026an eta 2 2028an). |

## 7.6. Aurrekontua

JPE 2022-2028ari esleitutako aurrekontuak Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren aurrekontu-programetan zehaztutakoak izango dira, eta, ondorioz, aurrekontu-aurreikuspenen mende egongo dira. Hala eta guztiz ere, Sailak behar diren funtsak lortzen saiatu nahi du bere zuzendaritzetako baten ardurapean dauden proiektuak aurreikusitako epeen barruan gauzatu ahal izan daitezen.

Ahal den neurrian, hainbat urtetarako inbertsio-partidak sartu nahi dira, inbertsioa behar duten planeko proiektu garrantzitsuetarako (VI. kapitulua).



# Plan hau kudeatzeko eredua. Gobernantza

8

# 8. Plan hau kudeatzeko eredua. Gobernantza

## 8.1. Planaren prestaketa

Plan hau egiteko lana **dinamikoa eta partaidetzaren bidezkoa** izan da, eta honako hauek hartu dute parte prozesu horretan: Justizia Sailburuordetzaren lantaldea; epaileak; fiskalak; AMEIko kideak; kudeaketa, izapidetze eta laguntzako kidegoak. Gainera, honako hauen iritziak eduki dira kontuan: herritarren eta biktimen ordezkariak, operadore juridikoen elkarte eta elkargoenak; erakundeen ordezkariak, eta gizartearenak, eta EAEko justizia-sistemako beste eragile batzuk.

Kolektiboei zenbait inkesta ere helarazi dizkiegu JPE 2022-2028 honen diagnostikoa eta proposamenak gehiago doitzeko, COVID-19aren epidemiaren ondorioz ezarritako murrizketek zaildu egin baitute aurrez aurreko lantegiak egitea.

Halaber, lehen bertsio bat egin ondoren (ildo estrategikoak eta hasieran aurreikusitako proiektuak jaso zituen), haren berri eman genuen, eta horri buruz egindako ekarpenak bildu genituen honako hauekin:

- Epaileekin, EAEANari haren berri emateko saio baten bidez.
- Fiskalekin, EAEko Administrazio Orokorraren eta Fiskaltzaren arteko Koordinaziorako Batzorde Mistoaren bidez.
- JALekin, Eusko Jaurlaritzaren eta Idazkaritza Judizialaren arteko Lankidetza Organoaren bidez.
- Abokatuen, prokuradoreen eta lan-harremanetako gradudunen elkargoekin.
- Sindikatuen ordezkariekin

### 8.1.1. Plana egiten parte hartu duten lantaldeak




**Talde sustatzailea**

- Plana egiten du
- Plana gizarteratzen du

**Interes-taldeak**

- Diagnostikoa egiten laguntzen dute
- Igurikimenak eta proposamenak helarazten dituzte





**Diseinu-taldea**

- Idazkaritza teknikoa
- Pertsona guztien partaidetza laguntzen dute
- Dinamikak diseinatu eta koordinatzen dituzte
- Dokumentazioa eta materialak prestatzen dituzte

### 8.1.2. Prestaketaren eskemak






### 8.1.3. Baterako sorkuntza




## 8.2. Kudeaketa eredua

JPE 2022-2028 plana gauzatzeko, ezinbestekoak dira tresna eta mekanismo egokiak, jarduketak koordinatzeko eta bultzatzeko eta ezarritako helburuak behar bezala betetzeko. Kudeaketa-ereduaren oinarriak honako hauek dira:



### 8.2.1. Kudeaketa-ereduaren printzipioak

*Kogobernantzaren bidetik eskumen-sistema konplexu batean*

Konstituzioaren ondoriozko Justizia Administrazioaren gobernantza-sistema konplexua da, harremanen egituran kontuan eduki behar baitira eremu edo botere guztien eskumenak:

- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia (BJKN).
- Estatuko Fiskaltza Nagusia (EFN).
- Justizia Ministerioa (JM)
- Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)
- Eskumenak transferituta dauzkaten beste autonomia-erkidego batzuk: Andaluzia, Aragoi, Asturias, Kanariak, Katalunia, Kantabria, Madrilgo Erkidegoa, Valentziako Komunitatea, Galizia, Errioxa eta Nafarroa.
- Kudeaketa JMaren esku dagoen gainerako erkidegoak: Balear Uharteak, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon, Extremadura, Murtzia, Ceuta eta Melilla

Orain arte kogobernantza honetan lanean ari diren organo nagusiak honako hauek dira:

- JAren Arloko Konferentzia; lankidetza-organoa da, eta bertan daude Estatuko Administrazio Orokorra eta JAren jardunerako behar diren baliabide materialen, baliabide ekonomikoen eta langileen gaineko eskumenak bereganatuta dauzkaten autonomia-erkidegoak.
- Estatistika Judizialaren Batzorde Nazionalak (EJBN) Justizia Administrazioaren estatistika-plan orokor eta bereziak onesten ditu eta Espainiako sistema judizialaren estatistika-datuak lortzeko, informatikoki tratatzeko, transmititzeko eta ustiatzeko irizpide berdin eta nahitaez bete beharrekoak ezartzen ditu guztientzat. Honako hauek osatzen dute: JMa, gai horretan eskumenak dauzkaten autonomia-erkidegoen ordezkariak, BJKNa eta EFNa.
- Administrazio Judizial Elektronikoaren Estatuko Batzorde Teknikoa (AJEEBT), 18/2011 Legeak ezartzen duena –18/11 Legea, uztailaren 5ekoa, JAn informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) erabilera arautzen duena– eta ekainaren 7ko 396/13 Errege Dekretuak arautzen duena. Organo horrek JAn erabiltzen diren sistemen eta aplikazioen arteko elkarreragingarritasuna sustatzeko eta ziurtatzeko eskumenak dauzka, bai eta administrazioen arteko lankidetza ziurtatzeko eskumenak ere.

*Pandemiaren krisia kudeatzeko ezinbestekoa izan da kogobernantza autonomikoaren arkitektura garatzea: Arloko Konferentziaren araudi berria, Justizia Administrazioaren koordinazioa sendotzeko protokoloa eta datuetan oinarritutako justiziarako lankidetzaren protokoloa. Egitura berriko kogobernantzaren oinarriak ezarri dira. Autonomia-erkidegoekin kogobernantzan aritzeak dauden azpiegiturak zabaltzen ditu eta elkarrizketa eta informaziorako guneak handitzen ditu. Are gehiago, aurrera egin ahal izan da JMaren, AEen, BJKNaren eta EFNaren arteko kogobernantzan. Aurrerapauso horiek kogobernantzako egitura sendo bihurtu behar dira.*[3]

*Koordinazioa eta lankidetza operadore juridikoekin*

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren JDP 2022-2028 planak EAEko justiziaren arlo osoari eragiten dio; beraz, nolabaiteko eragina izango du operadore juridikoengan eta Jaurlaritzako

[3] Justizia 2030. JM

beste sailetan eta beste administrazio batzuetan (JM, Justiziaren arloko eskumenak bereganatu dituzten autonomia-erkidegoak, EFN, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuk, etab.). Horrenbestez, planeko jarduketek operadore juridiko guztiei eragingo diete eta horregatik, ezarritako helburuak bete daitezen, ezinbestekoa izango da denek parte hartzea eta lankidetzan jardutea. Horretarako, planak zenbait mekanismo edukiko ditu operadore juridikoen eta, behar denean, sailen eta administrazioen jardunak ongi koordinatzeko, sinergiak aprobetxatu eta proiektuen garapenean efikazagoak eta efizienteagoak izateko.

Plan hau, 1.10 atalean adierazi bezala, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren plan bat da, baina, gauzatzeko orduan, beste organo horien erantzunkidetasuna behar duten proiektu asko biltzen ditu. Horrela zehazten da proiektu bakoitzaren fitxan, *eragile arduradun*en eta *eragile laguntzaile*en ataletan. Beste proiektu batzuetan, berriz, (batez ere 7. ildo estrategikoan –Justizia ulergarria, azkarragoa eta kalitatezkoa–, baina baita beste batzuetan ere–, erantzukizun nagusia EAEANari dagokio, baina planean sartu dira homogeneotasuna eta koherentzia emateko, eta horrek ez du inola ere esan nahi ezarritako eskumen-esparrua aldatzeko asmorik dagoenik. Kasu horietan, kasuan kasuko administrazioaren borondatearen araberakoak izango dira jarduketak eta erreferentzia-datak. Proiektuetako batzuetan, deskribapenean bertan jasotzen da beharrezkoa dela lankidetza-hitzarmenak egitea proiektua gauzatzeko.

*Lidergo ausarta helburuak betetzeko*

JPE 2022-2028aren lidergoa Justizia Sailburuordetzari dagokio, eragile arduraduna beste administrazio bat den proiektuetan izan ezik; horrelakoetan ildo estrategikoen sustatzaile arituko da, horiek zuzenduko ditu eta behar diren laguntzak bilatuko ditu Jaurlaritzaren barruan eta honako hauekin: operadore juridikoak (hala barnekoak nola kanpokoak) JMa, BJKNa, EFNa, AJEEBTa, EJBNa, Justiziaren arloan eskumenak dituzten gainerako autonomia-erkidegoak, EAEANa, Fiskal Nagusia, Gobernu Ordezkaritza, abokatuak, prokuradoreak, lan-harremanetako gradudunak, AMEIa, Justiziarekiko lankidetza-zerbitzuak adjudikatuta dituzten hirugarren sektoreko enpresak, transferitutako langileak eta abarrak.

*Gainbegiratzea: Informazio erreala, argia eta aproposa edukiko duen proiektu-zuzendaritza*

JPE 2022-2028 planaren arabera, organo eta prozedura bereziak ezarriko dira gainbegiratze zorrotza eta efizientea egiteko, kudeaketa-taldeak zeregin administratibo gehiegirekin lanpetu gabe, baina planaren zuzendaritzari jardueren eta emaitzen egoeraren ikuspegi argia eta benetakoa emanez, kasu bakoitzean behar diren erabakiak eta neurriak hartu ahal izan ditzan.

*Bizirik dagoen eta inguruneko aldaketetara egokitzen den plana eguneratzea*

Denbora-horizontea luzea izango dela aurreikusi dugu jada: 2022-2028. Gaur egun, ezin da zehatz-mehatz jakin hiruzpalau urtean nola aldatuko diren inguruko elementuak eta nondik joko duten planeko ekimenek. Baliteke planean aldaketak egin behar izatea askotariko egoerek behartuta: hizpide izan ditugun arau-proiektuen azken emaitzagatik; araudian edo teknologian aldaketak gertatzeagatik; azterketen ondorioz erabaki teknikoak aldatu behar izateagatik; aurrekontu-aldaketengatik; proiektuen emaitzak beraiek behartuta, edo legegintzaldi-aldaketaren ondorioz. Horregatik, JPE 2022-2028 etengabe eraikitzen ari den plana izateko asmoarekin sortu da; gainera, inguruan gertatzen diren aldaketetara etengabe egokitzeko behar diren elementuak dauzka

### 8.2.2. Antolamendu-eredua. Organoak eta proiektu-taldeak

JPE 2022-2028 planaren antolamendu-ereduan plana gauzatzeaz arduratzen diren proiektu-taldeak daude, bai eta plana zuzentzeaz, koordinatzeaz, jarraipena egiteaz eta eguneratzeaz arduratzen diren organoak ere. JDP 2021-2026 plana JPE 2022-2028 honen 5. ildo estrategikoa da; horregatik, lehen plan horretarako aurreikusitako kide anitzeko organoak ondoren ezartzen diren berberak izango dira, alferrikako bikoiztasunik egon ez dadin.

*Justizia Sailburuordetzako Zuzendaritza eta Koordinazio Batzordea*

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari, eta, horren barruan, Justizia Sailburuordetzari dagokie JPE 2022-2028 planaren definizioaren eta exekuzioaren lidergoa. Justizia Sailburuordetzak Zuzendaritza Kontseiluaren bidez burutzen ditu plangintzako eta koordinazioko egitekoak. Kontseilu horretan sailburuordea eta hiru zuzendariak aritzen dira. Zuzendaritza Kontseiluak ardura hauek izango ditu:

- JPE 2022-2028 eta JDP 2021-2026 sustatzea eta horien jarraipena egitea (haren 5IEa da).
- Proiektuak noraino garatu eta bete diren aztertzea.
- Desbideratzeak eta araudian edo gizartean gertatzen diren aldaketen arabera beharko diren eguneratzeak aurreikustea eta, behar denean, planaren aldaketak onestea.
- Jarduteko estrategiak zehaztea.
- Aurrekontuak egiterakoan, proiektuen finantzaketa proposatzea.
- Gertatzen diren gatazkak konpontzea eta gorabehera handiak kudeatzea.

*Zerbitzu Zuzendaritza*

Sailaren ekonomiaren, ondarearen eta aurrekontuen kudeaketaren zuzendaritza eta koordinazioaren ardura eta kontratazioaren eta langileen kudeaketaren ardura dituenez gero, plana burutzeko laguntza emango du: laguntza juridikoa, laguntza materiala, kontratazioaren inguruko laguntza eta langileen kudeaketaren inguruko laguntza.

*JPE 2022-2028 planaren jarraipenerako JAren Batzorde Mistoa*

Osaera:

- Justizia Sailburuordetzaren sei ordezkari: Justiziako sailburuordea; justiziaren arloko hiru zuzendari; JDP 2021-2026 planaren koordinatzaile teknikoa; eta JPE 2022-2028 plan honen koordinatzaile teknikoa; azken hori Proiektu, Plangintza eta Koordinazio Zerbitzuko (aurrerantzean, KPPZ) pertsona bat izango da, eta idazkari jardungo du.
- Epaileen hiru ordezkari; Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak izendatuko ditu eta bat sala horretako presidentea izango da.
- Fiskaltzaren hiru ordezkari; Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusiak izendatuko ditu eta bat fiskal nagusia izango da.
- JAL kidegoaren hiru ordezkari; Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzak izendatuko ditu eta bat idazkaritza horretako titularra izango da.

Eginkizun hauek izango ditu:

- Bi planen barne-komunikazioa ziurtatzea.
- Bi planen jarraipenari buruzko urteko txostenen eta planen aldaketen berri edukitzea, eta, behar denean, egoki iritzitako proposamenak egitea.
- Proiektua kolektiboen artean hedatzen laguntzea.
- Kolektiboen arteko elkarlana koordinatzea.

*JPE 2022-2028 planaren jarraipenerako Kanpoko Eragile Juridikoen Batzorde Mistoa*

Osaera:

- Justizia Sailburuordetzaren sei ordezkari: Justiziako sailburuordea; justiziaren arloko hiru zuzendari; JDP 2021-2026 planaren koordinatzaile teknikoa; eta JPE 2022-2028 plan honen koordinatzaile teknikoa; azken hori Proiektu, Plangintza eta Koordinazio Zerbitzuko pertsona bat izango da, eta idazkari jardungo du.
- 9 pertsona, 3 EAEko lurralde bakoitzeko abokatuen, prokuradoreen eta lan-harremanetako gradudunen elkargo profesional bakoitzaren ordezkari.

Aurreko organoaren egiteko berak edukiko ditu bertan dauden kolektiboei dagokienez.

*Batzorde Sindikala (Batzorde Paritarioaren saioa)*

Osaera. Batzorde Paritarioarena.
Aurreko organoaren egiteko berak edukiko ditu ordezkatzen dituen langile-kolektiboei dagokienez.

*JPE 2022-2028 planaren koordinatzaile teknikoa*

Planaren betearazpenaren arduradun teknikoa PKKZko pertsona bat izango da. Honako hauek izango ditu zeregin nagusi:

- Planaren alderdi teknikoen koordinazioa eta jarraipena.
- Planaren jarraipenari eta ebaluazioari buruzko txostenak egitea.
- Planaren jarraipen operatiboari dagozkion edukiak egitea eta jarduerak kudeatzea.
- Proiektu-taldeak bateratzea.

Halaber, JDP 2021-2026 planaren koordinazio-arduradun tekniko bat egongo da.

*Proiektu-taldeak*

Proiektu baten eragile arduraduna Justizia Sailburuordetzako zuzendaritzetako bat bada, zuzendaritza horietako zerbitzuren bateko, AMEIko edo EATetako arduradun bat eta pertsona talde bat esleitu zaizkio proiektu horri; dena delako proiektuak ukitzen dituen eta horretan inplikatuta dauden arloak ordezkatuta egon daitezen saiatuko da, era horretan koordinazioa eta behar bezalako gauzatzea bermatuta egon daitezen.

### 8.2.3. Bitarteko propioak, kanpoko baliabideak eta hitzarmenak

- Proiektu batzuetan, oro har JDP 2021-2026 planean jasota daudenetan (JPE 2022-2028aren 5IEa), barne-enkarguak egin ahal izango zaizkie bitarteko propioei; zehazki, EJIE SA Eusko Jaurlaritzaren Informatika Sozietateari eta IZENPE SAri.
- Kanpoko baliabidetzat jotzen dira Administrazio Orokorreko sailak eta haren Administrazio instituzionaleko organismoak eta enteak ez beste guztiak, bitarteko propioak ez direnak. JPE 2022-2028 planeko proiektu batzuetan kontratatutako kanpoko baliabideak erabiliko dira.
- Proiektu batzuetarako lankidetza-hitzarmenak sinatuko dira.

## 8.3. Jarraipena, ebaluazioa eta eguneratzeak

### 8.3.1. Jarraipena eta ebaluazioa

JPE 2022-2028 plana egoki kudeatzeko, proiektuen aurrerapena eta ekimenen betetze-maila ongi eta zehaztasunez ezagutu ahal izateko mekanismoak eduki behar dira.

Horretarako, planaren koordinatzaile teknikoak Zuzendaritza eta Koordinazio Batzordeari helaraziko dizkio proiektuen aurrerapenari, ildo estrategikoen egoera orokorrari eta helburuen betetze-mailari buruzko informazio garrantzitsua biltzen duten dokumentuak.

*Jarraipen-txostenak*




- Urte bateko betetze-mailari buruzko jarraipen-txostena hurrengo urteko martxorako egin behar da. Bertan honako hauek azaldu behar dira:
  - ✓ epeen jarraipena,
  - ✓ ezarritako adierazleen eta helburuen betetze-maila, eta
  - ✓ egin beharreko moldaketen proposamena (behar izanez gero).

- Tarteko ebaluazio-txostena: 2024ko martxoa baino lehen, JDP 2021-2026 planarena; eta 2025eko martxoa baino lehen, JPE 2022-2028 planarena. Aurreko guztia ez ezik, aldaketak proposatuko dira (behar izanez gero): ildo estrategikoak edo proiektuak ezabatzea edo berriak ezartzea.

- Azkeneko ebaluazio-txostena 2027ko martxoa baino lehen, JDP 2021-2026 planarena; eta 2029ko martxoa baino lehen, JPE 2022-2028 planarena. Txosten horretan planaren gauzapena goitik behera aztertuko da (helburuak, epeak, emaitzak, adierazleak) eta ikasitakoaren berri emango da atal batean.

Txosten horietan, lortutako emaitzen eta ezarritako helburuen betetze-mailaren berri emango da, ezarritako epealdiak kontuan hartuta eta 7.5 atalean deskribatzen den adierazle-sisteman oinarrituta. Halaber, ekimenak gauzatzean edo ezartzean gertatutako gorabehera nagusiak aztertuko dira eta emaitzetan izan duten eragina baloratuko da.

Gainera, proiektu bakoitzak bere jarraipen-mekanismo espezifikoak edukiko ditu. Proiektu bakoitzaren arduradunek erabaki garrantzitsuak hartu beharra eragiten duten gorabeheren berri emango diote planaren koordinatzaile teknikoari (eta, behar denean, Justizia Sailburuordetzako Zuzendaritza Batzordeari ere bai).

### 8.3.2. Plan dinamikoa. Planaren eguneratzeak eta/edo aldaketak

Plana inguruaren etengabeko aldaketetara moldatu ahal izatea bermatu nahian, honako irizpide hau ezarri da: tarteko ebaluazioak egiten direnean proposatuko dira planen aldaketak. Nolanahi ere, inguruabarrek beste aldaketa batzuk gomendatzen badituzte, kasuan kasuko urteko txostenetan egin ahal izango dira.

### 8.3.3. Adierazle-sistema

JPE 2022-2028 eta JDP 2021-2026 emaitzetara bideratutako planak dira; beraz, helburu neurgarriak eta zenbakarriak ezarri dira eta horiei esker abian jarritako ekimenen benetako eraginaren jarraipen egokia egin ahal izango da. Jarduera-adierazleak eta emaitza-adierazleak daude.

Adierazleak proiektu bakoitzaren fitxan ageri dira; 7.5 atalean adierazle guztien taula orokorra dago, halaber, ildo estrategikoen eta proiektuen arabera antolatuta.

### 8.3.4. JDP 2021-2026 planaren koordinaziorako eta jarraipenerako tresnak

Planaren kudeaketa errazteko, elkarlanerako, ezagutzaren kudeaketa partekaturako eta JPE 2022-2028 eta JDP 2021-2026 planen proiektuen kudeaketarako espazioak sortuko dira.

Gune horretan honako tresna hauek egongo dira:

- JDP 2021-2026 liburutegia eta JPE 2022-2028 liburutegia, hurrenez hurren

- Egutegia
- Proiektuen datak, ildo estrategikoen arabera.
- Ildo estrategikoak eta proiektuak: kronograma orokor eguneratua (jarduteko programa).
- Proiektuak kudeatzeko guneak.

Proiektuak kudeatzeko guneetako edukiak haien araberakoak izango dira; beste proiektu batzuetarako estekak egon daitezke eta honako informazio hau eman daiteke:

- Egutegia
- Jarduera-programa
- Liburutegia (erreferentziako dokumentu nagusiak)
- Proiektuko parte-hartzaileak
- Berriak eta abisuak, behar izanez gero
- Etab.

Tresna horiei esker, noiznahi eskuratu ahal izango dira, ezartzen diren kontrolak gainditu eta segurtasun-baimenak edukiz gero, bi planei eta bertako proiektuei buruzko informazio eta dokumentazio eguneratuak, eta horrela hobeto koordinatu ahal izango dira haietan ari diren pertsona guztiak eta, halaber, errazago egin ahal izango da planaren gauzapenaren jarraipena.

### 8.3.5. Informazioa, trebakuntza eta aldaketaren kudeaketa

JPE 2022-2028 Justizia Sailburuordetzaren bultzadaz jaio da. Plana garatzeko eta ezartzeko lanetan sailburuordetzako langileak, Justizia Administrazioko langileak eta kanpoko operadore juridikoak ariko dira.

Oinarrizko hiru eremu landuko dira: informazioa, trebakuntza eta motibazioa/lidergoa.

#### *Informazioa*

Justizia Sailburuordetzako langileei, planarekin lotutako beste administrazio publiko batzuetakoei, JAkoei, kanpoko operadore juridikoei, herritarrei eta planaren eraginpeko gainerako kolektiboei informazio orokorra emango zaie JPE 2022-2028 planari buruz.

- Hasieran: Zer den plana, zer eginkizun, ikuspegi eta printzipio dituen, zein diren ildo estrategikoen helburu orokorrak, nola eta noiz ezarriko den, baliabideak...
- Plana gauzatzeko lanetan, etengabe emango da informazioa lan horietaz, emaitzez eta planaren eguneratzeez.

Kolektiboei ordezkarien bitartez informazioa emateaz gainera, planari buruzko informazio orokorra emango da Justizia.eus atarian.

#### *Prestakuntza*

Komunikazioaren arloarekin alderatuta, alderdi hau barnekoagoa da. Helburua da esku hartzen duten pertsonei aldaketa, elkarlana eta berrikuntza sustatzen duten jakintzak eta trebetasunak ematea. Proiektu bakoitzak berea edukiko du.

### *Motibazioa / Lidergoa*

Motibazio-lidergoaren bidez lortu nahi da pertsonek planarekiko konpromisoa hartzea, honako hauek oinarritzat hartuta: konfiantza, errespetua, komunikazioa, parte hartzea, ahalduntzea, elkarlana eta onarpena edo aitorpena.

### *Ildo estrategiko eta/edo proiektu nagusiak*

Garrantzia, konplexutasuna eta irismena kontuan edukita, proiektu, ildo estrategiko edo proiekturen batean aldaketaren kudeaketa berezia beharko da (informazioa, trebakuntza, motibazioa).



# Eranskinak

# I. eranskina. Egoeraren diagnostikoa

## EI.1. Politikak, itunak, botere judiziala eta harreman-esparrua

### EI.1.1 Botere judiziala, politizazioa eta independentzia

- Botere judiziala politizatuta dago. Gai eztabaidagarria izanik, kolektibo eta alderdi politiko batzuen ustez ez dago benetako independentzia judizialik Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kideak izendatzeko sisteman, Kongresuak eta Senatuak aukeratzen baitituzte, epaileek eta magistratuek aukeratu beharrean.

- Gizartean benetako independentziarik ezaren irudia nagusitzen da, komunikabideek eraginda. Justiziaren politizazioaren pertzepzio horrek epaitegietako eta auzitegietako eguneroko lana iluntzen du.

- Epaileak, beren jardunean, independenteak dira eta beren burua hala hautematen dute. Interpretazio positiboa du horrek, baina baita eragozpen bat ere: epaitegi eta auzitegi guztiek ez dute ebazpen bera ematen kasu berdinen aurrean.

### EI.1.2 Eskumenak eta harreman-esparrua

- EAEko Justizia Administrazioan eskumenak sakabanatuta daude BJKN, JM, EFN eta Eusko Jaurlaritzaren artean: lau erabakigune, batzuetan bat ez datozen interesak dituztenak eta beti behar bezala koordinatuta ez daudenak, eta horrek lankidetza eta kudeaketa zaildu egiten ditu.
- Harreman-esparruaren konplexutasunak elkarlana zailtzen du, kolektiboen arteko foro eta lantalde paralelo eta aldebiko asko baitaude.

### EI.1.3 Politika publikoak

- Planaren lanak 2019an hasi zirenean oso iritzi zabaldua zen Justiziaren aldeko apustu politikorik ez zegoela, ez eta ikuspegi orokorrik ere, hobekuntza nabarmenak ekarriko zituzten erreformak egiteko edo politika publikoak garatzeko; uste orokorra zen, halaber, justizia erreformatzeko 2001eko estatu-ituna zaharkituta geratu zela, bertan aurreikusitako erreforma asko gauzatu ez baziren ere.
- Hori gorabehera, azken bi urteetan[4] planteatutako erreforma sortak aldatu egin du hasierako jarrera hori: ikusmina eta itxaropena daude orain, azken 20 urteetan egin ez den lantegi horretan oso denbora gutxian aurrera egingo delakoan.

---

[4]Garrantzitsuenak: 3/2020 Legea, irailaren 18koa, Justizia Administrazioaren esparruan COVID-19ari aurre egiteko neurri prozesalena eta antolaketa-neurriena; 2030 JM Plana; Efizientzia Prozesalaren Lege Proiektua; Antolaketaren Efizientziaren Lege Proiektua; Efizientzia Digitalaren Lege Aurreproiektua, eta Prozedura Kriminalaren Lege Aurreproiektua.

## EI.2 Pertsonak

### EI.2.1 Hautatzea eta lanpostuak betetzea

- Bulego judizialetan bajak eta lanpostu hutsak betetzeko sistema hobetu egin beharko da oraindik, duela gutxi hobetu bada ere.
- Kudeaketa, izapidetze eta laguntzako kidegoetako lanpostuetako bitarteko langileen tasa handia da oraindik, baina gutxitzen ari da, hizkuntza-eskakizun bereziko lanpostuetan izan ezik. Beharrezkoa eta premiazkoa da plantillak egonkortzea.
- Epaileak, fiskalak eta JALak hautatzeko prozesua eguneratu behar da, zaharkitua eta desegokia baita.

### EI.2.2 LPZak, ratioak eta plantillak

- EAEko epaileen ratioa oso txikia da, Espainiako batez bestekoaren azpitik dago, eta, azken hori, berriz, Europako batez bestekoaren oso azpitik dago. Epaile eta fiskalen ratioa handitu behar da.
- Kudeaketa, izapidetze eta laguntzako kidegoetarako lanpostuak homologatzeko prozesu bat abian jartzeko lanean ari gara.
- Lan-ratio oso desberdinak daude. Jurisdikzio eta epaitegi batzuk kolapsatuta daude, eta beste batzuek, aldiz, oso lan-karga txikia dute; halaber, kolektiboen langileak ez dira beti esleitzen benetako lan-kargaren arabera (4,2ko batezbestekoa; JAko langileak: 4,5; auzitegiko medikuak: 4,8).

### EI.2.3 Prestakuntza

- Bitarteko funtzionarioentzat ez dago prestakuntza-eskaintza nahikorik, lanean hasi aurretik, ezta lan-poltsetan daudenentzat ere.
- Hitzarmenen egungo sistema (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila – BJKN / BJKN – Gobernantza Saila...) ez da administrazioek prestakuntza-beharrei erantzuteko elkarrekin aldez aurretik egindako plangintza osagarriko arrazoizko sistema baten emaitza.
- Justizia Administrazioko langileen prestakuntza-beharren diagnostiko bat landu dugu, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin (aurrerantzean, EHAA) elkarlanean, prestakuntza-plan bat egiteko.
- Lanpostuan hasten diren kudeaketa, izapidetze eta laguntzako kidegoetako langileentzako tutoretza-sistema berria aurrerapen bat izan da haien prestakuntzari dagokionez, eta tutoretza egiten duten pertsonentzako formula erakargarriagoa bilakatu da.
- Prestakuntza praktikoa falta da Justizia Administrazioan lan egiten duten kolektibo guztientzat. Tutoretza-sistema berria hobekuntza bat da kudeaketa, izapidetze eta laguntzako kidegoetako pertsonentzat.
- Harremanen eta pertsonen arretaren arloko gaitasunen prestakuntza falta da.

### EI.2.4 Pertsonen kudeaketarako tresnak

- Tutoretza-sistema hobetu den arren, oraindik ez dago harrera-sistema egituraturik lanpostu berri batean hasten diren pertsonentzat.
- Lidergoa gauzatzeko prestakuntza eta tresnak falta dira. Zerbitzu erkideetako JALentzat eta kudeatzaile arduradunentzat baino ez da era horretako prestakuntzarik egin.
- Oro har, ez dago taldean lan egiteko, kudeaketa hobetzeko eta pertsonek ezagutza elkarri helarazteko kulturarik.

### EI.2.5 Koordinazioa, komunikazioa, elkarlana eta talde-lana

- Justizia-jauregi bakoitzaren barruan ez dago Justizia Administrazioko kolektiboen arteko elkarreragin-sistema egituraturik haien artean koordinatzeko eta elkarlanean aritzeko beharrari erantzuteko, ez eta organo judizialen eta justiziarekiko lankidetza-zerbitzuen artean ere.

### EI.2.6 Etika kodea

- Epaileek beren kode etikoa landu dute; hala, Etika Judizialeko Printzipioak onartu dituzte, eta Etika Judizialeko Batzordea sortu dute, printzipio horien interpretazioari buruzko orientazioa emateko.

### EI.2.7 Profesionaltasuna, motibazioa eta aldaketa

- Pertsona batzuek aldaketarekiko ageriko erresistentzia dute (adibidez, Bulego Juridikoa ezartzean, Zerbitzu Erkideak abian jartzean, kalitate-sistemak ezartzean...), eta beste askok, aldiz, prestasun handia agertzen dute.
- Profesional askoren artean ez da kultura digitala zabaldu, eta horrek zaildu egiten du justizia digitala ezartzea, pentsamoldea aldatzea eskatzen baitu. Hala ere, Justizia Digitalaren Planeko inkestetan ikus daitekeenez, oso aurreikuspen onak dituzte berrikuntza teknologikoak Justizia Administrazioan izango duen eraginari dagokionez (3,9ko batezbestekoa barneko operadore juridikoen artean, eta 3,7, kanpokoen artean).
- Harreman ona dago profesionalen artean, baita jarrera ona eta irisgarritasuna ere, eta horrek erraztu egiten du jendeak auzitegiekin duen harremana.
- Asko aurreratu da justizia-arloko profesionalek biktimei ematen dieten arretan.
- Presio handiarekin lan egiten da eta handia da oso erantzukizun-maila; horrek higadura pertsonal handia eragiten du. Sistemak ez die behar besteko prestakuntzarik eta laguntzarik ematen profesionalei higadura hori gertatu ez dadin.

### EI.2.8 Laneko osasuna eta segurtasuna

- Justizia Administrazioan ez da Laneko Arriskuen Prebentziorako Legea osorik betetzen, baina Justizia Administrazioan Lan Segurtasunaren Eskema Komuna garatzen hasi da gaur egun. Eskema hori estatu osorako diseinatu da, JM, BJKN, EFN eta justiziaren arloan eskumenak transferituta dituzten autonomia-erkidegoen lankidetzarekin.

## EI.3 Justizia digitala

Justizia digitalaren arloko diagnostikoa zenbait saiotan landu zen talde sustatzailearekin eta interes-taldeekin COVID-19aren aurretik; diagnostiko hori eguneratu egin da 2021eko lehen seihilekoan egindakoarekin, zehatzagoa eta osatuagoa baita, eta 2021-2026 Justizia Digitalaren Planean azaltzen da. Plan hori, berez, digitalizazioari buruzko ildo estrategikoa da, eta haren proiektu guztiak barne hartzen ditu[5].

## EI.4 Kudeaketaren antolamendua, kalitatea eta hobekuntza

### EI.4.1 Bulego Judiziala (BJ) ezartzea

- BJaren garapen osoa eta arrakasta gaur egun izapidetzen ari diren lege-erreformen mende daude[6].
- Ezarritako BJBen funtzionamendua diagnostikatu behar da, eta, behar diren egokitzapenak egin eta Antolaketaren Efizientziaren oraingo Lege Proiektuaren azkeneko testua aintzat hartu ondoren, haien behin betiko eta erabateko ezarpena zehaztu behar da (3,8).
- BJko lanpostuak berrikusi behar dira, benetako beharretara egokitzeko.
- Ez dago funtzionamendu-irizpide homogeneorik barruti judizial guztietan, ezta handienetan ere. Beharrezkoa da barne-funtzionamenduko protokoloak eta arauak osatzea. Esate baterako, Bulego Judizialaren ezarpenak arazoak agerian utzi ditu zuzeneko laguntza emateko unitate prozesalen (aurrerantzean, ZULUP) eta betearazpeneko zerbitzu erkide prozesalen (aurrerantzean, BZEP) arteko zereginen koordinazioan eta banaketan.
- Ukitutako pertsona eta kolektibo guztiek ez dute ongi onartu Bulego Judizialean egindako aldaketa. Informazioa eta aldez aurretiko ezagutza falta dira.

### EI.4.2 Kudeaketaren kalitatea eta hobekuntza

- BJBrekin ezarri nahi izan zen kudeaketa hobetzeko ereduarekin funtzionatzen hasi ziren Koordinazio eta Hobekuntza Batzordeak ia geldirik egon dira.

[5] Ikusi Justizia Digitalaren Plana 2021-2026
[6] Modu esanguratsuan, Antolaketaren Erreformaren Lege Proiektua

- Inplikatutako kolektibo guztien arteko elkarguneak bilatu behar dira, guztiek onartu eta babesten duten kudeaketa-eredua definitzeko. Alde horretatik, komenigarria litzateke operadore juridikoen foro iraunkor bat izatea, kudeaketaren hobekuntza bultzatzeko.
- Ez dago talde-lanaren eta ezagutzaren kudeaketaren kultura nahikorik; gainera, justizian lan egiten duten pertsonen emaitzetara bideratutako espezializazio- eta kudeaketa-sistemak falta dira.

### EI.4.3 Bestelakoak

- Agenda judizialen eta operadore juridikoen koordinazioa hobetu behar da.
- Desiragarria litzateke sortzen diren arazoak arinago konpontzea.
- Baliabide materialak eta giza baliabideak eta kudeaketa-sistemak optimizatu behar dira.
- Biktimei eta erabiltzaileei ez zaie galdetzen epaitegietan edo laguntza-zerbitzuetan jasotako arretaren eta zerbitzuaren kalitateari buruz.
- Herritarrek antolaketa burokratizatuegitzat hartzen dute.

## EI.5 Azpiegiturak eta aurrekontua

### EI.5.1 Plangintza eta espazioak

- Beharrezkoa izango litzateke diagnostiko orokor bat eta eraikinak eta azpiegiturak eguneratzeko beharrak integratzen dituen plan bat egitea, alderdi guztiak kontuan hartuta (Bulego Judizialaren antolamendu-aldaketetara egokitzea, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiak, segurtasuna, irisgarritasuna, energia-efizientzia, egitura judizialean izan daitezkeen aldaketak...).
- Barruti judizial batzuetan tokia falta da, batez ere Bilbon; bertan, izan ere, eremu gehiago behar dira, eremu hurbilak eta elkarri lotuak, energetikoki efizienteagoak eta irisgarriagoak[7].
- AMEIaren eremuak ez dira egokiak instalazioetako batzuk kokatzeko eta behar bezala funtzionatzeko, batez ere Bilbon. Halaber, gaiari buruzko erabakia hartu aurretik, interesgarria litzateke zehaztea ea gaur egungo instalazio eta zerbitzu guztiak hiru lurraldeetan errepikatu behar diren.

### EI.5.2 Egokitasuna

- Beste autonomia-erkidego batzuekin alderatuta, eraikinen eta ekipamenduen maila handia dugu.

---

[7] Hau idazteko unean, Eusko Jaurlaritzak Mapfre eraikina erosi du, eta horrek neurri batean konponduko du arazoa.

- Pixkanaka, eremu judizialak emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegien beharrizanetara egokitzen ari dira, eremu egokiak eta beharrezko zerbitzuez hornituak egon daitezen, biktimen intimitatea eta babesa bermatzeko ez ezik, biktimak eta biktimarioak batera egon daitezen ere eragozteko. Hala, proiektu arrakastatsu batzuk egin dira, hala nola Gasteizko emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegian edo Bilboko Familia Elkargunean. Hala ere, talde sustatzailearen saioetan eta biktimekin eta beste interes-talde batzuekin egindako saioetan jasotako pertzepzio hori ez da guztiz islatzen inkestetan, eta balorazio baxuena lortzen du (2,8ko batezbestekoa; 2,5 Justizia Administrazioko langile transferituen artean; 3,2 herritarren artean).

- Eremu batzuk ez daude egokituta, eta nekez egokitzen dira segurtasun- eta irisgarritasun-beharretara.

- Eraikin judizial batzuk ez dira egokitzen Bulego Judizialak behar duen lan-eremu komunen konfiguraziora.

- Eraikin batzuetan, eremu fisikoek ez dute isolamendu akustikorik, eta horrek ez du bermatzen elkarrizketak konfidentzialak izatea.

### EI.5.3 Berritzea eta kudeatzea

- Eraikin batzuk berriak dira eta egoera onean daude.

- Klimatizazio-sistemak, kasu askotan zaharkituak eta eskasak zirenak, berritzen hasiak dira.

- Oro har, eraikinak eta instalazioak zahartzen dira pixkanaka, eta azpiegitura judizial asko hondatuta eta zaharkituta daude.

### EI.5.4 Aurrekontua: gehikuntza, aurrekontu-autonomia, efikazia

- Justizia Sailburuordetzaren aurrekontua gobernuaren aurrekontu osoaren % 1,61 baino ez da, eta 91,12 euro biztanle bakoitzeko[8]. Biztanleko gastu hori eskumenak transferituta dituzten gainerako autonomia-erkidegoena baino handiagoa bada ere, pertsonetan oinarritutako Eusko Jaurlaritzaren gainerako zerbitzu publikoena baino askoz ere txikiagoa da (Osasuna, Hezkuntza eta Segurtasuna), bai eta Europako zenbait estaturena ere.
- Aurrekontua handitu behar da, justiziaren zerbitzu publikoa hobetzeko eta Plan Estrategikoan planteatutako hobekuntzak gauzatu ahal izateko.
- Aurreikus daitekeen egoera ekonomikoaren hobekuntzak eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planeko funtsen etorrerak aurrekontuak handitzea ahalbidetuko dute, eta hobekuntzak egiteko aukera emango du horrek, batez ere eremu digitalean.

---

[8] EAEko 2021eko aurrekontuaren datuak. Ikusi EAEko Justizia zifratan 2021/10/1.

- Gastua optimizatu behar da, lehentasunak ezarriz eta planifikatuz.

## EI.6 Beste operadore juridiko batzuk

### EI.6.1 Oro har

- Oro har, handia da justiziaren balioarekin eta sistema beraren parte izatearekin dagoen identifikazio-maila, baina prozesuetan behera egiten du epaileen, fiskalen, lan-harremanetako gradudunen eta prokuradoreen arteko elkarrenganako enpatiak.
- Gizarte-zerbitzuen esparruko profesionalen eta operadore juridikoen artean elkarrekiko aintzatespena falta dela hautematen da nolabait.
- Operadore juridiko guztien etengabeko prestakuntza falta dago.
- Abokatuen prestakuntza birplanteatu egin beharko litzateke.
- Abokatutza poliki egokitzen da aurrerapen teknologikoetara. JDParen inkestan, honako adierazpen honek: *Justiziako profesionalok prestakuntza jasotzen dugu eta aldaketa teknologikoetarako eta AJ digitalizatu baterako prestatuta gaude*, balorazio txikienetako bat jaso zuen (2,8).
- Prokuradoreen zeregina berrikusi egin behar da, haien jarduera eguneratzeko eta justizia digitalaren arora egokitzeko.
- Profesionalen, operadore juridikoen eta justiziarekiko lankidetza-zerbitzuen arteko lankidetza-bide egituratuak falta dira, bai eta operadore juridikoek gizarte-aldaketei buruzko ikuspuntuak aztertu eta partekatu ahal izateko esparruak ere.
- Printzipio deontologikoak, etikoak eta jasangarritasunekoak hobeto aplika daitezke.
- Garrantzitsua da gizarte-langileak, psikologoak eta hezitzaileak administrazioan integratuta egotea, zigorrak kudeatzeko, biktimei arreta emateko eta adingabeei laguntzeko, besteak beste.
- Auzitegiko Balioespen Integraleko Unitateek, talde psikosozialek eta Biktimei Laguntzeko Zerbitzuek txosten azkar eta onak egiten dituzte, eta ongi koordinatuta daude.
- Prozedura judizialak izapidetzeko orduan bitartekariak (abokatuak, prokuradoreak) behar izateak, zenbaiten iritziz, zaildu egiten du herritarren justiziarako irisgarritasuna, eta hobetu egiten du, aldiz, beste batzuen ustez.
- Gizarte-langileentzako protokoloak ez dira nahitaez bete behar, eta aparteko lantzat hartu ohi dira. Profesional batzuek ez dute epaiketetan parte hartu nahi.

### EI.6.2 Doako justizia eta abokatuak

- Doako justizia desberdintasunak konpentsatzeko mekanismo bat da; ongi funtzionatzen du eta auzitegietan ordezkaritza izateko sarbide unibertsala ematen du.

- Emakumearen aurkako indarkeria-kasuetan, emakume guztiek dute doako justiziarako sarbidea, haien diru-sarrerak edozein direla ere.
- Doako laguntza juridikoko zerbitzuak eskuratzeko baldintzak betetzen ez dituzten pertsona batzuentzat, justizia garestia da eta gerta liteke eskuraezina izatea.
- Batzuetan, ofiziozko abokatuak ez dira adituak emakumearen aurkako indarkeria mota guztietan, edo aurreiritziak dituzte erasotzaileek bien seme-alabekin harremanak izateko duten eskubideari dagokionez.
- Batzuetan, ofiziozko txandako abokatuek dedikazio eskasa ematen diote biktimei (denbora gutxi, asko itxaron beharra eta enpatiarik gabe). Gaitasun sozioekonomikoak justiziaren aurreko ordezkaritzaren kalitateari eragiten dio.
- Doako justizia-zerbitzuak hobeto funtzionatzen du hiru hiriburuetan eta Barakaldon EAEko gainerakoan baino.
- Batzuetan, doako laguntza juridikoa gehiegikeriaz erabiltzen da alderdi demandatuari jazarri nahian demandatzeko, eta gerta liteke horrentzat oso larria izatea, horretarako eskubide bera ez badu.

## EI.7 Jarduera judiziala

### EI.7.1 Erantzun-denbora

- Ez da ulertzen jurisdikzio-ordena bereko epaitegietan prozedura mota bera izapidetzeko denboretan alderik egotea.
- Justizia azkarra da babes-aginduak ematean, paziente psikiatrikoen nahigabeko ospitaleratzeetan edo osasun publikorako arrisku-egoeretan.
- Baldintza jakin batzuk betetzen dituzten gaietarako epaiketa azkarrak egoteak erantzun judiziala hobetzen du.
- Sistema prozesala motelegia da, eta ez dira beti arauan ezarritako epeak betetzen. Beharrezkoa da instrukzioa eta gainerako prozedurak azkarragoak izatea, prozesu batzuk luzatzeak birbiktimizazioa baitakar.
- Instrukzio-faseak, oro har, aurreikusitako epeak betetzen ditu, baina, batzuetan, luzatu egiten da, instrukzio-luzapena oinarri handirik gabe erabiltzen baita.

### EI.7.2 Berdintasuna justiziaren aurrean

- Prozesu-mailan, berdintasuna bermatuta dago. Jarduera judizialean eskubideak oro har bermatzen dira.
- Epaitegi guztietan irizpide bateraturik ez egoteak babesgabetasuna eta ziurgabetasuna sortzen du, erantzun judizialean koherentziarik ez baitago.

- Sisteman ez dago ekitaterik; kolektiboei ez zaie berdintasunik bermatzen ez defentsan, ezta sarbidean ere. Zerbitzu publiko eskuraezina da herritar batzuentzat.

#### EI.7.3 Pertsona eta erakunde erabiltzaileekiko harremana

- Ebazpen, txosten eta epai judizialetan erabiltzen den hizkera teknikoegia da, batzuetan kriptikoa, egokitu gabea eta ez oso ulergarria pertsona eta erakunde interesdunentzat.
- Prozesu judizialetan ez dago irisgarritasun kognitiborik. Inprimaki judizialak ulertezinak dira sistematik kanpoko pertsonentzat.
- Auzi-jartzaileen ikustaldietako eszenifikazioak eta banaketa fisikoak eta inguruneak urrundu egiten dituzte pertsonak parte hartzen ari diren prozesutik.
- Ez dago epaitegira iristen diren pertsonentzako harrera-prozedurarik, horiek justiziara jotzean izan ohi duten beldurra eta ziurgabetasuna arintzeko. Prozesuan zehar gizatasuna eta enpatia falta dira.
- Pertsona interesdunei ez zaie beren prozesuaren egoerari buruzko behar adinako ezagutzarik ematen. Zaila da espediente judiziala eskuratzea.
- Oso zaila da JAra euskaraz jotzea.

## EI.8 Gatazkak ebazteko baliabide egokiak

### EI.8.1 Ezagutza eta kultura-aldaketa

- Oro har, herritarrek ez dituzte gatazkak konpontzeko sistema egokiak –aurreratzean, GEBE– ezagutzen (4,2).
- Ez dago negoziazio-kulturarik eztabaidak konpontzeko, eta salatzeko eta gatazka judizializatzeko joera nagusitzen da.
- GEBEen garapenak paradigma-aldaketa eta gizarte-sentsibilizazioa behar ditu.

### EI.8.2 GEBEak

- GEBEak ez daude behar bezala garatuta. Izapidetzeko bidean dago horiek arautzen dituen prozesu-efizientziari buruzko legearen proiektua; modu zabalagoan garatzen du bitartekaritza zibila, baina ondoren arautu egin beharko dira oraindik beste esparru batzuk, hala nola administrazioarekiko auzien arloa.
- Familia-bitartekaritzako zerbitzuak ongi funtzionatzen du, doakoa da, prozesuak arintzen ditu eta denbora eta baliabideak aurrezteko balio du.
- Justizia errestauratibo penalak erreparazioa bultzatzen du, alderdiei protagonismoa ematen baitie; era horretan, prozesu judiziala errazten du, baina, justizia hori bultzatzeko, harreman-gaitasunen garapenaren arloko sentsibilizazioa eta prestakuntza falta dira.
- Justizia Administrazioak badaki justizia ez dagokiela auzitegiei soilik, eta lagundu egiten die elkarlaneko zuzenbidea sustatzen duten erakundeei.
- GEBEak bultzatzeak nabarmen arindu dezake justizia-auzitegien lan-karga.

## EI.9 Herritarren ezagutza eta pertzepzioa

### EI.9.1 Sistemari buruzko ezagutza

